



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**EUSKADIKO AUTOGOBERNUA EGUNERATZEKO PONENTZIA
PONENTIA PARA LA ACTUALIZACIÓN DEL AUTOGOBIERNO DE
EUSKADI**

Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko
Ponentziari buruzko dokumentazioa bidaltzen
da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 4a

Legelari nagusia,

Se adjunta documentación relativa a la
Ponencia para la Actualización del
Autogobierno en Euskadi.

**Vitoria-Gasteiz, 4 de septiembre de
2018.**

El letrado mayor,

Andoni Iturbe Mach





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**EUSKADIKO AUTOGOBERNUA EGUNERATZEKO PONENTZIA
PONENCIA PARA LA ACTUALIZACIÓN DEL AUTOGOBIERNO DE EUSKADI**

**OINARRI ADOSTUAK ETA
AURKEZTUTAKO BOTO
PARTIKULARRAK**

**BASES CONSENSUADAS Y
VOTOS PARTICULARES
PRESENTADOS**





AURKIBIDEA

- I. Oinarria - Hitzaurrea
- II. Oinarria - Atariko titulua
- III. Oinarria - Eskumenak. Euskal autogobernuaren botere-funtsa
- IV. Oinarria - SJPren botereak. Lurralde antolamendua.
- V. Oinarria - Ekonomia-, Finantza eta Zerga-Araubidea. SJPko Ogasuna eta Ondarea. Gizarte- eta Lan-Politikak eta Gizarte-Babeseko politikak.
- VI. Oinarria - Herritarren eskibudeei eta emakumeen eskubideei buruzko tituluak.
- VII. Oinarria - Europar Batasunarekiko Harremanak. Nazioarteko erakundeekiko harremanak eta kanpo-politika-
- VIII. Oinarria - Erreformaren titulua eta xedapenak
- PV-ETPk aurkeztutako boto partikularra
- SV-ESk aurkeztutako boto partikularra
- EP-k aurkeztutako boto partikularrak**
- I.Oinarriari
 - II.Oinarriari
 - III, IV eta V. oinarriari
 - VII eta VIII. oinarriari
 - Galdeketa gaitzaileari
- EH Bildu-k aurkeztutako boto partikularrak**
- I. Oinarriari
 - IV. Oinarriari

ÍNDICE

- Base I - Preámbulo
- Base II - Título Preliminar
- Base III - Competencias. Fondo de poder del autogobierno vasco
- Base IV - Poderes del Sujeto Político Vasco. Organización territorial
- Base V - Régimen Económico, Financiero y Tributario-Fiscal. Hacienda y Patrimonio del Sujeto Político Vasco. Políticas Socio-Laborales y de Protección Social
- Base VI - Derechos de ciudadanía y de derechos de las mujeres
- Base VII - Relaciones con la Unión Europea: Relaciones con organismos internacionales y política exterior
- Base VIII - Título de la reforma y disposiciones
- Voto particular presentado por PV-ETP
- Voto particular presentado por SV-ES
- Votos particulares presentados por EP**
- A la Base I
 - A la Base II
 - A las Bases III, IV y V
 - A las Bases VII y VIII
 - A la consulta habilitante
- Votos particulares presentados por EH Bildu**
- A la Base I
 - A la Base IV





I. OINARRIA – HITZAURREA

1.- Testuinguru historiko-politikoa

1.1. Aurrekariak

- XIX. mendearen amaierara arte, foru-antolamendua.
- 1936ko Estatutua.
- 1979ko Gernikako Estatutua: euskal autogobernua sendotzen, instituzionalizatzen eta herritarren bizikaltatea eta ongizatea hobetzen lagundu du; gainera, askotariko sentsibilitateen arteko ituna izan zen – ez askatasun osoan egina, ordea, testuinguru historikoaren ondorioz–. Hala ere, ezin dugu ahaztu EAEko Autonomia Estatutua, 1979an lege organiko baten bitartez onetsia, ez dela erabat gauzatu. Izan ere, Espainiako gobernuak eskualdatze-prozesua oztopatu dute azken 39 urteetan, oinarriko legeria hedatu dute eta Konstituzio Auzitegiak ahultze-doktrina aplikatu du. Estatutua betetzea EAEko herritarren eskubide eta agindua da, eta ez du inolako akordio eta aldagairen mende egon behar.

Estatutu politiko berriak ezinbestekoak ditu subjektu juridiko politikoa aintzatesteko oinarriak, benetako alde bikotasuna eta gure autogobernua babestea.

1.2 Indarkeria politikoa

Azken ehun urteetan, euskal gizarteak indarkeriak markatutako lau esperientzia traumatiko bizi izan ditu

BASE I – PREÁMBULO

1.- Contexto histórico político

1.1. Antecedentes

- Articulación en clave foral hasta finales del siglo XIX.
- Estatuto de 1936.
- Estatuto de Gernika de 1979: ha contribuido a la consolidación del autogobierno vasco, a la institucionalización y a la mejora de la calidad de vida y bienestar de la ciudadanía, y supuso un pacto –no en total libertad, dado el contexto histórico– entre diferentes sensibilidades. No obstante, no es posible soslayar que el Estatuto de Autonomía de la CAPV, aprobado mediante ley orgánica en 1979, no se ha desarrollado plenamente, y su incumplimiento es debido a que los diferentes gobiernos de España han bloqueado el proceso de transferencias durante estos 39 años, a la utilización expansiva de la legislación básica y a la doctrina erosionadora del Tribunal Constitucional. El cumplimiento del Estatuto es un derecho y un mandato del conjunto de la ciudadanía de la CAPV, cuyo cumplimiento no debe estar sujeto a otros acuerdos y variables de ninguna índole.

El nuevo estatuto político necesita bases para el reconocimiento del sujeto jurídico-político, una bilateralidad efectiva y el blindaje de nuestro autogobierno.

1.2 Violencia política

A lo largo de los últimos cien años la sociedad vasca ha sufrido al menos cuatro experiencias





gutxienez: gerra zibila, diktadura frankista, ETArek terrorismoa eta legez kontrako kontraterrorismoak.

Desberdinak badira ere, lauren ardatz bera dute: jasandako bidegabeko sufrimendua eta giza eskubideen, bakearen eta askatasunaren babesaren oinarrituriko gizarte eta bizikidetzaren demokratikoa eraikitze eta defenditzeko ahalegina.

Etorkizuneko bizikidetzaren funts izan behar dute, batetik, giza eskubideen babesak; eta, bestetik, indarkeria erabiltzeari zilegitasuna kentzen dion bakearen kultura hedatzeak eta sakontzeak, gertatutakoa ez dela errepikatuko ziurtatzeko.

Euskal gizarteak bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoa hartu du, lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko konpromisoa; eta konpromiso hori munduko beste gizarte eta herri batzuekiko harremanen xedea eta oinarria da.

Balio horiek garrantzi handiko ondare demokratikoak dira eta estatus politiko berri hau argitzen dute, bizikidetzaren arautzeko oinarritzeko araua eta euskal herritarren eta botere publikoen eskubide eta betebeharren katalogoa den heinean.

2.- Erkidego politikoa. Nazio-nortasuna aintzatestea

Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako – Euskal Herriaren parte gisa harturik– estatus politiko berria gizarte- eta kultura-nortasun iraunkorra, berezko ezaugarri politikoak eta bere hizkuntza –euskara– eta kultura dituen

traumáticas marcadas por la violencia: la Guerra Civil, la dictadura franquista, el terrorismo de ETA y los contraterrorismos ilícitos.

Siendo diferentes, los cuatro guardan un nexo común: el sufrimiento injustamente padecido y el esfuerzo por construir y defender, aun en las peores circunstancias, una convivencia democrática y una sociedad basada en la defensa de los derechos humanos, la paz y la libertad.

La convivencia del futuro debe estar basada en una radical defensa de los derechos humanos y en la extensión y profundización de una cultura de paz que deslegitime el uso de la violencia como mejor garantía de no repetición.


La sociedad vasca tiene un compromiso en favor de la paz y de los derechos humanos como objetivo y base de relación con otras sociedades y pueblos del mundo. Compromiso con la cooperación y con la solidaridad internacional.

Estos valores son un patrimonio democrático de gran alcance que inspira el presente estatus político en tanto que norma básica reguladora de la convivencia y catálogo de derechos y deberes de la ciudadanía vasca y sus poderes públicos.

2.- Comunidad política. Reconocimiento de su identidad nacional

El nuevo estatus político para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa –como parte integrante de Euskal Herria– será la expresión jurídico-política de la voluntad democrática de un pueblo con identidad socio-cultural





herri baten borondate demokratikoaren adierazpen juridiko politikoa izango da. Herritar gehienek, gainera, erkidego politiko bereko, nazio bereko, partaide direlako zentzua dute eta, orain, tradizioaren eta beren burua gobernatzeko eskubidearen gordailuzain den naziotasunaren adierazpen gisa, berritzeko bokazioa berretsi eta bizitza publikoko arlo guztietara zabaldu dute, euskal gizartearen eskakizun eta premietara egokitze, egungo errealitate globalizatu eta interdependentean.

Euskal herria nazioa da herritarren gehiengoak hala aintzatesten eta identifikatzen duelako eta, gainera, zuzenbide konparatuan ezarritako parametro guztiak betetzen dituelako.

Euskal Herria Europako herrien multzoan berezko nortasuna duen herri bat da, historian iraun duen berezko ondare linguistiko, kultural eta juridiko-instituzional baten gordailuzaina. Geografiari dagokionez, zazpi lurralde hartzen ditu, zeinak Europako bi estaturen barruan eta hiru erakunde-esparru bereizitan politikoki antolatuak dauden. Estatuak Espainiakoa eta Frantziakoa dira, eta erakunde-esparruak Euskal Autonomia Erkidegoa, zeinak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeak hartzen dituen; Nafarroako Foru Erkidegoa, alegia Nafarroa; eta Iparraldeko Mankomunitateak kudeatzen duen lurraldea, zeinak Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea barne hartzen dituen.

Testu artikulatu berriak Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Frantziako estatuan dauden euskal lurraldeekin harremanak ezartzeko aukera jasoko du, hizkuntza, kultura eta interes sozial eta ekonomiko berak baitituzte, besteak beste. Hori, betiere, haien erakunde borondatea errespetatuz eta lurralde eta estatu horiek

sostenida a lo largo de la historia, con rasgos políticos propios, su lengua –el euskera– y su cultura propias, y un sentido altamente compartido de pertenencia a una misma comunidad política, a una misma nación, y que, como expresión de su nacionalidad, depositaria de una tradición y un derecho a gobernarse por sí misma, ahora reitera su vocación de renovarse, proyectándose en todos los ámbitos de la vida pública para adecuarse a los requerimientos y necesidades de la sociedad vasca en una realidad globalizada e interdependiente.

El pueblo vasco es nación porque así lo reconoce e identifica una mayoría de su ciudadanía, y porque, además, cumple con todos los parámetros establecidos en el derecho comparado.

Euskal Herria es un pueblo con identidad propia, en el conjunto de los pueblos de Europa, depositario de un patrimonio lingüístico, cultural y jurídico-institucional propio, que ha pervivido a lo largo de la historia, que está asentado geográficamente sobre siete territorios que en la actualidad se encuentran políticamente articulados en dos Estados europeos (el español y el francés) y tres ámbitos institucionales diferenciados: la Comunidad Autónoma vasca, que comprende los territorios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa; la Comunidad Foral de Navarra, que integra a Nafarroa, y el territorio gestionado por la Mancomunidad de Iparralde, conformado por Lapurdi, Zuberoa y Baxe Nafarroa.

El nuevo texto articulado contemplará la posibilidad de establecer relaciones con la Comunidad Foral de Navarra y con los territorios vascos radicados en el Estado francés, con quienes comparte idioma, cultura e intereses sociales y económicos, etc., siempre desde el máximo respeto a la voluntad de sus instituciones respectivas y





eta Europar Batasunak gai horren gainean dituzten arauak aintzat hartuz.

3.- Estatus politiko berria. Itun soziala berritzea. Euskal herritarren eskubide eta betebeharrak gehitzea

Euskal gizarteak mundu globalizatuaren oraingo eta geroko erronkei aurre egin eta erantzun egokia eman beharko die, barne-kohesioa ziurtatzeko. Euskal gizartea itun soziala eta autogobernua berrantolatzeko eta, era horretan, aurrerapauso sozial eta demokratikoak emateko moduan dago, kondizio material eta sinboliko egokiak baititu; horretarako, betiere, bigarren eta hirugarren belaunaldien gizarte-eskubideak aintzatetsi behar ditu.

Horregatik, testuingurua zalantzarik den arren, helburua da aukerak eta oparotasuna sortzen jarraitzea, modu iraunkorrean, oraingo eta geroko belaunaldientzat, pertsonen arteko lankidetzara eta ingurumenaren errespetu oinarritzat hartuta.

Euskal gizarteak bere egin du printzipio hau: oparotasuna iraunkorra eta onargarria izan dadin, ezinbestekoa da aukera-berdintasuna eta justizia soziala ziurtatzea eta, horretarako, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak formalki aintzatestea.

Hobeto bizitzeko eta bizikidetzara hobetzeko akordio politiko berri bat proposatu dugu, euskal gizarte moderno, askotariko, berdinzale eta kohesionatua eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izateko. Gizarte horrek etorkizunaren ardurara eta oinarritzeko eskubide eta betebeharren gaineko konpromisoa hartuko du, eta emakumeak eta gizonak baldintza beretan biziko dira eta hartuko dituzte erabakiak. Hori guztia XXI. mendeko munduan eta

atendiendo a la normativa sobre la materia de los distintos territorios y Estados, así como de la Unión Europea.

3.- Nuevo estatus político. Renovación del pacto social. Ampliación de los derechos y deberes de la ciudadanía vasca

La sociedad vasca se enfrenta a retos presentes y futuros en un mundo globalizado a los que necesita dar respuesta para asegurar su cohesión interna. La sociedad vasca, desde el reconocimiento de los derechos sociales de segunda y tercera generación, está en condiciones materiales y simbólicas de refundar su pacto social y su autogobierno, en un sentido de avance social y democrático.

Por ello, pese a la incertidumbre del contexto, se pone como meta seguir creando oportunidades y prosperidad de forma sostenible en el presente y para futuras generaciones, mediante la cooperación entre las personas y el respeto al medio ambiente.

La sociedad vasca asume como principio que no hay prosperidad sostenible ni aceptable si no es sobre la base de la igualdad de oportunidades y la justicia social, y que estos deben objetivarse en el reconocimiento formal de los derechos sociales, económicos y culturales.

Planteamos un nuevo acuerdo político para vivir y convivir mejor, que nos permita avanzar en la construcción de una sociedad vasca moderna, plural, igualitaria, cohesionada, formada por mujeres y hombres libres que viven, conviven y deciden en igualdad, responsable de su futuro, comprometida con los derechos y deberes fundamentales, que nos posibilite desarrollarnos en el mundo y en la Europa del siglo XXI.





Europar egoki moldatzeko.

4.- Estatus politiko berria emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkor eta benetakoaren aldeko itun gisa

Berdintasuna gizarte demokratiko guztiek bete eta sustatu behar duten giza eskubide bat da. Berdintasunak ahalbidetzen du emakumeek eta gizonen, genero-estereotipoek ezartzen dituzten mugak alde batera utzita, dauzkaten gaitasun guztiak lantzea eta erabakiak hartzea. Berdintasunak begirune, aintzatespen, ongizate eta demokrazia gehiago ekartzen ditu.

Euskal gizarteak badaki emakumeek eta gizonen ez dituztela aukera berdinak eta alde horiek estrukturalak direla; eta askatasun eta eskubideak ezin dituztela berdin erabili, arrazoi kultural, historiko, tradizional, ekonomiko eta sozialengatik. Genero-desparekotasuna da gizarte-erronka nagusietako bat, eta emakumeen aurkako indarkeria desparekotasun horren adierazpen nabarmen eta itzelena. Kalte hori amaitzeko ahal dena egin behar dugu.

Euskal gizarteak bere gain hartu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, alegia garapen iraunkorraren funtsezko oinarria, bizitzako alderdi guztietan benetakoa eta eraginkorra eta gizarte aurreratuagoa eta bidezkoagoa izatea lortzeko konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak errotik kentzeko.

5.- Legezkeriaren printzipioa. Printzipio demokratikoa. Erabakitzeko eskubidea

Egun, estatus politiko berria antolatzea euskal herriak eskubide historikoak eguneratzeari buruzko

4.- Nuevo estatus político como pacto por la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres


La igualdad es un derecho humano que cualquier sociedad denominada democrática debe respetar e impulsar. La igualdad permite que tanto mujeres como hombres puedan desarrollar todas sus capacidades y tomar sus decisiones sin limitaciones impuestas por estereotipos de género. Conlleva más respeto, más conocimiento, más bienestar y más democracia.

La sociedad vasca no es ajena y es consciente de la existencia de diferencias estructurales entre mujeres y hombres en el acceso a oportunidades o en el ejercicio de derechos o libertades por razones culturales, históricas, tradicionales, económicas y sociales. La desigualdad de género representa uno de los principales retos sociales, constituyendo la violencia contra las mujeres su máxima y más brutal expresión. Debemos volcar todos los esfuerzos posibles en poner fin a esta vulneración.

La sociedad vasca asume el compromiso de hacer real y efectiva la igualdad entre mujeres y hombres en todos los órdenes de la vida, como pilar fundamental del desarrollo sostenible, y conseguir una sociedad más avanzada y más justa que logre erradicar toda forma de violencia contra las mujeres.

5.- Principio de legalidad. Principio democrático. Derecho a decidir

Hoy en día, la elaboración de un nuevo estatus político obedece a una nueva voluntad del pueblo vasco de desarrollar la





Konstituzioko eta Estatutuko aurreikuspena garatzeko duen gogo berriari zor zaio; nahi hori duela berrogei urte mamitu zen azkena, Gernikako Estatutuaren bitartez.

Euskal herriak bere eskubide historikoak eguneratzeko premia du, estatuarekiko harremanari ikuspegi berri bat emanaz erkidego bereizi gisa dituen errokei aurre egin ahal izateko gaitasun berriak lantzeko. Izan ere, errealitatea globalizatu, lehiatsua eta interdependentea da eta, ondorioz, ezinbestekoak dira barne-kohesioa, bereizte lehiatsua eta lankidetzak.

Egun, mundua konplexua eta interdependentea da eta, horregatik, erabakiak elkarrekin hartzen dira beti. Eta erabakiak elkarrekin hartzeko nahitaezkoa da elkar aintzatezea eta erantzukizunak eta betebeharrak nork bere gain hartzea. Hori dela eta, askotariko gizarteek, nahiz estatuko nahiz estatuz azpiko erkidegoak izan, barne-aniztasuna erabakiak elkarrekin hartzeko mekanismoen bitartez antolatzen dute, itunduz bakarrik alda daitezkeen loturak adostuz.

Akordio honen euskarria euskal herritarrek nola zuzenean (askotariko galdeketa- edota erreferendum-modalitateen bidez) hala beren legezko ordezkarien bitartez (Legebiltzarraren akordioa) libre eta demokratikoki adierazitako borondatea izango da.

Estatus politiko berriaren proposamena egiteko oinarria eta bitartekoa euskal herriaren borondatea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako herritarrek libre erabakita adierazia) eta bere historiari jarraikiz (Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarraren arabera)


previsión constitucional y estatutaria relativa a la actualización de los derechos históricos, que tuvo la expresión más cercana en la historia hace ahora cuarenta años a través del Estatuto de Gernika.

El pueblo vasco siente ahora la necesidad de profundizar en la actualización de sus derechos históricos, para que, con un nuevo enfoque de su relación con el Estado, posibilite nuevas capacidades para afrontar los retos que como comunidad diferenciada le interpelan desde una ya instalada realidad globalizada, competitiva e interdependiente, que reclama a partes iguales cohesión interna, diferenciación competitiva y cooperación.

Decidir, en un mundo complejo e interdependiente como el contemporáneo, es, siempre, codecidir. Y toda codecisión comporta reconocimiento, responsabilidades y exigencias recíprocas para quienes la comparten. De ahí que las sociedades plurales, sean comunidades estatales o subestatales, articulen su pluralismo interno mediante mecanismos de codecisión, estableciendo vínculos acordados que solo se pueden modificar de manera pactada.

Este acuerdo se sustentará en la voluntad libre y democráticamente expresada por la ciudadanía vasca, tanto directamente (en distintas modalidades de consulta y/o referéndum) como a través de sus legítimos representantes (acuerdo en el Parlamento).

La voluntad del pueblo vasco (manifestada mediante la libre decisión de las ciudadanas y ciudadanos de los territorios históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa) y los derechos históricos que como tal le hubieran podido corresponder en virtud de su historia (según reza la disposición adicional 1ª CE y la adicional única del Estatuto de Gernika) serán el





dagozkion eskubide historikoak izango dira, hurrez hurren.

Euskal autogobernua eguneratzeko, legezkotasunaren printzipioa bete behar da. Hala eta guztiz ere, legeak betetzeak ez du printzipio demokratikoa urratzea eragin behar. Printzipio horren arabera, euskal herritarren erabakiak balio garrantzitsua du, lehen mailako balioa.

Asmoa da, beraz, euskal herritarrek beren borondatea zein den erabakitze eta adierazteko eta borondate hori erabiltzeko duten eskubidea eta gaitasuna aintzatestea, beren borondatez adosturiko bizikidetz-formulak zehazteko eta hartutako konpromisoak errespetatu daitezzen ziurtatzeko mekanismoak ezartzeko.

Estatutu hau euskal herritarren erabakitze eskubidearen eta gaitasunaren erabilerean emaitza da. Izan ere, herritarren gehiengoak, une historiko honetan, akordio plural, zabal eta zeharkako bat adostea erabaki du.

6.- Eskubide historikoak

Eskubide historikoen titularra euskal herria da, eta euskal herriaren nortasun nazionala da bere errealitate juridiko instituzional aintzatetsiaren oinarria. Testu artikulatuak aurrera egin beharko du 1978ko Konstituzioak babesten eta errespetatzen dituen euskal eskubide historikoak eguneratzen. Hau da, Gernikako Estatutuaren eta estatuko legeria arruntaren bitartez egindako eguneratzea finkatu eta behar adina arlo eta gaitara zabaldu behar du, herritarren ongizatea ziurtatzeko. Alde horretatik, eskubide horien interpretazioa maila berrietara hedatu behar du, gure autogobernua handitu eta blindatu dezagun, eta eskubide horiek Euskal Herriaren euskarri konstituzional izan daitezzen, estatuarekiko harreman-eredu berri bat sortzeko, aldebikoa, konfederala

fundamento y el vehículo, respectivamente, para la elaboración de una nueva propuesta de estatus político.

La actualización del autogobierno vasco debe atender al principio de legalidad. No obstante, el respeto a la legalidad no debe provocar la vulneración del principio democrático. Un principio que exige dotar de un valor relevante y primario a la decisión de la ciudadanía vasca.

Se trata, por tanto, de reconocer el derecho y la capacidad de los vascos y vascas para decidir, expresar y ejercer su voluntad colectiva de cara a la consecución de fórmulas de convivencia acordadas voluntariamente y de establecer mecanismos que garanticen que los compromisos alcanzados serán respetados.

Este Estatuto es un ejercicio del derecho y capacidad de decisión de la ciudadanía vasca, que de forma mayoritaria y en este momento histórico decide alcanzar un acuerdo plural, amplio y transversal.

6.- Derechos históricos

El titular de los derechos históricos es el pueblo vasco, cuya identidad nacional fundamenta su reconocida realidad jurídico-institucional. El texto articulado deberá avanzar en la actualización de esos derechos históricos vascos que la Constitución de 1978 ampara y respeta, consolidando la actualización ya operada por el Estatuto de Gernika y la legislación ordinaria del Estado, y proyectándola hacia todos los ámbitos y materias necesarias para garantizar el bienestar de la ciudadanía, extendiendo su interpretación a nuevos niveles que posibiliten la profundización y el blindaje de nuestro autogobierno y sirvan de percha constitucional al pueblo vasco o Euskal Herria para configurar un nuevo modelo de relación con el Estado, bilateral, de respeto





eta elkarrenganako errespetuan eta aintzatespenean oinarritua.

7.- Subjeto juridiko-politiko

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldea, euskal herriaren parte gisa, eskubide historikoak lantzeko eta eguneratzeko eta herritarren erabaki libre eta demokratikoa oinarritzat hartuta, honela antolatzen eta eratzen da:

Subjektu juridiko, politiko eta instituzionala: Proposamenak

- Euskal estatu-erkidegoa.
- Erkidego nazionala.
- Euskadi, honela:
- Euskal foru-erkidegoa (proposamenaren oinarri diren eskubide historikoei eta foraltasunari eutsita).
- Euskal nazio-erkidegoa (euskal herriaren nortasun nazionala azpimarratzen du).
- Euskal estatu autonomia (definizio hori 1931ko Estatutuaren proiektuan erabili zen eta alderdi batzuek proposatu dituzten eredu federal eta konfederalen berezko estatu kontzeptuari lotzen zaio).
- Euskal foru-estatua (estatu kontzeptua eta orain eguneratu nahi den foru-berezitasun historikoa batzen ditu).

8.- Espainiako estatuarekiko lotura

Estatuarekiko harreman-eredu berri bat eratuko da, aldebikoa, berdinetik berdinerakoa, konfederala eta elkarrenganako errespetuan eta aintzatespenean oinarritua.

y reconocimiento mutuo, de naturaleza confederal.

7.- Sujeto jurídico-político

Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, como parte integrante del pueblo vasco, en desarrollo y actualización de los derechos históricos y fundamentándose en la libre y democrática decisión de las ciudadanas y ciudadanos, se articula y constituye en:

Sujeto jurídico-político institucional: Propuestas

- Comunidad estatal vasca
- Comunidad de carácter nacional
- Euskadi como:
- Comunidad foral vasca (remite a los derechos históricos y a la foralidad que inspiran la propuesta)
- Comunidad nacional vasca (pone en relieve la identidad nacional del pueblo vasco)
- Estado autónomo vasco (definición utilizada en el proyecto de Estatuto de 1931, nos remite el concepto estatal propio de modelos federales o confederales que han sido propuestos por distintos partidos)
- Estado foral vasco (aúna el concepto estatal con nuestra singularidad foral histórica que ahora quiere actualizarse).

8.- Vínculo con el Estado español

Se configurará un nuevo modelo de relación con el Estado, bilateral, de igual a igual, de respeto y reconocimiento mutuo, de naturaleza confederal.





Espainiako estatuarekiko harremanaren esparru politiko berria Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarraren babesean egituratuko da. Harreman-eredu politiko berezi eta aldebiko berri bat ezarriko da eta bi alderdiek subjektu politiko direla aintzatetsiko diote elkarri.

Harreman horren oinarriak elkarrenganako errespetua eta mendetasunik eza izango dira eta, horretarako, benetako aldebiko harreman-sistema bat eratuko da, zeinak euskal autogobernua blindatzeko araubide eraginkor bat izango duen.

II. OINARRIA – ATARIKO TITULUA

Atariko Tituluaren oinarrizko printzipioak

Atariko tituluaren eta prozesu honen amaierako estatus politiko berriaren giltzak printzipio demokratikoa, aniztasunaren printzipioa eta legezketasunaren printzipioa izango dira. Bizikidetzaren demokratikoaren ardatzak herriaren borondatea –erabaki politikoen muga bakarra– eta sentzibilitate eta ideia politiko guztien errespetua eta babesa izango dira. Legezketasunaren printzipioa ez da printzipio demokratikoa hedatzeko oztopo izango; aitzitik, euskal herritarrek beren borondatea txukun adierazteko bide egokia eta proiektu politiko guztiak, baldin eta herritar gehienek babesa badute, berdintasunez gauzatzeko esparrua izango da.

Subjektu juridiko-politikoa. Erabakitze eskubidea

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetako herritarrek, Euskal Herriaren

El nuevo marco político de relación con el Estado español se estructurará al amparo de la disposición adicional 1ª CE y la adicional única del Estatuto de Gernika, estableciendo un nuevo modelo relacional singular y bilateral que estará fundamentado en el reconocimiento de ambas partes como sujetos políticos.

La relación será de respeto mutuo y de no subordinación, y a tal efecto se anudará un sistema de relación bilateral efectiva e incorporará un régimen eficaz de garantías que blindará el autogobierno vasco.

BASE II – TÍTULO PRELIMINAR

Principios generales del Título Preliminar

El principio democrático, el principio de pluralidad y el principio de legalidad articularán no solo el título preliminar sino el nuevo estatus político resultante de este proceso. La voluntad popular como único límite de las decisiones políticas y el respeto y protección de todas las sensibilidades e ideas políticas serán los ejes de la convivencia democrática. El principio de legalidad no será límite para el despliegue del principio democrático, sino el cauce adecuado para la expresión ordenada de la voluntad de la ciudadanía vasca y el marco para que todos los proyectos políticos puedan ser materializados en términos de igualdad siempre que conciten el respaldo mayoritario de la ciudadanía.

Sujeto jurídico-político. Derecho a decidir

Los ciudadanos y ciudadanas de los territorios vascos de Araba, Bizkaia y





parte gisa, zeinari nazio-izaera aitortzen baitzaio antolaketarako eta harreman politikoetarako zer esparru nahi duten libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea erabiliz, ...-ko subjektu juridiko-politikoa eratzen dute.

Estatus politiko –oinarrizko erakunde-arau– berrian jasotako euskal autogobernuaren eguneratzearen oinarria eta ardatza eskubide historikoen garapena eta eguneratzea izango dira eta, alde horretatik, Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarriaren garapena eta eguneratzea.

Oinarri eta printzipio horien arabera egingo den testu artikulatua euskal herritarrek zer egitura politiko eta bizikidetzaraubide nahi dituzten erabakitzeko eskubide demokratikoaren erabilera itunduaren formulazio juridiko positiboa izango da. Horretarako, herritarren gehiengoaren borondateari balio arauemaile adierazgarria eman beharko zaio.

Estatus berrian, euskal erakundeek herri-galdeketa eta erreferendumak arautzeko eta kudeatzeko ahalmena izango dute. Galdeketa eta erreferendum horiek izango dira hala euskal erakundeen eskumen-eremuko gai politiko eta sozialei buruzkoak nola Euskal Herriko beste lurralde batzuekin, Espainiako estatuarekin eta Europako eta nazioarteko beste eremu politiko batzuekin izan nahi dituzten harremanei buruzkoak.

... subjektu juridiko politikoak, zeina Araba, Bizkai eta Gipuzkoako euskal lurraldeek osatuko baitute, alde biko harreman berezi konfederala izango du Espainiako estatuarekin, Konstituzioaren esparruan. Harreman horren oinarriak elkarrenganako errespetua eta mendetasunik eza izango dira eta,


Gipuzkoa, como parte integrante de Euskal Herria, a la que se reconoce su identidad nacional, constituyen, en el ejercicio del derecho a decidir libre y democráticamente su propio marco de organización y relaciones políticas, el sujeto jurídico político constituyente de...

La actualización del autogobierno vasco contenida en el nuevo estatuto político –norma institucional básica– se apoyará y estructurará en el desarrollo y actualización de los derechos históricos y, en tal sentido, en el desarrollo del potencial de la disposición adicional 1.ª CE y la disposición adicional del Estatuto de Gernika.

El texto articulado que se elabore sobre estas bases y principios será la formulación jurídico-positiva de un ejercicio pactado del derecho democrático de la ciudadanía vasca a decidir su estructura política y su régimen de convivencia, para lo cual habrá de dotarse a la voluntad mayoritaria de la ciudadanía de un valor normativo relevante.

En el nuevo estatuto, las instituciones vascas tendrán la potestad para regular y gestionar la realización de consultas populares y referéndums, en lo que corresponde tanto a asuntos políticos y sociales de su ámbito competencial como a las relaciones que desean tener con otros territorios de Euskal Herria, con el Estado español y otros espacios políticos europeos e internacionales.

El sujeto jurídico político..., integrado por los territorios vascos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, estará vinculado al Estado español por una relación singular y bilateral de naturaleza confederal, en el marco constitucional. La relación será de respeto mutuo y de no subordinación, anudándose a tal efecto un sistema de relación bilateral





historikoetan sartzeko eskubidea izango dute, bertako herritarren gehiengoak libre eta demokratikoki hala adierazten badu.

SJPko egitura instituzionala tokiko erakundeek, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako erakundeek eta erakunde komunek osatzen dute.

Hiriburu politiko eta instituzionala: Gasteiz

Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza Gasteiz izango da.

Ikurrak

SJPren nortasuna adierazten duten ikurrak (ikurrina, ezkutua, ereserkia, SJPren eguna) atariko tituluko artikuluetan arautuko dira.

Ikurren adierazpenak, erabilera eta lehentasun- eta protokolo-ordena Eusko Legebiltzarrak lege bitartez arautuko ditu.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako berezko bandera eta entseinak ere aintzatetsiko dira.

Euskara: Berezko hizkuntza eta hizkuntza ofizialak

Euskara SJPko berezko hizkuntza da, nazio-nortasunaren elementua, harremanetarako baliabidea, bizikidetzaren sozialerako faktorea eta Euskal Herri osoaren ondarea.

Euskara hizkuntza ofiziala izango da SJPko lurralde osoan. Gaztelania ere hizkuntza ofiziala izango da. Eta herritar guztiek bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea izango dute.

Euskal herritarrei aukeratzen duten hizkuntzan benetan eta berdintasunez

los territorios históricos de Araba y Bizkaia si así lo manifiesta libre y democráticamente la mayoría de su respectiva ciudadanía.

Las instituciones locales y las de los territorios históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa configuran, junto con las instituciones de carácter común, la articulación institucional del SJP...

Capital política e institucional: Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteiz será la sede del Parlamento Vasco y el Gobierno Vasco.

Símbolos

El articulado del título preliminar regulará los símbolos propios del SJP... representativos de su identidad (bandera, escudo, himno, día del SJP...).

La regulación de las distintas expresiones de los símbolos, así como su uso y su orden de prelación y protocolario, se hará mediante ley del Parlamento Vasco.


Se reconocerán también las banderas y enseñas propias de los territorios históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

Euskara: Lengua propia y lenguas oficiales

El euskara es la lengua propia del SJP..., elemento de identidad nacional, medio de comunicación, factor de convivencia social y patrimonio del conjunto de Euskal Herria.

El euskara será lengua oficial en todo el territorio del SJP... El castellano será también lengua oficial, y toda la ciudadanía tendrá el derecho a conocer y usar ambas lenguas.

Se reconocerá a la ciudadanía vasca la posibilidad de hacer uso de su opción





aritzeko aukera aintzatetsiko zaie. Euskal erakundeek egungo desoreka gainditu ahal izateko hizkuntza-politika sustatuko dute.

Nafarroako Foru Erkidegoarekiko eta Iparraldeko Mankomunitatearekiko harremanak. Lurralde horietako herritarren eta erakundeen borondatea errespetatzea

Euskal lurraldeek hizkuntza –euskara–, kultura-ondare eta historia bera dituztenez eta Europar Batasunean daudenez, askotariko harreman-aukerak dituzte arlo hauetan: garapen politikoa, ongizate sozial, ekonomiko eta kulturala, eta abar.

Autogobernuaren eguneratzeak eskubidea aintzatetsi behar du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Iparraldeko euskal lurraldeekin (egun, Iparraldeko Euskal Mankomunitatea) eta bertako erakundeekin lotura politikoak eta elkarlanerako eta lankidetzarako harremanak edukitzeko, ongizate sozial eta ekonomikoa eta gure kultura- eta hizkuntza-ondare komuna lantzeko egitura edo organo instituzional iraunkor eta komunak sortzeko aukera barne. Horren harira, funtsezkoa da lurralde-eremu bakoitzeko ordezkaritza-erakundeen erabakiak erabat errespetatzea, unean-unean indarrean dauden legezko prozeduren esparruan eta lurraldetasun irekiaren printzipioa eta politika bateratuko proiektu bat ezartzeko helburuarekin. Alde horretatik, aipaturiko proiektuak kidetasun kultural, sozioekonomiko eta ondare historiko komunekoak, antzeko jarduerak eta baliabide fisiko partekatuak bildu behar ditu.

Herritasuna eta naziotasuna

Euskal herritartasuna: estatus politiko berriak euskal herritarrak SJPko udalerri

lingüística de manera real, efectiva e igualitaria. Las instituciones vascas impulsarán una política lingüística que permita superar el actual desequilibrio.

Relaciones con la Comunidad Foral Navarra y con la Mancomunidad de Iparralde. Desde el respeto a la voluntad de la ciudadanía y de las instituciones de estos territorios

Compartiendo todos los territorios vascos la misma lengua –el euskara–, un patrimonio cultural común y una historia, y formando parte todos ellos de la Unión Europea, se abren posibilidades de relación en orden al desarrollo político y el bienestar social, económico, cultural, etc.

La actualización del autogobierno debe reconocer el derecho a establecer vínculos políticos y relaciones de colaboración y cooperación con la Comunidad Foral de Navarra y con los territorios vascos de Iparralde y sus instituciones (actualmente, Mancomunidad Vasca de Iparralde), incluida la posibilidad de establecer estructuras u órganos institucionales permanentes y comunes, para el desarrollo del bienestar social y económico y de nuestro patrimonio común cultural y lingüístico, desde el respeto total y absoluto a las decisiones de las instituciones representativas de cada ámbito territorial respectivo, en el marco de los procedimientos legales vigentes en cada momento, y con el objeto de lograr la plasmación de un principio de territorialidad abierta junto con un proyecto de política común que aglutine las afinidades culturales, de patrimonio histórico común, socio-económicas, actividades comparables y recursos físicos compartidos.

Ciudadanía y nacionalidad

Ciudadanía vasca: El nuevo estatus político anudará la ciudadanía vasca con la





bateko administrazio-egoitzarekin lotuko ditu.

Aginduko da euskal herritar guztiek, inola diskriminatu gabe, estatus politiko berriak eta indarreko ordenamendu juridikoak aintzatesten dizkieten eskubide eta betebeharrak izango dituztela.

Euskal herritartasuna aintzatesteak eta administrazio-egoitza pertsonak erkidego politikoan sartzeko irizpide gisa erabiltzeak zerbitzu publikoak eskuratzeko aukera emango die (SJP lurraldea)-n bizi direnei, edozein dela ere haien jatorria edo nazionalitatea.

Euskal nazionalitatea: Espainiako estatuaren izaera plurinazionala eta estatus politiko berrian jasotako estatuarekiko harremanen eredu berriaren ezaugarriak kontuan harturik, euskal herritarrei euskal nazionalitatea aintzatetsiko zaie Eusko Legebiltzarrak onarturiko lege batean arauturikoaren arabera.

Diaspora

Estatus berrian euskal diaspora aintzatetsiko da eta SJPKo erakundeekin harreman iraunkorrek izateko mekanismoak antolatuko dira.

Testu artikulatuak kanpoko euskal zentroak eta zentro horiek egiten duten lana aintzatetsiko dituzte. Izan ere, oinarrizko tresnak dira ... SJPK kanpoko euskal kolektibitateetako kideekin dituen loturak zaintzeko eta dauden herrialdeetan harreman komertzial, kultural, politiko eta instituzionalak sustatzeko eta garatzeko.

Halaber, euskal diaspora eta SJPKo erakundeak elkarlanean eta lankidetzan

vecindad administrativa en alguno de los municipios del SJP...

Se establecerá que todas las ciudadanas y ciudadanos vascos, sin ningún tipo de discriminación, dispondrán de los derechos y deberes que les reconozcan el nuevo estatus político y el ordenamiento jurídico vigente.

El reconocimiento de la ciudadanía vasca y la utilización de la vecindad administrativa como criterio de inserción de las personas en la comunidad política posibilita el acceso a los servicios públicos a las personas que vivan en (territorio SJP...), con independencia de cuál sea su procedencia o nacionalidad.

Nacionalidad vasca: Habida cuenta del carácter plurinacional del Estado español y las características del nuevo modelo de relación con el Estado contenidas en el nuevo estatus político, se reconocerá la nacionalidad vasca a la ciudadanía vasca en los términos regulados por una ley aprobada por el Parlamento Vasco.

Diáspora

La Diáspora vasca tendrá su reconocimiento en el nuevo estatus y se articularán mecanismos de relación estable con las instituciones del SJP...

El texto articulado reconocerá a los centros vascos en el exterior, y la labor por éstos desempeñada, como instrumento básico en orden a la preservación de los vínculos del SJP... con los miembros de las colectividades vascas en el exterior para el fomento y desarrollo de las relaciones comerciales, culturales, políticas e institucionales en los países en los que se sitúan.

Asimismo, se establecerán mecanismos de colaboración, cooperación





aritzeko eta elkarrekin parte hartzeko mekanismoak ezarriko dira.

Bizikidetzaren printzipioak: Aniztasuna, dibertsitatea eta Giza Eskubideak

Hauek izango dira euskal autogobernua arautuko duten eta euskal agintari publiko eta erakundeek sustatu beharko dituzten balio eta printzipioak: askatasuna, berdintasuna, demokrazia, aniztasuna, dibertsitatea, bakea, justizia, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta garapen jasangarria.

Euskal herritarrak izango dira estatus politiko berrian bizikidetzaren demokratikoaren oinarri gisa ezarriko diren oinarriko eskubide eta betebeharren titularrak. Eskubide eta betebeharrak bat datoz EBko itunetan (EBko Oinarriko Eskubideen Gutuna) zehazturiko oinarriko eskubide eta betebeharrarekin –europar herritartasuna dugulako–, nazioartean aintzatetsitako eskubide indibidual eta kolektiboekin eta, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunetan eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunetan jasotakoekin. Euskal erakundeentzat lehentasuna izango du giza eskubideak eta askatasun publikoak defenditzeak eta babesteak.

... SJPko botere publikoen arduraren izango da euskal herritarrek estatus berriak aintzatesten dituen oinarriko askatasun eta eskubide guztiak erabil ditzaten eta euskal herritarren askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezten sustatzea, eta bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten erraztuko dute.

Itun Sozialaren printzipioak: Justizia, Oparotasuna eta Jasangarritasuna

y participación entre/de la Diáspora vasca y las instituciones del SJP...

Principios del Pacto de Convivencia: Pluralismo, diversidad y Derechos Humanos


Los valores o principios que regirán el autogobierno vasco y que deberán promover los poderes públicos e instituciones vascas serán: la libertad, la igualdad, la democracia, la pluralidad, la diversidad, la paz, la justicia, la solidaridad, la cohesión social y el desarrollo sostenible.

La ciudadanía vasca será titular de los derechos y deberes fundamentales que se establezcan en el nuevo estatus político y que se corresponden con los derechos y obligaciones fundamentales establecidos en los tratados de la UE (Carta de los Derechos Fundamentales de la UE) –en virtud de nuestra ciudadanía europea–, así como los derechos individuales y colectivos reconocidos internacionalmente, y, entre otros, los recogidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos, los Pactos Internacionales de Derechos Civiles y Políticos, y de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, como base de la convivencia democrática. La defensa y protección de los derechos humanos y las libertades públicas tendrá un carácter prioritario para las instituciones vascas.

Corresponderá a los poderes públicos del SJP... promover el pleno ejercicio de las libertades y derechos fundamentales que reconozca el nuevo estatus y las condiciones para que la libertad y la igualdad de la ciudadanía vasca sean reales y efectivas, y facilitarán su participación en la vida política, económica, cultural y social.

Principios del Pacto Social: Justicia, Prosperidad y Sostenibilidad





Euskal gizarteak baditu kondizio material eta sozial objektiboak itun soziala eta autogobernua gizartean eta demokrazian aurrera egiteko moduan berrantolatzeko. Ezinbestekoa da euskal itun sozialaren oinarriak modu ireki eta inklusiboan berrantolatzea.

Estatus berria bideratuko duen oinarriko printzipioetako bat gizarte-eskubideak blindatzea izango da.

Estatus berriak justizia sozialean, oparotasunean eta jasangarritasunean sakonduko du, ... SJPko herritarrek duintasunez bizitzeko baldintza ekonomiko eta sozialak izan ditzan.

Estatus berriak oinarri soziala izan behar du, joera pluralistako bizikidetzaren alde egiteko, eta herritarrek politikan parte hartzeko eta erabakitzekeo duten gaitasunean sakondu behar du. Herritarrei oinarriak jarri behar ditu funtsezko eskubideak ziurtatzeko: besteak beste, hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza duina, aukera-berdintasuna, gizarte-babesa eta partaidetza.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkor eta benetakoaren aldeko Itunaren printzipioak

Emakumeak eta gizonak legez berdinak diren arren, bizi garen gizarteak, egiaz, emakumeak diskriminatu egiten ditu.

Estatus berriak gizonen eta emakumeen arteko desparekotasuna aintzat hartu behar du ardatz gisa, zeharka eta arloka. Ez bakarrik agerian jartzeko, baita euskal gizartearen oinarri berrietan diskriminazioa errotik kentzeko eta emakumeek eta gizonak aukera berdinak izan eta eskubideak benetan erabil ahal izan ditzaten ere.

Existen en la sociedad vasca condiciones materiales y sociales objetivas para refundar su pacto social y su autogobierno en un sentido, también, de avance social y democrático. Es imprescindible refundar las bases del pacto social vasco de manera abierta e inclusiva.

Uno de los principios básicos que guíe el nuevo estatus será el blindaje de los derechos sociales.

El nuevo estatus profundizará en la justicia social, la prosperidad y la sostenibilidad, para que la ciudadanía del SJP... disponga de condiciones económicas y sociales objetivas para una vida digna.

El nuevo estatus debe tener un fundamento social, como compromiso con una convivencia de vocación pluralista, y profundizar en la capacidad de participación y decisión política de la ciudadanía. Tiene que poner las bases para garantizar a la ciudadanía derechos fundamentales como la educación, la salud, el empleo, la vivienda digna, la igualdad de oportunidades, la protección social y la participación.

Principios del Pacto para la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres

Vivimos en una sociedad en la que, a pesar de la igualdad legal de mujeres y hombres, sigue persistiendo una realidad de profunda discriminación.

El nuevo estatus debe incorporar la realidad de desigualdad entre hombres y mujeres de manera troncal, transversal y sectorial, con una voluntad real no solo de visibilizarla, sino de poner los cimientos de una sociedad vasca de la que desaparezca toda discriminación, en la que mujeres y hombres cuenten con igualdad de oportunidades y acceso real a sus





derechos.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lantzeko araudi eta politika publikoak bultzatzea ... SJPko botere publikoen erantzukizuna izango da.

Corresponderá a los poderes públicos del SJP... la promoción de las normativas y las políticas públicas pertinentes para profundizar en la igualdad real entre mujeres y hombres.

III. OINARRIA – ESKUMENAK. EUSKAL AUTOGOBERNUAREN BOTERE-FUNTSA

BASE III – COMPETENCIAS. FONDO DE PODER DEL AUTOGOBIERNO VASCO

Estatus politiko berrian, eskumenak subjektu politikoaren (1) eta Estatuaren arteko harreman-eredu berriaren arabera mugatuko dira. Harreman-eredu hori aldebikoa, berdinetik berdinerakoa, konfederala eta elkarrenganako errespetuan eta aintzatespenean oinarritua izango da. Bizikidetzeta-estatus berri bat antolatuko da, berezia, munduan eta Europan XXI. mendean biziko ditugun egoera ekonomiko, sozial eta politikoek ekarriko dituzten antolamendu politiko berriei egokituia.

La delimitación competencial que incorporará el nuevo estatus político se adecuará al nuevo modelo de relación bilateral y de igual a igual entre el Sujeto Político (1) y el Estado, de respeto y reconocimiento mutuos, de naturaleza confederal. Se articulará un nuevo estatus de convivencia y relación, singular, adaptado a las nuevas formas de organización política acordes con las circunstancias económicas, sociales y políticas en las que van a desenvolverse el mundo y Europa en el siglo XXI.

Eskumen-esparru berriak barne hartu behar ditu, batetik, dagokion lurraldean erabiliko dituen eskumenak; eta, bestetik, estatuan eta Europar Batasunean eta kanpoko edo nazioarteko jardunean erabakiak hartzeko ahalmen eta gaitasun jakin batzuk.

El nuevo marco competencial ha de englobar tanto las competencias a ejercer dentro de su ámbito territorial como la necesaria disposición de determinadas facultades y capacidades de decisión en el ámbito del Estado, de la Unión Europea y en lo que concierne a la acción exterior o internacional.


Eskumenei dagozkien hartzekoak berritzea

Renovación del haber competencial

Euskal autogobernua eguneratzerakoan, gure eskumen-hartzekoak berritu eta euskal gizartearen egungo eskari eta premietara egokitu behar dira, euskal autogobernua mugatzen duten eskumen-oinarriak birplanteatuz. Ikuspegi berri horrek aukera hauek eskaini behar

La actualización del autogobierno vasco debe incluir una renovación y adecuación a las actuales demandas y necesidades de la sociedad vasca de nuestro haber competencial mediante un replanteamiento de las bases competenciales delimitadoras del





ditu:

- a) Indarrean dagoen Gernikako Estatutuan aintzatetsita dagoen baina titular den subjektu politiko juridikoari oraindik eskualdatu ez zaion botere-espazioa berrestea, berehala eta benetan bere gain har dezan.
- b) Aintzatetsita dagoen baina legeria organikoak, oinarrizko legeriak eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina murriztaileak lazki murriztu duen botere publikoa berreskuratzea eta foru-esparru batean kokatzea, hiru ahultze-eremu horietatik babesteko.
- c) Indarrean dagoen Estatutuan zehaztutako eskumenak gehitzea. Zehazki, eskumenen katalogoan subjektu politikoko herritarren eskubide politiko, ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturalak ziurtatzeko nahitaezkoak diren eskumenak sartzea.

Artikuluak bat etorriko dira euskal herritarren eskubide eta betebeharren katalogoarekin eta euskal autogobernuaren printzipio gidariekin (bizikidetza-ituneko printzipioak, itun sozialeko printzipioak eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko ituneko printzipioak). Gai horietako eskumen-ondarea sendotu beharra dago, euskal erakundeek euskal gizarteak eskatzen dituen politika publikoak lantzeko behar dituzten tresnak izan ditzaten eta, era horretan, herritarrek zerbitzu publiko gehiago eta hobek askura ditzaten eta erakundeen erabakietan gehiago eta hobeto parte hartzeko aukera izan dezaten.

Halaber, 1978. urtearen ondoren sortutako errealitate sozial berriak aintzat

autogobierno vasco que permita:

- a) reafirmar el espacio de poder reconocido en el vigente Estatuto de Gernika pero aún no transferido al sujeto político-jurídico titular, de manera que se haga posible su inmediata asunción efectiva;
- b) recuperar el poder público reconocido y transferido, pero severamente menguado como consecuencia de la legislación orgánica, la legislación básica y la doctrina restrictiva del Tribunal Constitucional, resituándolo en un ámbito foral, de manera que sea inmune a estos tres focos de erosión;
- c) ampliar el *quantum* competencial en relación a todas las competencias previstas en el vigente Estatuto incorporando, al catálogo competencial propio, todas aquellas competencias necesarias para garantizar los derechos políticos, económicos, sociales, lingüísticos y culturales de la ciudadanía del Sujeto Político.

El articulado será coherente con el catálogo de derechos y deberes de la ciudadanía vasca y los principios rectores del autogobierno vasco (principios del pacto de convivencia, principios del pacto social y principio para la igualdad efectiva entre mujeres y hombres) debiendo reforzar el acervo competencial propio en estas materias en orden a que las instituciones vascas cuenten con los instrumentos precisos para poder desarrollar las políticas públicas demandadas por la sociedad vasca y de ese modo la ciudadanía pueda acceder a más y mejores servicios públicos y pueda participar más y mejor en las decisiones de las instituciones.

Comprenderá, asimismo, las nuevas realidades sociales surgidas con





hartuko ditu: immigrazioa, teknologia berriak, biztanleriaren zahartzeak eta biztanleria aktiborik ezak eragindako premiak eta klima-aldaketak, genero-berdintasunak eta herritarrentzako arreta osoko zerbitzuek sortuko dituzten erronkak, besteak beste.

Gauzak horrela, estatus politiko berriak gure herrialdearen autogobernu politikoan atzemandako huts eta mugak gainditzeko balio behar du. Horren harira, batetik, subjektu politikoak (1) arlo material osoetan politika publikoak ezartzeko duen legegintza-ahalmena indartu behar da, Espainiako estatuko beste botere-esparru batzuen aldean asimetrikoki garatzeko aukera aintzatetsiz; eta bestetik, euskal administrazioak euskal lurraldeko ohiko administrazio gisa antolatu behar ditu, eskumenak esleitzeko barne-ereduaren eta Espainiako estatuarekin eskumenak banatzeko adostutako esparruaren arabera, arauak egikaritzeko ardura haiena baino izan ez dadin, arau horiek aditzera emateko eskumena zer instantziak duen kontuan hartu gabe. Gauzak horrela, Espainiako estatuari dagozkion araudi-esparruetan, egikaritzeko eskumena euskal erakundeek izango dute, "egikaritze-estatu" federalen eredian bezala, Alemanian kasurako.

Eskumen-esparru berrituaren oinarri juridiko konstituzionala Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarrian eta Euskal Herriko Autonomia Estatuaren xedapen gehigarri bakarrean aintzatetsitako eskubide historikoak sistematikoki eguneratzea eta zabaltea izango da. Proposatutako estatuarekiko harreman-eredu berria dela eta, printzipio demokratikoa ere eskumen-hartzeko berriaren iturri izango da. Horretarako, funtsean legezketasunaren printzipioa eta printzipio demokratikoa batuko dira. Dena den, testu artikulatua

posterioridad a 1978 tales como la inmigración, las nuevas tecnologías, las necesidades derivadas del envejecimiento poblacional y la falta de población activa, o el reto que supone el cambio climático, la igualdad de género o los servicios de atención integral a la ciudadanía, entre otras.

Así pues, el nuevo Estatus Político ha de servir para superar las deficiencias y los límites advertidos en el autogobierno político de nuestro país. En este sentido, por un lado ha de abordar un reforzamiento de la capacidad legislativa del Sujeto Político (1) para establecer políticas públicas en ámbitos materiales completos, reconociendo su posibilidad de desarrollo asimétrico respecto a otros ámbitos de poder en el Estado español. Y, por otra parte, ha de configurar a las Administraciones Vascas, de acuerdo al modelo interno de atribuciones competenciales y al marco de reparto competencial acordado con el Estado español, como la administración ordinaria del territorio vasco, única(s) responsable(s) de la ejecución de las normas con independencia de qué instancia sea la competente para su promulgación. De ese modo en los ámbitos normativos reservados al Estado español la competencia de ejecución corresponderá a las Instituciones Vascas, al igual que ocurre en los modelos de los Estados federales denominados "de ejecución", como Alemania.

El fundamento jurídico-constitucional del renovado marco competencial de los ítems atributivos de competencia residirá, principalmente, en la actualización sistemática y extensiva de los derechos históricos reconocidos en la Disposición Adicional 1ª CE y Disposición Adicional Única EAPV, y dado el nuevo modelo relacional con el Estado que se propone, también el principio democrático será fuente del nuevo haber competencial. Conjugando fundamentalmente el principio de legalidad y el principio democrático, sin perjuicio de





idatziko duen taldeak, hala badagokio, beste printzipio batzuk ere gehitu ditzake, eskumenen funtsa handitzeko, baldin eta subjektu politikoaren eta Espainiako estatuaren arteko alde biko harreman-eskema berriarekin bat badatoz.

Harreman-esparru berriak subjektu politikoaren aldeko eskumeneko hondar-klausula bat izango du. Horretarako, interpretazio berri bat sustatuko da, nazio anitzeko ikuspegiarekin, eta, era horretan, Espainiako estatuak beretzat berariaz gorde gabeko erabaki publikoko gai eta arloak euskal botere-funtsean egongo dira. Hortaz, mekanismo juridiko egokia bilatu behar da; foru-araubide berezia aintzatestea, adibidez.

Testu artikulatuak, alde biko harremana lantzeko, kontzertu politiko modukoren bat prestatuko du, hau da, eskumen-eremuaren segimendu eta tratamendu politiko eta instituzionalerako tresna edo erakunde bat. Esparru horrek subjektu politikoaren eta Espainiako estatuaren arteko harreman konfederala antolatuko du, eskumen-hartzeko eksklusibo eta berezia antolatzeko eredu bat, zeinak subjektu politikoa estatuaren esku-hartzerik gabe egituratzea eta eraginkor bihurtzea ziurtatuko duen.

Eskumenak zehaztea eta mugatzea

Eskumenen funts berriak arlo hauetako berezko politika publikoak erabat lantzea ahalbidetu behar die euskal erakundeek: bizikidetzak eta demokrazian sakontzea –herri-galdeketa eta erreferendumak arautzeko ahalmena barne–; gizarte-, lan- eta enplegu-politikak, Gizarte Segurantzak barne; kultura-, kirol- eta hezkuntza-politikak; hizkuntza-politikak;


aquello otros que el equipo encargado de la redacción del texto articulado, en su caso, puedan adicionar en orden a fundamentar la pretendida ampliación del fondo competencial y encajen en el nuevo esquema relacional de bilateralidad entre el Sujeto Político y el Estado Español.

El nuevo marco de relación incorporará una cláusula residual de competencia a favor del Sujeto Político. Con este objeto, se promoverá una interpretación que otorgue un nuevo enfoque, en clave plurinacional, de tal suerte que las materias y ámbitos de decisión pública que no hayan sido expresamente reservados al Estado español formarán parte del fondo de poder vasco, y, a tal fin, se ha de buscar el mecanismo jurídico oportuno -como pudiera ser el reconocimiento del régimen singular foral-.

El texto articulado, en desarrollo de la bilateralidad relacional, configurará una suerte de Concierto Político, entendido el Concierto Político como instrumento u organismo de seguimiento y tratamiento político e institucional del espacio competencial. Un marco que habilita una relación de carácter confederal entre el Sujeto Político y el Estado Español y como modelo de incardinación de un haber competencial exclusivo y reservado que garantice la estructura y operatividad del mismo por parte del Sujeto Político sin interferencia del Estado.

Identificación y delimitación de las competencias

El renovado fondo competencial deberá permitir a las instituciones vascas desarrollar políticas públicas propias completas de convivencia y de profundización democrática –incluida la capacidad para regular consultas ciudadanas o referéndums–; políticas socio-laborales y empleo incluida la Seguridad Social, políticas culturales, deportivas y





politika sektorial ekonomiko eta finantzarioak; gizarte- eta osasun-politikak; emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak; garraio, telekomunikazio, ikerketa, teknologia berri, komunikazio, ingurumen, lurralde-antolamendu eta etxebizitzako berezko politikak; eta herritarren segurtasuneko eta babes zibileko politikak. Hori guztia gizarte-premiei erantzutea lehentasuntzat hartuta.

Eskumenen esparrua eta sistema berrantolatzeak eta eguneratzeak eskumen-eremu berriez arduratzea eta eskumenen kontzeptu jakin batzuen irismena zehaztea ekarriko du. Alde horretatik, garrantzi berezia izango du eskumen partekatuak benetan hartzeak eta behar bezala ziurtatzeak, hutsal ez daitezen edo funtsezko edukia gal ez dezaten eta harreman-eredu berrira egokitu daitezen.

SJPren eta Espainiako estatuaren arteko harreman konfederal eta berezia dela eta, estatuari zer gai eta eskumen dagozkion adostu beharra dago; gainerakoak SJPren eskumenekoak izango dira.


Euskal herritarrak euskal estatus politiko berrian, Espainiako Konstituzioan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako oinarrizko eskubideen titularrak izango dira; baita Espainiako estatuak sinatu eta berretsitako giza eskubideen gaineko nazioarteko itunetatik eratorritako eskubideena ere. Alde horretatik, euskal erakundeek aipaturiko ordenamendu juridiko horietan aintzatetsitako oinarrizko eskubideak arautzeko eta lantzeko ahalmen arauemaile eta betearazlea izango dute. Horretarako, estatuko araudi organikoaren eragin-ahalmena mugatuko da; hau da, estatuak

educativas, políticas lingüísticas, políticas sectoriales económicas y financieras, políticas sociales y sanitarias, políticas de igualdad entre hombres y mujeres; políticas propias en transportes y telecomunicaciones; en investigación, en nuevas tecnologías y en comunicación, en medio ambiente, ordenación de territorio y vivienda, políticas de seguridad ciudadana y protección civil, todo ello con el objetivo de atender a las necesidades sociales como prioridad.

Esta reconfiguración y actualización del marco y del sistema competencial supone asumir nuevos ámbitos materiales de competencia, precisar el alcance de determinados conceptos competenciales otorgando especial importancia a la asunción efectiva y debidamente garantizada de las competencias compartidas de forma que no queden desnaturalizadas o desprovistas de su contenido esencial y se adecuen al nuevo modelo relacional.

El carácter singular y la naturaleza confederal de la relación entre el SJP y el Estado español exige acordar qué materias y competencias se reconocen al Estado, ostentando el SJP la competencia exclusiva sobre el resto.

La ciudadanía vasca será titular de los derechos fundamentales establecidos en el Nuevo Estatus Político vasco, la Constitución española, el Convenio Europeo de Derechos Humanos, la Carta de los Derechos Fundamentales de la UE, así como los derivados de los Tratados Internacionales en materia de derechos humanos que se hayan suscrito y ratificado por el Estado español, y las instituciones vascas tendrán capacidad normativa y ejecutiva para regular, desarrollar los derechos fundamentales reconocidos en los ordenamientos jurídicos citados, limitando para ello la capacidad de incidencia de la normativa orgánica estatal, que deberá





"*zuzenbidearen oinarrizko muina*" bakarrik arautuko du, gutxieneko edukia adostuta, eta ez du euskal erakundeek arauak osatzea eta bermatzea eragotziko eta baldintzatuko.

ceñirse a legislar el "*núcleo esencial del derecho*", con un contenido de mínimo común normativo pactado, sin impedir ni condicionar desarrollos más completos y garantistas por parte de las Instituciones Vascas.

Eskumenak handitzeko eremuak hiru multzo handitan banatu daitezke:

Los ámbitos de ampliación competencial podrían quedar agrupados en tres grandes bloques:

- Eskumenen lehen multzoa: Hemen sartuko dira ezaugarri bereizgarriak zaintzeko garrantzi berezia duten eskumen sektorial eskusiboak: hizkuntza, kirola eta euskal kultura; hezkuntza; osasuna; segurtasuna; enplegu publikoa; zuzenbide zibila; kontzertu ekonomikoaren araubidea; hiru euskal foru-erakundeen mailen berezko antolaketa instituzionala (bateratua, lurraldekoa eta udalerrikoa); eta Justizia Administrazioa (botereei eta *ad intra* antolaketa instituzionalari buruzko tituluan landuko da), berezko espetxe-politika barne.

- Primer bloque competencial: Estará integrado por aquellas competencias de carácter exclusivo que, siendo sectoriales, expresan con especial intensidad la preservación del hecho diferencial: Lengua, deporte y cultura vasca; educación; sanidad; seguridad; empleo público; derecho civil; régimen del Concierto Económico; organización institucional propia de los tres niveles institucionales forales vascos (común, territorial y municipal); y Administración de Justicia (cuyo desarrollo se materializará en el Título relativo a los poderes y la articulación institucional *ad intra*) incluida una política penitenciaria propia.

Arlo horietan guztietan, kontzertu politikoaren birtualtasuna gauzatze aldera, funtsezko eskubideen oinarrizko muinaren edukia mugatzeko alde biko ituna egingo da.


En todos estos ámbitos la virtualidad del Concierto Político se extenderá al establecimiento mediante pacto bilateral de los límites del contenido del núcleo esencial de los derechos fundamentales.

- Eskumenen bigarren multzoa: Euskal erakundeei dagokien lurralde-eremuko –jurisdikziopeko uretaraino hedatzen da– natura-baliabide eta azpiegituren jabetza edota ondare-titulartasuna aintzatetsiko die.

- Segundo bloque competencial: Reconocerá a las instituciones vascas la titularidad demanial y/o patrimonial de los recursos naturales de su ámbito territorial –que se extiende hasta el mar territorial– y de las infraestructuras sitas en el mismo.

- Eskumenen hirugarren multzoa: Euskal botere publikoei lan-harremanetako eta gizarte-babes edo -segurantzako sistemekin zerikusia duten eskumen eta

- Tercer bloque competencial: Atribuirá a los poderes públicos vascos las competencias y facultades exclusivas relacionadas con los sistemas de





ahalmen eksklusiboak emango dizkie. Testu artikulatuak, halaber, Espainiako estatuan kokaturiko sistemekiko lankidetzeta- eta elkartasun-mekanismoak jasoko ditu.

Halaber, euskal erakundeei kanpoko eta nazioarteko harremanetarako eskumen zabala eta Europako eta nazioarteko instituzio eta erakundeetan ordezkaritza-ahalmena aintzatetsi beharko dizkie. Eskumen-esparru hauetan, gutxienez, kanpo-proiektzio jarduerak gauzatzeko aukera berariaz jasoko da: hizkuntza eta kultura; kirolak; gazteria; mugaz bestaldeko lankidetzeta; diaspora; kanpo-merkataritza; ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa; eta elkartasuna eta garapenerako lankidetzeta. Aintzatespen horren oinarria *"in foro interno, in foro externo"* eredua izango da, hau da: barne-esparruak kanpoan ere erabili ahal izango dira. Proposamena da titulu bereizi batean lantzea; hala ere, eskumenen funtza arautzen duen tituluan dagozkion aipamen eta erreferentziak jarriko dira.

Toki-araubidean eskumen berezia. Subjektu politikoari toki-araubidean eskumen berezia aintzatetsiko zaio, erro historiko sakonak dituelako. Horren harira, "ad intra" antolaketa instituzionala arautzen duen tituluan jaso eta aintzatetsiko da tokiko botereak euskal erakunde-sistemaren parte direla.

Ekonomia-, finantza- eta zerga-araubidea ere landuko du eta, alde


relaciones laborales y de protección o de seguridad social. El articulado contemplará, también, mecanismos de cooperación y solidaridad con los sistemas asentados en el Estado español.

Asimismo, deberá reconocer amplia competencia en acción exterior y relaciones internacionales a las Instituciones Vascas y capacidad de representación en las instituciones y organizaciones europeas e internacionales. La posibilidad de llevar a cabo actuaciones de proyección exterior deberá ser expresamente contemplada en referencia a cuando menos los siguientes ámbitos de competencia: lengua y cultura; deportes; juventud; cooperación transfronteriza; diáspora; comercio exterior; investigación, desarrollo e innovación tecnológica; y solidaridad y cooperación al desarrollo. Este reconocimiento se basará en el modelo *"in foro interno, in foro externo"*; es decir, la competencia que se tiene en el ámbito interno podrá también ser ejercida en el ámbito exterior. Se propone que su articulación se aborde en título aparte, sin perjuicio de las menciones y referencias que proceda incorporar en el título regulador del fondo competencial.

Competencia singular en materia de régimen local, reconociendo al Sujeto Político una competencia singular respecto al régimen local, dada su honda raíz histórica, siendo en el título regulador de la articulación institucional "ad intra" donde se recoja el reconocimiento e integración de los poderes locales como parte integrante del sistema institucional vasco.

Incidirá, también, en el régimen económico, financiero y tributario-





horretatik, Kontzertu Ekonomikoa zaintzeko eta indartzeko eta haren berezitasunari eusteko apustu irmoagoa egingo du. Hauek dira hori lortzeko proposamenak:

- Gernikako Estatutuaren 41. artikulua aldatzea; hau da, argi uztea kontzertu ekonomikoaren foru-sistema tradizionalak ekonomiaren arlo guztietan jardungo duela estatuarekiko harremanetan; finantza-, ekonomia- eta zerga-arloetan, hain zuzen ere.
- Aurrekoarekin bat, testu artikulatuak ogasunaren berezko gaiak "itunpeko gai" moduan osatzen eta biltzen dituen araubide bat eratuko du. Era horretan, berezko euskal legeriak araubide juridikoko eta administrazio-prozedurako azpigaietarako esparrua prestatu eta zabaltzeko ahal izango du, kontratu publikoen legeria eta diru-laguntzen legeria orokorra barne.
- Halaber, azpimarratuko da Kontzertu Ekonomikoa "unibertso itxi bat" dela, "estatuaren eskumenekoak baino ez diren zergak eta foru-eskumeneko zergak arautzen dituen, itunpekoak izan ala ez".
- Testu artikulatuak berme juridiko eraginkorrak ezarriko ditu, ziurtatzeko estatuak behar den guztietan negoziatuko duela Kontzertu Ekonomikoko gai osoen gaineko bilakaera-hitzarmen bat, benetako aldebikotasuneko sistemak

fiscal desde la apuesta más firme por la preservación y refuerzo del Concierto Económico y mantenimiento de su singularidad. Se propone a tal fin:

- la modificación del art. 41 del Estatuto de Gernika dejando claro que el sistema foral tradicional del Concierto Económico operará sobre las relaciones con el Estado en todos y cada uno de los órdenes de naturaleza económica: el financiero, económico y tributario-fiscal.
- En concordancia con lo anterior, el articulado configurará un régimen que complemente y aglutine el conjunto de materias propias de la Hacienda como "materia concertada" permitiendo así habilitar y ampliar el espacio para la legislación vasca, propia, en submaterias afines al régimen jurídico y procedimiento administrativo, incluida la legislación de contratos públicos y la legislación general de subvenciones.
- Igualmente se dejará patente que el Concierto Económico constituye "un universo cerrado, que regula tanto los tributos de exclusiva competencia estatal como los de competencia foral, sean convenidos o no".
- El texto articulado establecerá garantías jurídicas eficaces que aseguren que el Estado negociará cada vez que sea necesario un acuerdo evolutivo de aspectos completos del Concierto Económico, mediante el establecimiento de sistemas de





ezarriz.

- Espainiako Konstituzioren 135. artikulua gure lurraldean aplikatzeko araubide bat prestatuko da, hala kontzertu ekonomikoko sistemarekin nola estatuarekiko harreman-esparru politiko berriarekin bat datorrena, estatus politiko berrian jasotako berezitasunean eta aldebikotasunean oinarritua.
- Estatus politikoak baldintzatu gabeko eta erabateko eskumena eman behar dio subjektu politikoari bere kreditu eta zor publikoko politika egiteko.
- Azkenik, herri-kontuak kontrolatzeko sistemaz ere euskal erakundeak arduratuko dira, zehazki Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Estatuarekiko harremanen eredu berria: berdintasuna, aldebikotasuna eta ituna. Eskumenak blindatzeko mekanismoak

Proiektu politiko berrian jasotako estatuarekiko harremanen eredu berria "berezia" benetan aldebikoa eta konfederala denez, ezinbestekoa da, herri-administrazioen araubide juridikoari eta harremanen araubideari dagokionez (bereziki estatuarekiko harremanei dagokienez), Espainiako estatuarekin eremu bat antolatzea, proiektu berrian moldatutako aldebiko harremanaren izaera juridikoaren arabera. Elkarrenganako errespetuaren eta erakunde arteko leialtasunaren kultura sakon eta zintzoaren oinarriak jarri behar dira, horiek izango baitira gure autogobernuaren euskarriak. Nahitaezkoa da, halaber, itunpeko eremu hori mugatzea, subjektu politikoaren mugaz bestaldeko harremanak eta Europako eta nazioarteko partaidetza errespetatu daitezzen.

bilateralidad efectiva.

- Se articulará un régimen de aplicación del artículo 135 CE sobre nuestro territorio que sea concordante tanto con el sistema de Concierto Económico como con el nuevo marco político relacional con el Estado basado en la singularidad y bilateralidad contenido en el nuevo Estatus Político.
- El Nuevo Estatus debe atribuir al Sujeto Político competencia plena e incondicionada para realizar su propia política de crédito y deuda pública.
- Por último, el sistema de control de las cuentas públicas también deberá ser auto-centrado, y corresponderá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Nuevo Modelo relacional con el Estado: igualdad, bilateralidad y pacto. Mecanismos de Blindaje competencial

El nuevo modelo de relación con el Estado consagrado en el nuevo Proyecto Político "singular" y de bilateralidad efectiva de modelo confederal, exige definir un espacio concertado con el Estado español en relación con el régimen jurídico y relacional de las Administraciones públicas (en particular, respecto a las relaciones con el Estado) adecuado a la naturaleza jurídica de la relación bilateral articulada en el Nuevo Proyecto. Se ha de asentar una profunda y sincera cultura de respeto mutuo y lealtad interinstitucional como mejor garantía de nuestro autogobierno. También resulta preciso definir ese espacio concertado a fin de que se respeten las relaciones transfronterizas del Sujeto Político y su participación en el entorno europeo e internacional.





Eskumenen sistema estatuarekiko lankidetzaren eredu berri batekin osatuko da. Eredu horrek bi alderdi izango ditu:

- 1) Subjektu politikoaren partaidetza Espainiako estatuko sistemako lankidetzaren aldean. Arlo formalari, erakunde arteko leialtasunari eta lurralde-elkartasunari dagokionez, bere horretan geratuko da; baina, arlo materialean, eskumenen asimetria dela-eta arrazoirik badago, hartzen diren erabakietatik kanpo utziko da.
- 2) Euskal foru-berezitasunaren tratamendua, non estatuarekiko alde biko lankidetzaren eredu nagusituko den, euskal kontzertu politikoaren bitartez kudeatuta.

Estatuarekiko alde biko harreman-sistema berri horrek berme-araubide edo sistema bat ezarri beharra dakar. Esparru politiko berriak jasotzen eta antolatzen dituen berme-sistemak eta blindatze-mekanismoek bat etorri behar dute elkarrenganako errespetu eta aintzatespenean oinarrituriko estatuarekiko alde biko harreman-eredu konfederalarekin, eta euskal autogobernua blindatu eta alde biko bere kasa aldatzea eragotziko dute.

Testu artikulatuak harreman konfederalen berezko jardura-printzipioak izango ditu eta bi alderdiek men egingo diete printzipio horiei. Lankidetzaren, elkartasun eta gobernantza oneko printzipioek argituko dute itun politiko berria.

Halaber, estatuarekin eskumenen inguruan sortzen diren desadostasun eta gatazkak alde bikoaren, akordioa eta ituna oinarri hartuta konpontzeko behar adina mekanismo jarriko dira. Betiere, prebentzio- eta lankidetzaren prozedurek izango dute


El sistema competencial se completará con un nuevo modelo de cooperación con el Estado orientado en dos vertientes:

- 1) la participación del Sujeto Político en la cooperación multilateral en el sistema institucional del Estado español, que permanecerá intacta en lo formal, así como en lo tocante a la lealtad institucional y a la solidaridad territorial, pero supondrá, en lo material, su exclusión material de las decisiones que se adopten, cuando así lo justifique la asimetría competencial.
- 2) el tratamiento de la especificidad foral vasca, donde prevalecerá el modelo de cooperación bilateral con el Estado, gestionado mediante el Concierto Político Vasco.

Este nuevo sistema bilateral relacional con el Estado precisa la incorporación de un régimen o sistema de garantías. El sistema de garantías y los mecanismos de blindaje que contenga y articule el nuevo marco político se tienen que adecuar al nuevo modelo de relación bilateral con el Estado, de naturaleza confederal, basado en el pacto, el respeto y reconocimiento mutuos como sujetos políticos y blindarán el autogobierno vasco, impidiendo su modificación unilateral.

El texto articulado contendrá los principios de actuación propios de una relación de naturaleza confederal al que quedarán sometidas ambas partes. Los principios de cooperación, de solidaridad y la buena gobernanza como principios inspiradores del nuevo pacto político.

Incorporará, asimismo, los mecanismos precisos para que las diferencias y conflictos de carácter competencial que se susciten con el Estado se resuelvan desde la bilateralidad, el acuerdo y el pacto. En todo caso se dará





bat sortuko da.

Testu politiko berria behin betiko onartu eta hiru hilabetera sartuko da indarrean. Epe horretan, dagozkion baliabide eta zerbitzu publikoen eskualdatze bakar eta behin betikoa itundu eta burutuko da.

IV. OINARRIA – SJPREN BOTEREAK. LURRALDE ANTOLAMENDUA.

1.- Sarrera

Botereei buruzko atalaren oinarritzko helburua, demokrazia guztietan, honako hauek ziurtatzea da: botereen independentzia, bereizketa, oreka eta kontrol demokratikoa; administrazioak lurralde-mailetan antolatze modua; eta botere horien eta herritarren arteko harremana antolatze modua.

Botereen bereizketaren oinarri den antolaketa-printzipioak organo politiko desberdin eta independenteei ematen dizkie ahalmen legegile, betearazle eta judizialak; hori demokrazia modernoaren oinarritzko bereizgarri bat da.

Beharrezkoa da, halaber, botere-abusuak eragozteko tresna eta mekanismoak jartzea, batak bestearen botere bereizkiak kontrolatzeko eta zaintzeko; eta erakundearen kontrol demokratikoa sendotzea, ohiko funtzionamenduan kontu-ematea, gardentasuna eta partaidetza indartzuz.

1.1.- Printzipio orokorrak

SJPren botereak eta lurralde-

El nuevo texto político entrará en vigor a los 3 meses de su aprobación definitiva, plazo dentro del cual se deberá pactar y cerrar un traspaso único y definitivo de los medios y servicios públicos que el mismo conlleve.

BASE IV – PODERES DEL SUJETO POLÍTICO VASCO. ORGANIZACIÓN TERRITORIAL

1.- Introducción


El apartado de los poderes tiene el objetivo fundamental, en cualquier democracia, de abordar lo relativo a garantizar la independencia, la separación y el equilibrio de poderes y el control democrático de los mismos, la forma en que se organizan las administraciones en los distintos niveles territoriales y la forma en que estos poderes se relacionan con la ciudadanía.


La separación de poderes parte de un principio organizativo que atribuye las potestades legislativas, ejecutivas y judiciales a órganos políticos distintos e independientes entre sí como cualidad fundamental que caracteriza a las democracias modernas.

Es necesario también garantizar instrumentos y mecanismos que eviten abusos de poder, mediante el control recíproco y la vigilancia de los poderes divididos, así como reforzar el control democrático de las instituciones, fortaleciendo la rendición de cuentas, la transparencia y la participación en su funcionamiento habitual.

1.1.- Principios generales

Como elemento previo al





antolamendua landu aurretik, funtsezkoa da SJPre botere publikoen jardura-printzipio orokorrak ezartzea. Hauek izan behar dute printzipio horien oinarriak: eskubidea eta askatasunak errespetatzea, herritarren hurbilean eta haien zerbitzura egotea, gardentasuna zaintzea, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna ziurtatzea eta herritarrek erabakietan parte hartzea.

1.2.-Zuzenbide-estatu demokratikoaren hiru botereak

SJPK zuzenbide-estatu demokratikoari dagozkion hiru botereak izango ditu eta botereak bereizteko eta elkar kontrolatzeko eredu bat prestatuko du, botere publikoen arbitrariotasunaren debekua eta euskal herritarren eskubide eta askatasunak ziurtatzeko.

SJPK botere legegilea, botere betearazlea eta botere judiziala Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, Jaurlaritzako lehendakariaren eta Euskadiko botere judizialeko erakundeen bitartez erabiliko ditu.

2.- SJPre botereak

2.1.- Botere legegilea

Eusko Legebiltzarraren zeregina izango da, besteak beste, botere legegilea erabiltzea eta Eusko Jaurlaritzaren jarduna sustatzea eta kontrolatzea.

Botere legegileari dagokionez, estatus berriaren araubideak gai hauek hartu behar ditu aintzat, gutxienez:

- Legebiltzarraren eta Legebiltzarreko kideak bortxaezin

desarrollo de los poderes y organización territorial del SJP, es fundamental establecer los principios generales para la actuación de los poderes públicos del SJP, sustentado en el respeto a los derechos y libertades, la cercanía y el servicio a la ciudadanía, la transparencia, la garantía de la igualdad plena de hombres y mujeres, y la participación ciudadana en la toma de decisiones.

1.2.- Los tres poderes del Estado democrático y de derecho

El SJP se dotará de los tres poderes que conforman el Estado de derecho democrático y articulará un modelo de separación de poderes y control recíproco que garantice tanto la interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos como los derechos y libertades de la ciudadanía vasca.

El SJP ejerce el poder legislativo, el poder ejecutivo y el poder judicial a través del Parlamento Vasco, del Gobierno Vasco y de su lehendakari, y de las instituciones del Poder Judicial de Euskadi.


2.- Los poderes del SJP

2.1.- Poder Legislativo

El Parlamento Vasco ejercerá, entre otras funciones, la potestad legislativa y el impulso y control de la acción del Gobierno Vasco.

En relación con el Poder Legislativo, la regulación del nuevo estatus habrá de contemplar cuando menos las siguientes cuestiones:

- La inviolabilidad del Parlamento y la de sus miembros por los





izatea karguari dagokion jardunean ematen dituzten boto eta iritziengatik.

- Legebiltzarraren osaera eta aukeratzeko modua, dagokion legeria arautzailearen ezarpena barne.

Legebiltzarra autoantolatzeko eta funtzionatzeko modua, legegintza-ekinbidez –eta legegintzako herri-ekimenaz– arduratuko diren organo eta erakundeei eta legealdarrikapenei dagozkien ezarpenak barne.

2.2.- Botere betearazlea eta lehendakariaren irudia

Eusko Jaurlaritza SJPrez zeregin betearazle eta administratiboak betetzen dituen kide anitzeko organoa da, eta lehendakaria organo horretako ordezkari nagusia.

Botere betearazleari dagokionez, estatus berriaren araubideak gai hauek hartu behar ditu aintzat, gutxienez:

- Gobernuaren eskuduntzak eta antolamendua, horiek arautzeko legeriari dagokion ezarpena barne.
- Gobernuak jardunari zein kasutan utzi behar dion eta Eusko Legebiltzarrak zer erantzukizun politiko duen.
- Lehendakaria aukeratzeko eta izendatzeko modua eta lehendakariari dagozkion eskuduntzak, horiek arautzeko legeriari dagokion ezarpena

votos y opiniones que emitan en el ejercicio de su cargo.

- La composición y modo de elección del Parlamento, incluida la previsión de la correspondiente legislación regulatoria de los mismos.

El modo de autoorganización y funcionamiento del Parlamento, así como las previsiones atinentes a los órganos e instituciones a los que corresponde la iniciativa legislativa –también la iniciativa legislativa popular–, y a la promulgación de sus leyes.

2.2.- Poder Ejecutivo y la figura del lehendakari

El Gobierno Vasco es el órgano colegiado que ejerce las funciones ejecutivas y administrativas del SJP, y la o el lehendakari su más alto representante.

En relación con el Poder Ejecutivo la regulación del nuevo estatus habrá de contemplar cuando menos las siguientes cuestiones:

- Las atribuciones y organización del Gobierno, incluida la previsión de la correspondiente legislación regulatoria de las mismas.
- Los supuestos en los que el Gobierno cesa, así como su responsabilidad política ante el Parlamento Vasco.
- El modo de designación, elección y nombramiento del o la lehendakari, así como sus atribuciones, incluida la previsión de la correspondiente





barne.

- Gobernuaren eta Legebiltzarraren arteko harremanak, horiek arautzeko legeriari dagokion ezarpena barne.

legislación regulatoria de los mismos.

- Las relaciones del Gobierno con el Parlamento, incluida la previsión de la correspondiente legislación regulatoria de las mismas.

2.3.- Botere judiziala

Estatus politiko berriak Euskal Kontseilu Judizial Nagusia SJPko botere judizialaren gobernu-organotzat ezagutuko du eta organo hori gainerako botere judizialek independentea izango da. Horren harira, berezko antolaketa eta oinarri judizialeko eredu bat ezarriko du eta Euskal Auzitegi Nagusia sortuko da.

Halaber, SJPri Euskal Herrian Justizia Administrazioa antolatzeko ahalmena aintzatetsiko zaio, autoantolatzeko ahalmena gauzatzeko behar-beharrezkoa baita. Alde horretatik, Justizia Administrazioari dagozkion eskumen betearazle eta organikoak erabiliko ditu, foru-tradizioaren eta erkidegoko esperientzia historikoaren arabera.


Ahalmen horrek, 1936ko Estatutuaren 3. artikulua edukia eguneratuz gero, SJPri eskumena emango lioke Justizia dagokion lurraldean –bere instantzietan eta jurisdikzio guztietan– antolatzeko, Konstituzioan eta kontzertu politikoan ezarritakoaren arabera. Halaber, Justizia Administrazioko magistratu eta epaileak aukeratzeko eta idazkari eta laguntzaileak izendatzeko eta SJPren eremuan Zerga Ministerioaren antolaketa eta funtzionamendua zehazteko eskumena izango luke.

2.3.- Poder Judicial

El nuevo estatus político reconocerá al Consejo General Judicial Vasco como el órgano de gobierno del Poder Judicial en el ámbito del SJP, independiente del resto de los poderes públicos, estableciendo un modelo de organización y planta judicial propios que culminará en un Tribunal Superior de Justicia Vasco.

Asimismo, se reconocerá al SJP la capacidad de organizar la Administración de Justicia en el País Vasco como parte imprescindible de su potestad de autoorganización, ejerciendo en su territorio todas las facultades ejecutivas y de carácter orgánico correspondientes a la Administración de Justicia, de conformidad con la tradición foral y la experiencia histórica autonómica.

El alcance de dicha potestad, actualizando el contenido del artículo 3 del Estatuto de 1936, incluiría, al menos, la atribución al SJP en su territorio de la organización de la Justicia en sus diversas instancias, en todas las jurisdicciones, conforme a la Constitución y a los términos establecidos en el concierto político. Y lo referente a la designación de los magistrados y jueces y nombramiento de secretarios y auxiliares de la Administración de Justicia, así como la organización y funcionamiento del Ministerio Fiscal en el ámbito del SJP.





Azkenik, Euskal Auzitegi Nagusiak berezko jurisdikzioa eta diziplina-ahalmena izango ditu SJPri eskusiboki dagokion legeriako gai guztietan, eta jartzen diren kasazioko eta berrikuspeneko errekurtsoak ezagutuko ditu. Zeregin horiei beste bat gehitu beharko litzaioke, SJPko agintaritzaren judizialen eskumen- eta jurisdikzio-kontuak ebaztekoa, hain zuzen ere.

Auzitegi Nagusiak estatuak emandako eta SJPn aplikatu beharreko legeriaren doktrina bateratzeko ahalmena izango du, kontzertu politikoan adostutakoaren eta hitzartutako alde biko harremanaren arabera.

Euskal eskola judiziala sortuko da, Euskal Kontseilu Judizial Nagusiaren mende.

Ertzaintza izango da SJPko lurraldeko Polizia Judiziala, ondorio guztietarako.

3.- SJPko "ad intra" lurralde-antolamendua

Estatus politiko berriaren abiapuntua botere politikoaren egungo banaketako eredua izango da. Erakunde erkideetan eta lurralde historikoetan eskumenak berriz banatzeko, Eusko Legebiltzarrak lege bat egingo du. Eskumenak eraginkortasun-, deszentralizazio- eta subsidiaritasun-printzipioen arabera banatuko dira, demokrazian sakontzeko, gobernantza ona sustatzeko eta herritarren premiei erantzuteko.

Erakundeen "ad intra" antolaketak hiru maila instituzional hartuko ditu: erkidea,

Finalmente, el Tribunal Superior de Justicia Vasco tendrá jurisdicción propia y facultades disciplinarias en todas las materias cuya legislación exclusiva corresponda al SJP, conociendo de los recursos de casación y revisión que se interpongan. A dichas funciones habría que añadir una más, concerniente a la resolución de las cuestiones de competencia y jurisdicción entre las autoridades judiciales del SJP.

El Tribunal Supremo tendrá la capacidad de unificación de doctrina en relación con la legislación dictada por el Estado y de aplicación en el SJP, de conformidad con lo pactado en el concierto político y la relación bilateral concertada.

Dependiendo del Consejo General Judicial Vasco se creará una escuela judicial vasca.

La Ertzaintza será a todos los efectos la Policía Judicial en el ámbito del SJP.

3.- Organización territorial "ad intra" del SJP

El nuevo estatus político partirá del actual modelo de reparto del poder político interno. Corresponderá a una ley del Parlamento Vasco actualizar el reparto competencial entre las instituciones comunes y los territorios históricos, de acuerdo al principio de eficacia, descentralización y subsidiariedad y con el objetivo final de lograr profundizar en la democracia, contribuir al buen gobierno y atender las necesidades de la ciudadanía.

La organización institucional "ad intra" estará integrada por los tres niveles





lurraldekoa eta udalerrikoa. Alde horretatik, testu artikulatuak eutsi egingo dio Gernikako Estatutuan zirriborratutako eta egungo ordenamendu juridikoak landutako arkitektura instituzionaleko eredu deszentralizatuari. Horrez gain, beste maila instituzional bat ere aintzatetsi eta jasoko du, tokiko botereena, hain zuzen ere, eta erkidego moderno, iraunkor eta berdinzaleago bat sortzen jarraitzeko topaketa-plataformak arautuko ditu.

3.1.- Erakunde erkideak

Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, lehendakariak eta SJPko botere judizialeko erakundeek euskal erakunde erkide izaten jarraituko dute.

3.2.-Lurralde historikoak

Batzar nagusiak eta foru-aldundiak izango dira lurralde historiko bakoitzeko foru-erakundeak, eta euskal erakundeen parte izango dira. Beren burua antolatzeko ahalmen osoa, finantza-, zerga- eta aurrekontu-autonomia eta beren Ogasuna izango dituzte.

Estatus berriak lurralde historikoen finantza- eta zerga-autonomia aintzatetsiko du. Dena den, erakunde erkideek bateratze-ahalmena erabili ahal izango dute, interes orokorrak hala eskatzen badu.

Foru-lurraldeek Gernikako Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea garatzearekin zerikusia duten gai batzuen gaineko eskumenak

institucionales vascos (común, territorial y municipal). En este sentido, el texto articulado mantendrá el modelo descentralizado de arquitectura institucional esbozado en el Estatuto de Gernika y desarrollado por el ordenamiento jurídico vigente en los términos actuales, con la novedad de que se procederá al reconocimiento y la inclusión, como un nivel institucional más, de los poderes locales, y se regularán las plataformas de encuentro que permitan seguir avanzando hacia una comunidad más moderna, sostenible e igualitaria.

3.1.- Instituciones comunes

Mantendrán la consideración de instituciones comunes vascas el Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco y la o el lehendakari, y las instituciones del Poder Judicial en el ámbito territorial del SJP.

3.2.-Territorios históricos

Las juntas generales y las diputaciones forales serán las instituciones forales privativas de cada territorio histórico, formando parte integrante de las instituciones vascas. Gozarán de plena capacidad de autoorganización; gozarán también de autonomía financiera, tributaria y presupuestaria, y dispondrán de su propia Hacienda.

El nuevo estatus reconocerá la autonomía financiera y tributaria de los territorios históricos, sin perjuicio de la capacidad de armonización por parte de las instituciones comunes, cuando el interés general así lo requiera.

Los territorios forales tienen establecidas competencias sobre una serie de materias ligadas al desarrollo del Estatuto de Gernika y la Ley de





dituzte.

Gai hauen gainean askotariko iritziak daude: batetik, lurralde historikoetako erakundeei dagokien eskumen-eremua eta, bereziki, zerga-arloa arautzeko eskumenaren helmena eta organo eskuduna; eta, bestetik, politika publikoen eta gastu publikoaren barne-koordinaziorako tresnak. Gai horiek eztabaidatu beharra dago, baina estatus politiko berriaren abiapuntutzat botere politikoaren egungo barne-banaketako eredua hartzea jo da egokitzat.

3.3.-Toki-erakundeak

SJPK toki-araubidearen eta barne-antolaketaren gainean duen eskumen eksklusiboari dagokionez, estatus politiko berriaren euskal udalerriak benetako euskal lurralde-botereak izango dira, euskal erakunde-sistemaren barruan egongo dira eta autonomia politiko, organiko eta finantzarioa izango dituzte. Herritarrentzako gertukoena den maila instituzional eta administratiboa eraikitzeko lana aintzatetsiko da. Udalerriek beren lekua izango dute euskal botere politikoaren barne-banaketako eredutik eratorritako egitura instituzionalean.

Tokiko autonomiaren printzipioak toki-erakundeek auzokideen interesei zuzenean eragiten dieten gaietan parte hartzea ziurtatuko du; ez dira zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten erakunde huts edo deszentralizazio administratiboaren emaitza soil izango.

Udalerriek funtsezko zeregina dute zerbitzu publikoen prestazioan.

Territorios Históricos.

Existen posturas distintas, relativas al ámbito competencial que corresponde desempeñar a las instituciones de los territorios históricos, y, en particular, sobre el alcance de la competencia normativa en materia tributaria y el órgano competente, así como sobre los instrumentos de coordinación interna en materia de políticas públicas y gasto público. Este debate ha de ser abordado, si bien se considera adecuado que el nuevo estatus político parta del actual modelo de reparto del poder político interno.

3.3.- Instituciones locales

En el marco de la competencia exclusiva del SJP sobre el régimen local y organización interna, el nuevo estatus político configurará a los municipios vascos como verdaderos poderes territoriales vascos, como parte del sistema institucional vasco, con autonomía política, orgánica y financiera. Se reconocerá el papel desempeñado al constituir el nivel institucional y administrativo más cercano a la ciudadanía. El municipio ocupará un lugar propio en la estructura institucional derivada del modelo de reparto interno del poder político vasco.

El principio de autonomía local garantizará a las entidades locales su participación en todas aquellas cuestiones que afecten directamente a los intereses de los vecinos y vecinas, más allá de su concepción como meros entes prestadores de servicios públicos o el resultado de una simple descentralización administrativa.

Los municipios tienen un papel imprescindible en la prestación de los





Horregatik, eskumen eta ahalmenez gain, arautzeko edo antolatzeko gaitasuna eta gaitasun horiek gauzatzeko baliabide nahikoa ere izan behar dituzte. Halaber, herritarrek zuzeneko demokrazia erabili ahal izateko mekanismo deszentralizatuak ezartzeko gaitasuna izan behar dute.

Egoera sozial, ekonomiko eta linguistikoak aintzat hartuta, testu berrian lurralde-maila berri batean sakondu daiteke, eskualdeen mailan, hain zuzen ere, eta udalaz gaindiko egungo irudi juridikoak aintzatetsi eta indartu daitezke, hala nola mankomunitateak, eskualdeak eta kuadrillak. Konponbidearen asmoa ez da eraginkortasuna eta efizientzia ziurtatzea bakarrik, baita maila guztietako erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea ere, guztien ongia helburutzat hartuta.

Gai horren gaineko estatutuko xedapenak Eusko Legebiltzarraren lege baten bitartez landuko dira, toki-araubidearen eta barne-antolaketaren gaineko eskumen eskusiboaren esparruan.

3.4.-Elkarlanean aritzeko eta koordinatzeko tresnak

Testu artikulatuak koordinatzeko, bateratzeko eta elkartzeko printzipio eta tresna egokiak jasoko ditu, hiru gobernantza-maila eta maila bakoitzeko eskumenek funtzionamendu egokia izan dezaten. Horretarako, dauden elkarlan- eta koordinazio-tresnak sendotuko dira; bereziki, diru-sarrera eta gastu publikoen ingurukoak.


servicios públicos, por lo que sus capacidades competenciales deben ir acompañadas de la oportuna capacidad normativa o de ordenación, así como tener garantizados los recursos suficientes para desempeñar esas capacidades. Asimismo, deberán tener la capacidad para establecer mecanismos descentralizados que posibiliten el ejercicio de la democracia directa por parte de la ciudadanía.

Sobre la base de las circunstancias sociales, económicas y lingüísticas la redacción del nuevo texto puede dar pie a profundizar en un nuevo nivel territorial de ámbito comarcal, así como reconocer y potenciar las actuales figuras jurídicas de ámbito supramunicipal como mancomunidades, comarcas y cuadrillas. No solo es una solución pensada en clave de eficacia/eficiencia, sino de promoción de la cooperación interinstitucional a todos los niveles en la búsqueda del bien común.

Una ley del Parlamento Vasco, en el marco de la competencia exclusiva sobre el régimen local y organización interna, desarrollará las disposiciones estatutarias en esta materia.

3.4.-Instrumentos de colaboración y coordinación

El texto articulado incorporará los principios y los instrumentos de coordinación, convergencia y encuentro necesarios que garanticen el correcto funcionamiento entre los tres niveles de gobierno y las competencias que tiene atribuidas cada uno, reforzándose los instrumentos de colaboración y coordinación existentes. Se reforzarán





especialmente los instrumentos de colaboración y coordinación existentes en materia de ingresos y gastos públicos.

Halaber, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzeko, Euskal Herriko beste lurralde-eremu batzuekin elkarlanean aritzeko espazioak jartzeko aukera ezarriko da.

Asimismo, con la finalidad de racionalizar la gestión de los recursos públicos, se preverá la posibilidad de abrir espacios de colaboración con otros ámbitos territoriales de Euskal Herria.

Estatus berriak Arbitraje eta Berme Batzordea sortzea ezarriko du, subjektu politikoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako erakundeen arteko eskumen-gatazkak konpontzeko eta estatus honetan araututako oinarritzko eskubideen urratzeak aztertzeko. Batzordea parekidea izango da, hau da, Eusko Jaurlaritzak eta lurraldeko foru-aldundiak kide-kopuru bera aukeratuko dute, eta batzordeburua Euskal Auzitegi Nagusiko lehendakaria izango da. Horretarako prozedura Eusko Legebiltzarreko lege baten bitartez arautuko da.

El nuevo estatus preverá la creación de la Comisión Arbitral y de Garantías para la resolución de los conflictos competenciales entre las instituciones comunes del sujeto político y las instituciones de los territorios históricos, así como en caso de vulneraciones de los derechos fundamentales regulados en el presente estatus. Su composición será paritaria, estará formada por un número igual de representantes designados por el Gobierno Vasco y por la diputación foral del territorio interesado, y estará presidida por quien ostente la presidencia del TSJPV. Mediante ley del Parlamento Vasco se regulará el procedimiento a seguir.

Tokiko Politika Publikoen Kontseiluak indarrean jarraituko du, koordinazio-, bateratze- eta elkartze-organo gisa. Dena den, beste kontseilu osagarri batzuk ere eratu daitezke, betiere gobernantza-mailen berme instituzionalari kalteturik egin gabe eta lurralde bakoitzari bete autogobernu-eremua mantentzeko eta lantzeko eta politika publikoak ezartzeko aukera kendu gabe.

Se mantendrá el vigente Consejo de Políticas Públicas Locales como órgano de coordinación, convergencia y encuentro, sin perjuicio de la posible creación de otros, de carácter complementario, y sin que por ello quede afectada la garantía institucional de ninguno de los niveles de gobierno, ni la posibilidad de cada territorio de mantener y desarrollar su propio espacio de autogobierno y de implementación de políticas públicas.

4.- Gardentasuna, kontrola eta herritarren partaidetza

4.- Transparencia, control y participación ciudadana





4.1.- Gardentasuna eta kontrola

Estatus berriaren testuan jasokoda Eusko Legebiltzarrak legez arautuko dituela, batetik, euskal erakundeen funtzionamenduaren gardentasunaz eta eraginkortasunaz arduratuko diren erakunde nagusiak; bestetik, gobernantza eta administrazio ona izateko eskubidea; eta azkenik, informazioa eskuratzeko eta erregistro publikoetara jotzeko eskubidea. Alde horretatik, herritarren eskubideak ziurtatuko ditu, hizkuntza-eskubideak barne.

Horregatik, estatus berriak erakunde hauek sartuko ditu esparru politiko eta juridiko berrian:

- Arartekoa.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Defentsa Bulegoa
- Lehiaren Euskal Agintaritza, kontsumitzaileena
- Gardentasunaren eta Datuen Babesaren Euskal Agintaritza.

4.2.- Partaidetza

Herritarren partaidetza demokraziaren ideia bera da, eta, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatu bezala, gobernantza eta administrazio onaren eskubidea ziurtatzeko ardatza izan behar du.

Partaidetzan sakontzeko eta demokrazia parte-hartzailea izan dadin lortzeko, ezinbestekoa da herritarren partaidetza bideratzeko esparru politiko eta juridiko egokia izatea. Atal honetan, testu artikulatuak

4.1.- Transparencia y control

La redacción del nuevo estatus incorporará la regulación por ley del Parlamento Vasco de instituciones clave para el funcionamiento transparente, eficaz y eficiente de las instituciones vascas y el derecho al buen gobierno y la buena administración, así como el acceso a la información y a los registros públicos, garantizando los derechos de la ciudadanía, incluidos los derechos lingüísticos.


Por ello, el nuevo estatus incluirá en el nuevo marco político y jurídico las siguientes instituciones:

- Ararteko
- Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
- Defensoría de la Igualdad de mujeres y hombres
- Autoridad Vasca de la Competencia, de la persona Consumidora
- Autoridad Vasca de Transparencia y de Protección de Datos

4.2.- Participación

La participación ciudadana se encuentra en el núcleo mismo de la idea de democracia y debe ser eje garante del derecho a un buen gobierno y a una buena administración proclamado en la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

Para profundizar en la participación y lograr esa democracia participativa se hace necesario un marco político y jurídico adecuado que canalice la participación ciudadana. El articulado en este





herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea aintzatetsiko du, gutxienez. Herritarrek parte hartu ahal izango dute hala ordezkari politikoak aukeratuz nola zuzenean, hau da, euskal erakundeek estatus politiko berriak aintzatetsitako ahalmenak erabiliz egin ditzaketan galdeketa eta erreferendumetan esku hartuz.

Herritarrek zuzenean esku hartzeko beste modu bat ere antolatuko da: euskal botereek partaidetza-mekanismoak jarriko dituzte, gardentasunaren eta gobernantza onaren printzipioak betetzeko.

Orobat, aintzatetsiko da banako eskariak eta eskari kolektiboak egiteko eskubidea; eskari horiek nola egingo diren eta zer eragin izango dituzten, lege baten bitartez zehaztuko da. Legegintzako herri-ekimena ere herritarrek gai publikoetan parte hartzeko modu garrantzitsuenetako bat da.

Administrazio-xedapenak egiteko prozedura guztietan, herritarrei eta eragindako elkarte eta erakundeei entzunaldia emango zaie; baita interesdunei ere administrazio-prozedura guztietan. Horrez gain, administrazio-erregistro eta artxiboetara jotzeko eskubidea aintzatetsiko da, salbu datu pertsonal edo ezkutukoei eragiten badie, eta hori legez arautu beharko da.

Esparru berriaren arkitekturak, beraz, gobernarien eta gobernatuen arteko harremanaren betiko ikuspegia alde batera utzi eta herritarrekin harremanak izateko modu berri bat


apartado reconocerá, al menos, el derecho a la participación ciudadana en los asuntos públicos tanto por medio de la elección de sus representantes políticos, como directamente mediante su intervención en las consultas o referendums que las instituciones vascas pudieran realizar en ejercicio de las potestades que les reconoce el nuevo estatus político.

Otra forma de intervención directa de la ciudadanía se canalizará mediante su participación a través de los mecanismos que se habiliten por los poderes vascos en cumplimiento de los principios de transparencia y buena gobernanza.

Se reconocerá asimismo el derecho de petición individual y colectiva, debiendo determinarse en ulterior ley la forma y los efectos de la misma, y la iniciativa legislativa popular, igualmente, integra una de las principales vías de participación ciudadana en los asuntos públicos.

En todos los procedimientos de elaboración de disposiciones administrativas se dará audiencia a la ciudadanía y a las asociaciones u organizaciones que pudieran resultar afectadas; se garantizará, asimismo, la audiencia al interesado en todos los procedimientos administrativos, y se reconocerá el derecho al acceso a los registros y archivos administrativos salvo que afecte a datos de carácter personal o reservados, debiendo regularse mediante ley.

La arquitectura del nuevo marco debe, en consecuencia, partir de una concepción que, superando la clásica visión de la relación entre gobernantes y gobernados, establezca





ezarri behar du; horretarako, herritarrei interes orokorreko gaietan erabakiak hartzeko ahalmena eman behar die.

Premia hori aintzat hartuta, erakunde eta ordezkari publikoen lan-metodoak kontsulta, elkarrizketa, negoziazioa, akordioa, kudeaketa eraginkorra eta zuzenbide-estatu demokratikoaren errespetua izan behar ditu oinarri.

una nueva forma de relacionarse con la ciudadanía, dotando a esta última de potestad para decidir sobre temas de interés general.

Con esa premisa, tanto las instituciones como las y los representantes públicos se deben a un método de trabajo sustentado en la consulta, el diálogo, la negociación, el acuerdo, la eficiencia en la gestión y el respeto al estado de derecho democrático.

V. OINARRIA – EKONOMIA-, FINANTZA- ETA ZERGA-ARAUBIDEA. SJP-KO OGASUNA ETA ONDAREA. GIZARTE- ETA LAN-POLITIKAK ETA GIZARTE-BABESEKO POLITIKAK

Euskal autogobernuaren eguneratze eta sakontzeak eragina izango du ekonomia-, finantza- eta zerga-araubidean ere.

Esparru sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak

Euskal erakundeek, dagozkien eskumenen esparruan, lurraldeko ekonomia, ogasuna, ondarea eta horiekin zerikusia duten arlo guztiak antolatzeko, planifikatzeko, bultzatzeko eta garatzea sustatzeko ahalmena izango dute.

Derrigorrezkoa da testu berrian gai horiek bideratzeko printzipioak jasotzea eta, horrez gain, klima-aldaketaren erronka sozial, ekonomiko eta ingurumenekoei lehenatasuna ematea, egungo ereduak geroko belaunaldiak estutasunean jar ez ditzan.

BASE V – RÉGIMEN ECONÓMICO, FINANCIERO Y TRIBUTARIO-FISCAL. HACIENDA Y PATRIMONIO DEL SJP. POLÍTICAS SOCIO-LABORALES Y DE PROTECCIÓN SOCIAL

La actualización y profundización del autogobierno vasco incidirá, asimismo, en el régimen económico, financiero y fiscal.

Principios rectores del marco social y económico

Las instituciones vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, serán competentes en la ordenación, planificación, promoción y fomento del desarrollo de la actividad económica del territorio, su hacienda y su patrimonio y sobre el resto de materias conexas.

Es imprescindible que el nuevo texto recoja los principios orientadores de las citadas materias, asumiendo también como prioritario el reto social, económico y medioambiental del cambio climático, de forma que el modelo presente no comprometa a generaciones futuras.





Horretarako, botere publikoek, agente sozial eta ekonomikoekin batera, berezko eremu edo esparru sozial bat sustatuko dute, aurrerapen etikoa bultzatzeko, printzipio hauek oinarritzat hartuta: kohesioa, elkartasuna, justizia soziala, aukera-berdintasuna eta aurrerapen sozial, kultural eta ekonomikoa.

Printzipio hauek gidatuko dituzte euskal gizartea eta ekonomia: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna; pertsonaren ongizatea eta bizi-kalitatea; justizia soziala eta pertsona behartsuenenganako elkartasuna; hezkuntza, osasun eta gizarte-babeseko sistema erabiltzeko bermea; aberastasunaren banaketa bidezkoa; enplegu nahikoa eta kalitatezkoa sortzea; lurralde- eta gizarte-oreka eta -kohesioa; garapen iraunkorra; gizarte zibilaren aniztasuna eta partaidetza demokratikoa errespetatzea; eta enpresa-askatasuna.

Arlo honetan ezinbestekoa da, halaber, estatus berriak erakunde sozial, sindikal eta profesionalen eta euskal herritarren partaidetza sustatzeak duen garrantzia jasotzea. Horretarako, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua sortu beharra dago, agente ekonomiko eta sozialekin elkarlanean.

Printzipioak: ekonomia-, finantza- eta zerga-harremanak, ogasuna eta ondarea

Titulu honen oinarria Kontzertu Ekonomikoa –euskal autogobernuaren funtsezko euskarria– zaintzeko eta bere berezitasunari eusteko apustua izango da. Aintzat hartuko da, halaber, testu berrian jasotako estatuarekiko harremanen eredu berria. Kontzertu Ekonomikoaren instituzionaltasuna errespetatzea ziurtatzea funtsezkoa da. Premia horiek kontuan hartuta, testu artikulatua arautzeko


A tal fin los poderes públicos, junto con los agentes sociales y económicos, promoverán un espacio o marco social propio, basado en los principios de cohesión, solidaridad, justicia social, igualdad de oportunidades, progreso socio-cultural y económico, que impulsen un progreso ético.

Serán principios rectores del ámbito social y económico vasco: la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres, el bienestar y la calidad de vida de la persona, la justicia social y la solidaridad con las personas más desfavorecidas, la garantía de acceso a un sistema educativo, sanitario y de protección social, el reparto de la riqueza equitativo, la creación de empleo suficiente y de calidad, el equilibrio y la cohesión territorial y social, el desarrollo sostenible, el respeto a la pluralidad y la participación democrática de la sociedad civil, y la libertad de empresa.

En este ámbito también es imprescindible que el nuevo estatus recoja la importancia de promover la participación de las organizaciones sociales, sindicales o profesionales y de la ciudadanía vasca en estas materias. Para ello, es necesaria la creación de un Consejo Económico y Social con la participación de los agentes económicos y sociales.

Principios de relación económica, financiera, tributario-fiscal, hacienda y patrimonio

La articulación del presente título se abordará desde la apuesta por la preservación del Concierto Económico – pilar fundamental del autogobierno vasco– y el mantenimiento de su singularidad, atendiendo, igualmente, al nuevo modelo relacional con el Estado incorporado al nuevo texto. Resulta fundamental que se asegure el respeto a la institucionalidad del Concierto Económico. Bajo esas premisas,





oinarrietan honako hau ezarriko da:

- SJPk ahalmena izango du bere ekonomia- eta zerga-politika antolatzeke, planifikatzeko eta ezartzeko eta estatus berrian jasotakoaren arabera dituen gainerako eskubide eta eskumenak erabiltzeko, ekonomia erabat garatzeko arlo estrategikoetako eskumenak barne; arlo estrategiko horiek dira, besteak beste, nekazaritza-politika, industria-politika, energia-politika, azpiegiturak eta telekomunikazio-sektorea.
- Aldatu egingo da Gernikako Estatutuaren 41. artikuluko azalpena; hau da, argi utziko da kontzertu ekonomikoaren foru-sistema tradizionalak ekonomiaren arlo guztietan jardungo duela estatuarekiko harremanetan; finantza-, ekonomia- eta zerga-arloetan, hain zuzen ere. Aurrekoarekin bat, Euskal Herrian estatuko legeria aplikatzeko araubide bat ezarriko da, herri-ogasuneko berezko gaiak "itunpeko gai" moduan osatuko eta bilduko dituena. Era horretan, berezko euskal legeriak araubide juridikoko eta administrazio-prozedurako azpigaietarako esparrua prestatu eta zabaldu ahal izango du, kontratu publikoen legeria barne. Orobat, gai hauek SJPren eskumenekoak izango dira soil-soilik eta dagozkien funtsezko alderdiak arautuko dira: aurrekontu-araubidea; kontabilitatea; gastu publikoan esku hartzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko araubidea; diru-laguntzak; ondarea; altxortegia; zorrak; abalak eta bermeak.
- Halaber, azpimarratuko da Kontzertu

las bases que se seguirán para la regulación del texto articulado incluirán las siguientes previsiones:

- El SJP tendrá potestad para ordenar, planificar y establecer su propia política económica y fiscal y de ejercer las demás facultades y competencias en los términos recogidos en el nuevo estatus, incluyendo competencias en ámbitos estratégicos para un desarrollo económico integral, tales como política agraria, política industrial, política energética, infraestructuras y sector de telecomunicaciones.
- Se modificará la expresión literal del artículo 41 del Estatuto de Gernika, dejando claro que el sistema foral tradicional del concierto económico operará sobre las relaciones con el Estado en todos y cada uno de los órdenes de naturaleza económica: el financiero, el económico y el fiscal. En coherencia con ello, se establecerá un régimen sobre la aplicabilidad en el País Vasco de la legislación estatal que complemente y aglutine el conjunto de materias propias de la Hacienda general como "materia concertada", permitiendo así habilitar y ampliar un amplio y claro espacio para la legislación vasca, propia y exclusiva, en submaterias afines al régimen jurídico y procedimiento administrativo, incluida la legislación de contratos públicos. Del mismo modo, serán competencia exclusiva del SJP y se regularán los aspectos sustantivos de las siguientes materias: régimen presupuestario, contabilidad, régimen de intervención, fiscalización y control del gasto público, subvenciones, patrimonio, tesorería, endeudamiento, avales y garantías.
- Igualmente se deberá dejar patente





Ekonomikoa "unibertso itxi bat" dela, "estatuaren eskumenekoak baino ez diren zergak eta foru-eskumeneko zergak arautzen dituen, itunpekoak izan ala ez". SJPrek eskumena izango da, halaber, zerga- eta finantza-arloko zerga-kontu prozesal eta orokorrak arautzea.

- Euskal erakundeek –dagozkien eskumenen esparruan– finantza- eta zerga-autonomia izango dute eta horixe jasoko da testu artikulatuan. SJP arduratuko da zerga-sistema antolatzeaz; sistema horrek SJPko zerga-sistemako zergak biltzeko, kudeatzeko, likidatzeko eta ikuskatzeko mekanismoak izango ditu. Euskal erakundeek, zerga-ahalmena erabiltzen dutenean, esparru sozial eta ekonomikoa gidatzen duten printzipioez gain, honako printzipio hauek ere bete behar dituzte: berdintasuna, progresibitatea, gaitasun ekonomikoa eta finantza-nahikotasuna.
 - Euskal zerga-politikek printzipio gidari hauek izango dituzte: jarduera ekonomikoa sustatzea, ongizate-estatua ziurtatzeko baliabide nahikoa izatea, zerga-sisteman justizia-printzipioa ziurtatzea, zerga-sisteman progresibitatea handitzea, genero-berdintasuna ziurtatzea eta ingurumen-jasangarritasuna.
 - Berme juridiko eraginkorrak ezarriko dira, ziurtatzeko estatuak behar den guztietan negoziatuko duela Kontzertu Ekonomikoko gai osoen gaineko bilakaera-hitzarmen bat, benetako alde bikotasuneko sistemak ziurtatzeko eta ezartzeko, gelditasunaren estrategiak beti estatuari mesede egin ez diezaion.
 - SJPko erakundeek euskal finantza-
- Las instituciones vascas –en el ámbito de sus competencias– gozarán de autonomía financiera y tributaria, y así se recogerá en el texto articulado. El SJP se responsabilizará de la articulación del sistema tributario que incluirá los mecanismos para la recaudación, gestión, liquidación e inspección de los tributos que integran el sistema tributario del SJP. El ejercicio de la potestad tributaria por parte de las instituciones vascas deberá adecuarse a los principios rectores del marco social y económico, junto a los principios de igualdad, progresividad, capacidad económica y suficiencia financiera.
 - Serán principios orientadores de las políticas fiscales vascas: el impulso a la actividad económica, la suficiencia de recursos para garantizar el estado de bienestar, la garantía del principio de justicia en el sistema impositivo, el incremento de la progresividad del sistema fiscal, la igualdad de género y la sostenibilidad medioambiental.
 - Se establecerán las garantías jurídicas eficaces que aseguren que el Estado negociará cada vez que sea necesario un acuerdo evolutivo de aspectos completos del Concierto Económico, para asegurar e implementar sistemas de bilateralidad efectiva, de forma que la estrategia de la inacción no beneficie siempre al Estado.
 - Las instituciones del SJP asumirán





sistema arautzeko eta kontrolatzeko eskumenak hartuko dituzte. Orobat, kreditua eta aseguruak kontrolatuko dituzte beren lurraldean, Europako erakunde eskudunekin koordinatuta.

- Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua gure lurraldean aplikatzeko araubide bat prestatuko da, hala Kontzertu Ekonomikoko sistemarekin nola estatuarekiko harreman-esparru politiko berriarekin bat datorrena, estatus berriko berezitasunean eta alde bikotasunean oinarritua, gure finantza-autonomia ez mugatu ahal izateko. Aurrekontu-politika testu artikulatuan ezarritako organo alde biko eta parekideen bitartez koordinatu eta bateratuko dute SJPk eta Espainiako estatuak. Horren haritik, berme juridiko eraginkorrak ezarriko dira, ziurtatzeko estatuak eta SJPk aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko gaiak adostu egingo dituztela eta estatuak ezingo dituela bere aldetik ezarri defizitaren mugak, zorra eta gastuaren araua.
- SJPk parte hartuko du ECOFINen eta bere eskumeneko zerga-gaiekin zerikusia duten lan-taldeetan. Izan ere, garrantzitsua da Europarekin zuzenean elkarrizketan aritzea, zerga-informazioa trukatzeko gaiak kudeatzeko eta europar politikak eta egitura-funtsak esleitzeko eta erabiltzeko politikak lantzeko bideak ezartzeko. Orobat, ziurtatu beharko da SJPk titulu honetako ahalmen eta eskumenen erabilera eragina duten itun eta hitzarmenetan parte hartzea.

competencias para la regulación y control del sistema financiero vasco. Asimismo, ejecutará en su territorio, en coordinación con las instituciones europeas competentes, el control del crédito y los seguros.

- Se preverá un régimen de aplicación del artículo 135 CE sobre nuestro territorio que sea concordante tanto con el sistema de Concerto Económico como con el nuevo marco político relacional con el Estado basado en la singularidad y bilateralidad contenido en el nuevo estatus, de modo que nuestra autonomía financiera no pueda resultar constreñida. La coordinación y armonización de la política presupuestaria entre el SJP y el Estado español se llevará a cabo mediante órganos bilaterales y de composición paritaria previstos en el articulado, estableciéndose garantías jurídicas eficaces que aseguren que el Estado y el SJP pactarán los aspectos relativos a la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, sin que el Estado pueda establecer unilateralmente los límites de déficit, deuda y regla de gasto.
- El SJP tendrá participación en el ECOFIN y en los grupos de trabajo relacionados con las cuestiones tributarias de su competencia, al resultar importante contar con interlocución propia con Europa para la gestión de asuntos de intercambio de información fiscal, establecimiento de cauces para el desarrollo de políticas europeas y de asignación y uso de los fondos estructurales. Asimismo, se deberá garantizar la participación del SJP en los tratados y convenios que incidan en el ejercicio de las facultades y competencias de este título.





- Egitura-funtsak SJPk kudeatuko ditu bere eskuduntzako gaietan.
- SJPko aurrekontu orokorrei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu orokorra prestatuko du eta Legebiltzarrak aztertu, zuzendu eta onartu egingo du. Aurrekontu orokorra urtebetekoa izango da, eta barnean hartuko ditu sektore publikoko sarrera eta gastu guztiak. Gastua gizarte-onurako eta eraginkortasuneko irizpideak oinarritzat hartuta eta genero-ikuspegia eta herritarren partaidetza kontuan hartuta zehaztuko da. Era berean, estatus berriak ziurtatu behar du gastu publikoaren eraginkortasuna eta efizientzia behar bezala kontrola eta ebalua dadila.
- Finantza-arloa arautzeko eskumenaz baliatuz, SJPk egoki irizitako finantza-eta kreditu-erakunde publikoak sortuko ditu, interes publikoei erantzuteko.
- SJPk Ogasun Nagusia ere testu artikulatuan arautuko da, eta bere eskumeneko eskubide eta betebeharrak izango ditu.
- SJPk erakundeetako aurrekontuek genero-ikuspegia eduki behar dute; derrigorrezkoa izango da eta horrelaxe jasoko da estatus politiko berriaren testu artikulatuan.
- Euskal erakundeei zor publikoa jaulkitzeko eta inbertsio-gastuak finantzatzeko kredituak egiteko ahalmena aintzatetsiko zaie. Zor eta kreditu horiek funts publikotzat hartuko dira, eta, ondorioz, estatuko zor
- La gestión de los fondos estructurales corresponderá al SJP en las materias de su competencia.
- En lo que respecta a los Presupuestos Generales del SJP, el Parlamento examinará, enmendará y aprobará el Presupuesto General elaborado por el Gobierno Vasco, que tendrá carácter anual e incluirá la totalidad de los ingresos y gastos de su sector público. La orientación del gasto deberá fundamentarse en criterios de utilidad social y eficiencia, incorporando la perspectiva de género y una dimensión de participación ciudadana. Del mismo modo, el nuevo estatus deberá garantizar una efectiva fiscalización y evaluación de la eficacia y eficiencia del gasto público.
- En el ejercicio de su potestad de regulación financiera, el SJP creará las entidades financieras y crediticias de titularidad pública que resulten oportunas cuyo objetivo será servir a los intereses públicos.
- La Hacienda General del SJP será también objeto de regulación en el texto articulado. Estará constituida por los derechos y obligaciones de naturaleza económica de su titularidad.
- La preceptiva incorporación de la perspectiva de género a los presupuestos de las instituciones que integran el SJP será obligatoria y así se recogerá en el articulado del nuevo estatus político.
- Se reconocerá a las instituciones vascas la facultad de emisión de deuda pública o de contraer créditos para financiar gastos de inversión, que tendrán la consideración de fondos públicos y, consecuentemente,





- publikoaren abantailak eta kondizioak izango dituzte. Gai hori Eusko Legebiltzarraren lege baten bitartez arautu eta landuko da.
- Testu artikulatuan jasoko den beste gai batek ondarearekin du zerikusia. SJPk izango du eskumena, lurralde osoan, bere ondarearen parte diren eskubide eta ondasun guztiak, ukigarriak eta ukiezinak, identifikatzeko, zaintzeko, babesteko eta kudeatzeko.
 - Euskal erakundeen ondarea beren eskumenei atxikitako eskubide eta ondasun guztiek osatuko dute, eta ondarearen jabetza eta erabilera Eusko Legebiltzarrak arautuko du legez. Jabari publikoko ondasunak, betiere, enbargaezinak, besterenezinak eta preskribaezinak izango dira. Ondasun eta eskubide horien jabetza eta erabilera ezartzeko irizpideak Eusko Legebiltzarrak arautuko ditu.
 - Testu artikulatuak, toki-erakundeak SJPko erakunde-egituraren parte direla aintzatestearekin bat, berariaz jasoko du toki-ogasunak printzipio hauek gidatuko dituztela: baliabide nahikoa izatea, zuzentasuna, autonomia eta zerga-erantzukizuna.
 - Gainera, testu artikulatuak sarrera eta gastuen arloko egungo lankidetzak eta koordinazio-tresnak jasoko ditu, SJPko hiru erakunde-mailak aintzat hartuta: erkideak, foralak eta tokikoak.
 - **Herri Kontuen Euskal Epaitegia**
- gozarán de los beneficios y condiciones de la deuda pública del Estado. La regulación y desarrollo de esta materia se hará mediante ley del Parlamento Vasco.
- Otro de los aspectos que serán incorporados al texto articulado tiene que ver con su patrimonio. Será competencia del SJP la identificación, conservación, salvaguarda y gestión de todos los derechos y bienes que forman parte del conjunto de su patrimonio, tanto material como inmaterial, en todo el territorio.
 - El patrimonio de las instituciones vascas estará conformado por cuantos derechos y bienes estén afectos a sus competencias, y la propiedad y uso del mismo será regulada mediante ley del Parlamento Vasco, siendo los bienes de dominio público, en todo caso, inembargables, inalienables e imprescriptibles. Los criterios para establecer la propiedad y el uso de los citados bienes y derechos serán regulados por el Parlamento Vasco.
 - En concordancia con el reconocimiento que se hace en el nuevo texto a las instituciones locales como parte integrante del entramado institucional del SJP, el texto articulado recogerá, específicamente, que las haciendas locales se regirán por los principios de suficiencia de recursos, equidad, autonomía y responsabilidad fiscal.
 - El texto articulado incorporará, además, los instrumentos de colaboración y coordinación existentes en materia de ingresos y gastos, integrando los tres ámbitos institucionales del SJP: comunes, forales y locales.
 - **El Tribunal Vasco de Cuentas**





izango da euskal sektore publikoko ekonomia- eta finantza-jarduerak fiskalizatuko dituen organo nagusia. Epaitegiko kideak Eusko Legebiltzarrak izendatuko ditu. Organo horren zereginetako batzuk izango dira kontularitzako erantzukizuna epaitzea, batetik; eta ekonomia- eta finantza-jarduerak eraginkortasun, gardentasun, legezketasun eta gobernantza oneko irizpideak betetzen dituztela zaintzea, bestetik.

Gizarte-, lan- eta enplegu-politikak

SJPK –eskumenei buruzko tituluari adierazi bezala– euskal erakundeek sortutako lan-harremanetako eta gizarte-babes eta -segurantzako sistemekin zerikusia duten eskumen esklusiboak izango ditu. Hori ez da Espainiako estatuan indarrean dagoen sistemarekin solidario izateko eta elkarlanean aritzeko mekanismoen kaltetan izango.

Sustatu nahi ditugun lan-harreman motek (kalitatezko enplegua, eskubideekin, gizarte-agenteen partaidetzarekin, parekidea...) bat etorri behar dute gizarte- eta lan-esparruko printzipio gidariekin, eta helburu berberak izan behar dituzte.

Hortaz, SJPK bere gizarte- eta lan-eremua ezarri eta arautu ahal izango du, gutxienezko oinarritzat Europar Batasunean eta estatuan langileentzat eta enpresaburuentzat ezarritako funtsezko eskubide eta betebeharrak hartuta.

Horretarako, SJPK eskumen legegile eta betearazlea izango du lan- eta enplegu-arloan eta laneko arriskuen inguruko prestakuntzan eta prebentzioan. Eskumen horiek barne hartuko dituzte, gainera, ikuskatzeko zeregina eta sektore

Públicas será el máximo órgano fiscalizador de las actividades económico-financieras del sector público vasco. La designación de sus miembros corresponderá al Parlamento Vasco. Entre sus funciones, corresponderá a este órgano el enjuiciamiento de la responsabilidad contable, y supervisar que las actividades tanto económicas como financieras se ajusten a criterios de eficacia, transparencia, legalidad y buen gobierno.

Políticas socio-laborales y de empleo

El SJP –tal y como ha quedado expuesto en el título de las competencias– contará con facultades exclusivas relacionadas con los sistemas de relaciones laborales y de protección o seguridad social desarrolladas por las instituciones vascas, sin menoscabo de los mecanismos de solidaridad y de cooperación con el sistema vigente en el Estado español.

El tipo de relaciones laborales que queremos impulsar (empleo de calidad, con derechos, participado por los agentes sociales, paritario...) debe ser coherente con los principios rectores del marco socio-laboral y compartir unos mismos objetivos.

Consiguientemente, el SJP podrá establecer y regular su propio ámbito socio-laboral, considerando como base mínima los derechos y obligaciones esenciales de las trabajadoras y trabajadores y del empresariado establecidos tanto en la UE como en el ámbito estatal.

Para ello el SJP gozará de competencia legislativa y de ejecución en materia laboral y de empleo y en formación y prevención de riesgos laborales, y sus facultades competenciales incluirán, además, la función de





publikoan enpleguaren euskal lege bat arautzeko ahalmena.

Orobat, SJPrri emandako eskumenek barne hartuko dute bere lurraldean erakunde sindikalen eta enpresa-erakundeen ordezkari arautzeko ahalmena. Horrez gain, SJPk negoziazio kolektiboaren araubidea eta efikazia zehaztu ahal izango ditu, sindikatu eta enpresetako agenteek itundutakoa betetzeko. EAEk negoziazio kolektiboko esparru autonomoa izango du eta estatukoari gailenduko zaio. Alde horretatik, berezko negoziazio-eskala bat ezartzea arautuko du, maila hauetan: enpresa, sektorea, lurraldea eta erkidegoa.

Era berean, SJPk honako hauek sustatzeko ahalmena izango du:

- Enplegu-zerbitzu publiko bat, enpleguaren arloko politika aktibo eta pasiboak kudeatzeko.
- Laneko osasunaren eskubidea ziurtatzeko sistema publiko bat (Osalan berritua).
- Laneko agintaritza eta ikuskatzailetza.

Lan Harremanen Kontseiluak, gizarte-eta lan-arloko aholku-tresnaz gain, organo erabakigarria izan behar du gizarte-elkarrizketaren ezarpenean, agente sozialek gizarte- eta lan-arloko gaien buruzko konfederazio arteko akordioak egin ditzaten sustatzeko eta errazteko.

Gizarte-babeseko politikak

Estatus politiko berriak Gernikako Estatutuko aurreikuspenak aztertu eta

inspección, así como la facultad para regular una ley vasca de empleo en el sector público.

Igualmente, las potestades competenciales que se atribuyan al SJP alcanzarán y comprenderán la facultad de regular la representatividad de las organizaciones sindicales y de las organizaciones empresariales, todo ello dentro de su ámbito territorial, así como el régimen y eficacia de la negociación colectiva dando eficacia a lo pactado entre los agentes sindicales y empresariales. La CAPV conformará un marco autónomo de negociación colectiva prevalente sobre el ámbito estatal, regulando el establecimiento de una escala de negociación propia a nivel de empresa, sectorial-territorial y autonómica, en su caso.


Asimismo, corresponderá al SJP la facultad de promover:

- Un servicio público de empleo para gestionar las políticas activas y las políticas pasivas de empleo.
- Un sistema público para garantizar el derecho a la salud laboral (Osalan renovado).
- Autoridad laboral e inspección de trabajo.

El Consejo de Relaciones Laborales, además de instrumento consultivo en materia socio-laboral, debe ser un órgano decisivo en la implementación de un diálogo social que impulse y facilite acuerdos interconfederales entre los agentes sociales en torno a contenidos socio-laborales.

Políticas de protección social

El nuevo estatus político profundizará y ampliará las previsiones contenidas en el





handituko ditu, eta gai hori estatuarekiko harreman berezi eta aldebikoaren eredu berriaren arabera egokituko du. Azaldutakoari jarraikiz, euskal botere publikoei eskumen eta ahalmen eksklusiboak emango dizkie, gizarte-babeseko berezko sistema bat eratzeko, gai hauek barne hartuta, besteak beste: diru-sarrerak bermatzea, familia, etxebizitza eta haurrak eta nerabeak babestea.

VI. OINARRIA – HERRITARREN ESKUBIDEEI ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEEI BURUZKO TITULUAK

1. Eskubide sozialak eta herritarren eskubideak, autogobernuaren ardatzak

Testu artikulatu berriak funtsezko eskubide eta askatasun indibidual eta kolektiboak aintzatetsiko ditu, herri-subiranotasunaren eta, beraz, euskal herritarren berdintasunaren eta kohesioaren adierazpen baitira. Hobeto bizitzeko eta bizikidetzak hobetzeko akordio politiko berri bat proposatu dugu, euskal gizarte moderno, askotariko, berdinzale eta kohesionatua eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izateko. Gizarte horrek oinarritzko eskubide eta betebeharren gaineko konpromisoa hartuko du, eta emakumeak eta gizonak baldintza beretan biziko dira eta hartuko dituzte erabakiak.

Euskal nortasuna ikuspegi barneratzailearekin eraikitzen da: gizarte-edukiak autogobernuaren erdigunean jartzen ditu, hau da, herri-proiektuaren egituraren ardatz dira. Euskal herritarrak pluralak dira, askotarikoak, eta gehiengoa solidarioa da eta justizia sozialarekin eta berdintasunarekin engaiatuta dago. Horren erakusgarri dira herritarren elkarte-sare sendoa eta mobilizatzeko eta politikan

Estatuto de Gernika y adaptará esta materia al nuevo modelo de relación singular y bilateral con el Estado. En virtud de lo expuesto, se atribuirá a los poderes públicos vascos competencias y facultades exclusivas, entendidas como capacidad normativa, para poder conformar un sistema propio de protección social, incluyendo los sistemas de garantía de ingresos, familia, vivienda, protección de la infancia y la adolescencia, etc.

BASE VI – DERECHOS DE CIUDADANÍA Y DE DERECHOS DE LAS MUJERES

1. Derechos sociales y de ciudadanía como núcleo del autogobierno

El nuevo texto articulado reconocerá los derechos y libertades fundamentales, individuales y colectivas que son expresión de la soberanía popular y, por tanto, de la igualdad y cohesión de la ciudadanía vasca. Planteamos un nuevo acuerdo político para vivir y convivir mejor, que nos permita avanzar en la construcción de una sociedad vasca moderna, plural, cohesionada, formada por mujeres y hombres libres que viven, conviven y deciden en igualdad, responsable de su futuro y comprometida con los derechos y deberes fundamentales.

La identidad vasca se construye desde una visión incluyente, que sitúa los contenidos sociales en el centro del autogobierno, es decir, como eje vertebrador del proyecto país. La ciudadanía vasca es plural, es diversa, y mayoritariamente también es solidaria y está comprometida con la justicia social y con la igualdad. Así queda acreditado con su fuerte tejido asociativo y en su capacidad





eragiteko duten gaitasuna. Haiak sustatu dituzte, izan ere, euskal erakundeek lantzen dituzten politika sozial, kultural eta linguistikoen elementu bikain eta berritzaileenak.

Agerikoa da euskal herritarren kezka nagusiak giza eskubideak, eskubide sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak eta ingurumen-eskubideak direla, besteak beste. Eta hori da etorkizuneko gure oinarritzko arauak kezken eta zereginen ardatzean gizarte-gaiak jartzeko arrazoi nagusi eta garrantzitsuena; herritarrek izan behar dute protagonista, erkidegoa aktiboa baita. Gauzak horrela, gure autogobernua sakontzearen eta eguneratzearen helburua da, halaber, gure erkidego politikoaren gizarte-bokazioa indartzea.

Alde horretatik, legezko testu berriak aintzat hartu beharko luke eskubide eta askatasunen gaineko doktrina-bilakaera berria, eta funtsezko legean sartu beharko lituzke gizarte bidezkoagoa eraiki ahal izatea ziurtatzeko oinarri eta bermeak.

2. Eskubideei buruzko bi titulu: bata herritarren eskubideena eta bestea emakumeen eskubideena

Indarrean dagoen 1979ko testuan, 9. artikulua bakarrik aipatzen ditu, labur-labur, herritarren eskubideak. Etorkizuneko testuak artikulua hori landu behar du, bi titulu luzetan, pertsonen bizitzaren arlo eta maila guztietako eskubide guzti-guztiak zehatz-mehatz jasotzeko.

Eskubide horiek bigarren eta hirugarren belaunaldiko giza eskubideetan izango dute eragina, bereziki. Testuak asmo handikoa, aurrerakoia eta errealista izan

de movilización e incidencia política, que ha impulsado muchos de los elementos más sobresalientes e innovadores de las políticas sociales, culturales, lingüísticas... que desarrollan las instituciones vascas.


Es una evidencia que la ciudadanía vasca ubica en el centro de sus preocupaciones los derechos humanos, sociales, económicos, políticos, culturales, ambientales... Y esa es la primera y mayor razón por la que nuestra futura norma básica también debe poner en el centro de su preocupación y ocupación las cuestiones de índole social, donde el protagonismo recaiga en la ciudadanía, al tratarse de una comunidad ciudadana activa. Así, el objetivo de la profundización y actualización de nuestro autogobierno está, también, en el fortalecimiento de la vocación social de nuestra comunidad política.

En este sentido, el nuevo texto legal debería atender a la última evolución doctrinal en el ámbito de los derechos y libertades, integrando en su ley fundamental los fundamentos y garantías que aseguren la construcción de una sociedad más justa.

2. Dos títulos de derechos: uno de ciudadanía y otro específico de derechos de las mujeres

En el actual texto de 1979 sólo el artículo 9 hace una breve mención a los derechos de la ciudadanía. El futuro texto del que nos dotemos debe desarrollar este artículo, introduciendo sendos títulos de amplia extensión que recojan de forma detallada todos y cada uno de los derechos en todos los ámbitos y esferas de la vida de las personas.

Estos derechos incidirán especialmente en los derechos humanos de segunda y tercera generación. Su redacción deberá ser ambiciosa, progresista, realista y





behar du, gure herrialdeko erronka eta desafioen arabera moldatua. Funtsean, asmoa da katalogo oso eta aurreratu bat sortzea, euskal herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharrak indibidual eta kolektiboen gutun bat.

Beraz, helburua da, batetik, banako eskubideen eta eskubide kolektiboen zerrenda luze bat aintzatestea, ez bakarrik eskubide zibil eta politikoena, baita eskubide sozial, kultural eta ingurumenekoena ere; eta, bestetik, eskubide horien edukia giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen estandar aurreratuenen arabera zehaztea.

Kontuan hartu behar dira errealitate berriak, bereziki zaindu beharreko babesgabetasun-egoerak, hala nola kalitatezko enplegua lortzea, teknologia berrietarako sarbidea, datuen babesa, mendekotasun egoeretako autonomia personala, adinduentzako eta adingabeentzako bermeak, familien babesa eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa.

Euskal gizarteak berak onartu du premiazkoa dela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna ziurtatzea. Gure erakundeen lehentasunezko agindu bat da, irrika politiko eta sozial geroraezina, emakumeek emakume izate hutsagatik bizi duten zuzeneko indarkeria estruktural eta kultural askotarikoan oinarrituriko diskriminazio eta desparekotasun estrukturalak errotik kentzeko.

Horren haritik, erronka ez da aintzatespen formal hutsarekin etsitzea. Helburua da jauzi handi bat ematea, hau da, gure oinarritzko arauan benetako berdintasuna, emakumeen eskubideak eta indarkeria matxistarik gabeko gizartean bizitzeko eskubidea sartzea, gure bizikidetzaren sortze-balio eta oinarritzko euskarri gisa. Etorbizuneko legezko testuan

adaptada a los retos y desafíos que tiene nuestro país. En definitiva, se trata de incorporar todo un catálogo completo y avanzado, una carta de derechos y deberes fundamentales, tanto los individuales como los colectivos, de la ciudadanía vasca.

Por lo tanto, el objetivo es el reconocimiento individual y colectivo de un vasto elenco de derechos, no sólo civiles y políticos, sino también sociales, culturales y ambientales. Y, al tiempo, la delimitación de su contenido a partir de los estándares más avanzados del Derecho internacional de los derechos humanos.

Es preciso tener en cuenta las nuevas realidades, particularmente aquellas de desprotección que deben ser protegidas, como el acceso al empleo de calidad y a las nuevas tecnologías, la protección de datos, la autonomía personal ante situaciones de dependencia, garantías para las personas mayores y menores, la protección de las familias, de las personas consumidoras y usuarias...

La propia sociedad vasca ha asumido que el objetivo de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres es una necesidad, un mandato prioritario de nuestras instituciones, un anhelo político y social impostergable para terminar con una realidad estructural de discriminación y desigualdad que se asienta sobre múltiples formas de violencia directa, estructural y cultural contra las mujeres por el mero hecho de ser mujeres.

En este sentido, el reto no es conformarse con un mero reconocimiento formal. El objetivo es directamente dar ese gran salto que significa que nuestra norma fundamental integre la igualdad real y efectiva, los derechos de las mujeres y el derecho a una sociedad libre de violencias machistas como valores fundacionales y pilares básicos de nuestra convivencia. En





leku nabarmena eduki behar du, eta, horretarako, ezinbestekoa da berdintasunari eta emakumeen eskubideei buruzko titulu espezifiko bat moldatzea eta lege berriko titulu, atal, kapitulu eta artikulua guztietan genero-ikuspegia zeharka sartzea.

3. Eskubideen gaineko ikuspegi berritzailea

3.1. Eskubideak, bermeak eta erantzukizunak

Autogobernu osoa zeharkatu behar duen ikuspegi berriak hiru kontzeptu hartu behar ditu aintzat: batetik, eskubideak; bestetik, bermeak, hau da, euskal erakunde publikoek zer konpromiso hartu behar dituzten herritarrek beren eskubideak benetan eta eraginkorki erabili ahal izan ditzaten; eta, azkenik, herritarren erantzukizunak, eskubide horiek erabili ahal izateko.

Botere publikoek betekizunak hartu beharko dituzte beren gain, herritarrek beren eskubide eta betebeharrak erabiltzea ziurtatzeko. Betebehar horien artean dira, adibidez, besteen osasuna errespetatzea, berdintasuna, partaidetza, ingurumena errespetatzea eta zergak ordainduz guztien ongia zaintzen laguntzea.

3.2. Gizarte-eskubideak blindatzea

Gure autogobernuaren berritzeak eta sakontzeak mezu hau bidali behar dio seguru sentitzen ez den euskal herritarren gehiengoari: Euskadin inor ez da atzean geldituko. Erakundeek berriz asmatu behar dituzte ezartzen dituzten mekanismo, tresna eta politikak, herritarren ongizatea, bizi-proiektuen garapena eta oparotasuna ziurtatzeko. Gure

el futuro texto legal debe tener un lugar destacado, y eso pasa necesariamente por introducir un título específico de igualdad y derechos de las mujeres y por tener una perspectiva de género transversalizada en todos y cada uno de los títulos, secciones, capítulos y artículos de la nueva ley.

3. Enfoque innovador de derechos


3.1. Derechos, garantías y responsabilidades

En el nuevo enfoque que debe permear el conjunto del autogobierno se deben integrar tres conceptos: los derechos; las garantías, que son los compromisos que deben adquirir las instituciones públicas vascas para que la ciudadanía pueda ejercer de forma real y efectiva sus derechos, y las responsabilidades de la ciudadanía para que puedan ejercerse los primeros.

Los poderes públicos deberán asumir obligaciones para asegurar que la ciudadanía ejerza sus derechos y deberes. Deberes como, por ejemplo, el respeto a la salud ajena, a la igualdad, a la propia participación, el respeto del medio ambiente, o contribuir al bien común pagando impuestos.

3.2. El blindaje de los derechos sociales

La renovación y profundización de nuestro autogobierno tiene que enviar un mensaje a esa mayoría de vascos y vascas que sienten inseguridad: en Euskadi nadie se va a quedar atrás. Las instituciones tienen el deber de reinventar los mecanismos, instrumentos y políticas que implementan para asegurar el bienestar de la ciudadanía, el





autogobernuak ematen dizkigun tresna guztiekin, pertsonen babesean sakondu behar dugu; herrialdearen lehentasunetako bat da hori.

Horregatik guztiagatik, lehen eta bigarren belaunaldiko giza eskubideek, formalki aintzatesteaz gain, benetan gauzatzeko estatutuberme guztiak eduki behar dituzte. Eskubideen edukiak modu partizipatiboan zehaztu behar dira, gizarte-agenteei eta herritarrei ahotsa eta erabakitze ahalmena emanaz.

Halaber, gizarte-eskubideak blindatzeko, nahitaezkoa izango da oinarritzko gizarte-eskubideak betetzeko aurrekontu nahikoa jartzea eta zerbitzu publiko unibertsalak finkatzea.

Ikuspegi horrek eskubideak benetan blindatzeko aukera ematen du, goi-mailako lege organikoa izanik, ez delako gobernu-gehiengoaren zoriaren mende geratzen, gobernu horiek edonolakoak direlarik ere, eskubide eta bermeak lege arrunten bidez aldatzea.

3.3. Eskubide indibidual eta kolektiboak bateratzea

Zalantzarik gabe, eskubide indibidual eta kolektiboak bateratzea zenbaitetan ez da erraza izaten. Ordea, testuingurua gero eta konplexuagoa eta zalantzarriagoa den honetan, bi maila horiek ikuspegi positibo eta ez-murrizgarriekin landu behar dira. Hau da, herritarrei beren eskubideak erabiltzeko tresna, baliabide eta aukera gehiago

desarrollo de los proyectos vitales y la prosperidad. Con todas las herramientas que nos brinda nuestro autogobierno, debemos profundizar en la protección de las personas como prioridad de país.


Por todo ello, los derechos humanos de segunda y tercera generación, además de ser formalmente reconocidos, deben gozar de todas las garantías estatutarias necesarias para su efectividad material. La definición de sus contenidos debería realizarse de forma participativa, dando voz y decisión a los actores sociales y a la ciudadanía.

Asimismo, el blindaje de los derechos sociales conllevará la necesidad de habilitar la consignación presupuestaria necesaria para la satisfacción de los derechos sociales básicos, así como la consolidación de los servicios públicos universales.

Este enfoque permite un blindaje efectivo, en la medida en que, siendo una ley orgánica de rango superior, no queda al albur de mayorías gubernamentales, fueran estas las que fueran, alterar esos derechos y garantías a través de leyes ordinarias.

3.3. Conciliación de derechos individuales y colectivos

Sin lugar a dudas, en ocasiones la armonización entre derechos individuales y colectivos no es sencilla, pero, en un contexto cada vez más complejo e incierto, estas dos dimensiones deben enfocarse desde una perspectiva positiva y no restrictiva. Es decir, debe ser la oportunidad para que la ciudadanía disponga de más herramientas, de





emateko abagunea izan behar du.

Beraz, eskubideak erabiltzen dituzten pertsonak eta dauden kolektiboek izan behar dute eskubide horien ardatzak. Horren harira, asmoa da, batetik, emakumeen eskubideen gaineko titulu espezifiko bat egitea; eta bestetik, gizarte-kolektibo jakin batzuen gaineko ikuspegi espezifiko bat sartzea (kolektibo horiek dira, besteak beste, gazteak, haurrak, nerabeak, migratzaileak, errefuxiatuak eta euskal ijito herria).

Orobat, nahitaezkoa da Estatutuak honako hauek aintzat hartzea: haur eta nerabeen interes gorenaren printzipioa; politika publikoek pertsonengan duten eragina adinaren arabera (adinduak eta gazteak); migratzaileen eta errefuxiatuen gaineko ikuspegi espezifikoak; eta gure gizarteak tradizionalki diskriminatu duen kolektibo baten, hau da, euskal ijito herriaren gaineko ikuspegi espezifikoak.

Kolektibo horiek oso kalteberak direnez edo historikoki baztertuak izan direnez, eskubideak aukeraberdintasuna oinarritzat hartuta erabili ahal izateko ekintzak antolatu behar dira.

3.4. Feminismoa, funtsezko elementua

Konpromiso feminista asmo-adierazpen huts izan ez dadin, ikuspegi dual baten bitartez gauzatu beharra daukagu. Ikuspegi horrek elkarri estuki loturiko bi estrategia osagarri ditu, eta estrategia horiek

más instrumentos, de más y mejores oportunidades para ejercer sus derechos.


El Tribunal Constitucional ha vuelto a reafirmar o reiterar esta doctrina recientemente, en la STC 124/2017, de 8 de noviembre, en la que se declara que la propia existencia de una comunidad autónoma *"trae causa en derecho de la Constitución, y con ella, de la soberanía nacional que proclama el artículo 1.2 CE, en cuyo ejercicio, su titular, el pueblo español, se ha dado una Constitución que se dice y queda fundada en la unidad de la nación española"*. La Constitución, por tanto, no es el resultado de un acuerdo entre territorios que conserven unos derechos históricos preconstitucionales anteriores a ella, sino que se presenta como *"norma del poder constituyente que se impone con fuerza vinculante general en su ámbito, sin que queden fuera de ella situaciones históricas anteriores (STC 90/2017, FJ 6º a) y jurisprudencia allí citada)"*.

- 9.- Los puntos 11 y 12 del apartado denominado "Competencias" de las bases, "Fondo de poder del autogobierno vasco", reclaman una lectura actualizadora de la disposición adicional primera de la CE, a la luz de la disposición adicional única del Estatuto. Se afirma que dicha lectura deberá hacerse a la luz del *principio democrático* que *"será fuente del nuevo haber competencial"* y que deberá *conjugarse* con el *principio de legalidad*. Por otro lado, en el número 2 del título preliminar se declara, ya abiertamente, que *"El principio de legalidad no será límite para el despliegue del principio democrático, sino el cauce adecuado para la expresión ordenada de la voluntad de la ciudadanía vasca y marco para que todos los proyectos políticos puedan ser materializados..."*. Esta confusa





gauzatzeko esparrua izango da". Legezotasun-printzipioa eta printzipio demokratikoa koordinatzeko asmo nahasi honek pentsarazten du biak kontrajarrita egon litezkeela, baina hori aditzera ematean ez dira jabetzen legezotasun-printzipioa, hain zuzen ere, printzipio demokratikoaren adierazpenetako bat dela; beraz, nekez egon litezke kontrajarrita: legezotasunaren errespetuak ezin du inoiz ekarri printzipio demokratikoa urratzea. **Lehenbiziko printzipio demokratikoa, lehenbiziko errekerimendu demokratikoa, ordenamendu juridikoa errespetatzea da, hau da, espainiar guztiok geure buruari eman diogun eta Euskadiko autogobernuaren oinarria den Konstituzioa errespetatzea.**

III.- IDENTITATE NAZIONALA AINTZAT HARTZEA

10.- "Hitzaurrea" izeneko oinarrian (berriro esan behar dugu EH Bilduk eta EAJk soilik onetsi dutela), "euskal herriaren nortasun nazionala" aintzat har dadila eskatzen da, eskubide historikoen konstituzio-aitorpenaz egindako interpretazio interesatu eta okerraren ondorioz. Ondokoa baieztatzen da (15. zk.): "*Euskal herria nazioa da herritarren gehiengoak hala aintzatesten eta identifikatzen duelako eta, gainera, zuzenbide konparatuan ezarritako parametro guztiak betetzen dituelako*". Ez du esaten zein zuzenbide konparatuz ari den baieztapen hori egitean; bada, talde parlamentario honen aburuz, gaur egungo Espainiako Konstituzioaren esparruan ezin daiteke adierazi, terminoaren zentzu juridikoan, "euskal herria" "nazioa" denik. Arestian azaldutakoari jarraiki, horrek ez dauka lekurik gure Konstituzioaren testuan; halakorik egin ahal izateko bide

pretensión de coordinación entre el principio de legalidad y el principio democrático presupone que ambos pudieran llegar a encontrarse contrapuestos, ignorando que el principio de legalidad es precisamente una de las manifestaciones del principio democrático, por lo que difícilmente pueden contraponerse: el respeto a la legalidad nunca puede provocar la vulneración del principio democrático. **El primer principio democrático, el primer requerimiento democrático, es respetar el ordenamiento jurídico, la Constitución que nos hemos dado todos los españoles y que es el fundamento del autogobierno de Euskadi.**

III.- EL RECONOCIMIENTO DE LA IDENTIDAD NACIONAL

10.- En la base aprobada (cabe recordar una vez más que tan solo con el concurso de EH Bildu y PNV) relativa o denominada "Preámbulo", como consecuencia de la interesada y errónea interpretación otorgada al reconocimiento constitucional de los derechos históricos, se reclama el reconocimiento de la "identidad nacional del Pueblo Vasco". Se afirma (n.º 15) que "*El Pueblo Vasco es Nación porque así lo reconoce e identifica una mayoría de su ciudadanía y porque, además, cumple con todos los parámetros establecidos en el derecho comparado*". Si bien no se refiere ni menciona en qué derecho comparado se sustenta tal afirmación dentro del derecho comparado, para este grupo parlamentario, en el actual marco constitucional español, no puede afirmarse, en el sentido jurídico del término, que el "pueblo vasco" sea una "nación": en base a lo





bakarra Konstituzioa bera aldatzea litzateke, eta ez Estatutua.

Horrek guztiak, jakina, ez du ukatzen izaera kultural hutsa duten berezitasunak baieztatzeko eskubidea, adibidez, hizkuntza, kultura, edo ondare juridiko eta instituzionala, gure erkidegoak halakoak bai baitaizka, zalantzarik gabe. Talde independentistek, ordea, zentzugabekeria juridiko horren bidez, gure autonomia-erkidegoaren berezitasun edo ezaugarriak baliatuz horma bat eraiki nahi dute, euskaltasuna sentitu eta ulertzeko ditugun modu ezberdinak bereizteko. Ezaugarri edo berezitasun kultural eta historikoak gizarte edo giza talde guztietan gertatzen dira; ez da Euskal Autonomia Erkidegoari soilik dagokion zerbait. Horregatik, adibidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoa Araba edo Bizkaitik bereizten duten ezaugarriek lurralde horiek banantzea justifikatzen ez duten bezalaxe, ez du zentzurik EAE, esate baterako, Kantabriatik banantzeak. Berezitasunek ez dute zatitu behar, batu eta aberastu baizik.

11.- Onetsitako testuan aitortzen da ez direla herritar "guztiak", baizik eta "gehienak", beren identitate nazional berezia berariaz aintzatestea nahi dutenak. Baieztapen hori aitzakia hartuta, independentistek "subjektu juridiko-politiko titularraren" kontzeptuari heltzen diote berriro. Subjektu hori *"itun ekonomiko nahiz politiko batean oinarrituko litzateke,*

anteriormente expuesto, esto no tiene cabida en nuestro texto constitucional, y para que ello fuera posible la única vía de actuación sería la reforma de la actual Carta Magna, no la estatutaria.

Todo ello, está claro, sin perjuicio del derecho a una autoafirmación sobre las particularidades de naturaleza eminentemente cultural, como la lengua, la cultura o el patrimonio jurídico institucional que sin duda posee nuestra Comunidad. Lo que los grupos independentistas aprueban y respaldan con semejante dislate jurídico es elevar la singularidad o particularidades de nuestra Comunidad Autónoma a categoría de muro separador entre las diversas maneras de sentir y entender la vasquidad. Las particularidades culturales o singularidades históricas son comunes a todas las sociedades o grupos humanos, no es algo exclusivo de la Comunidad Autónoma del País Vasco; por ello, y a modo de ejemplo, de la misma manera que las singularidades existentes en el territorio histórico de Gipuzkoa respecto a Álava o Bizkaia no justificarían la segregación o separación de un territorio con respecto a otro, resulta absurdo separar el País Vasco de, por ejemplo, Cantabria. La singularidad o particularidades no deben servir para dividir, sino para sumar y enriquecer.

11.- En el texto aprobado se reconoce que no es "toda" la ciudadanía sino una parte "mayoritaria" de la misma la que vindica el reconocimiento expreso de su identidad nacional diferenciada. Afirmación que da pie a los independentistas para retomar el concepto de "sujeto jurídico-político titular" que *"se configuraría sobre la base de un sistema de concierto tanto*





bai erkidegoaren barneko harremanak arautzeko, bai kanpo-harremanak (alegia, estatuarekiko eta Europar Batasunarekiko harremanak) arautzeko" (Euskal Autogobernua eguneratzeko oinarri eta printzipioen proposamena, 2018-02-07koa). Horrenbestez, betiere, euskal herritar batzuek "identitate nazional" berri bat aitortzea nahi izango dute, eta beste batzuek, ez. Burugabekeria politiko eta juridikoa, inondik ere.

12.- Proposatutako oinarriek adierazten dute Euskal Herriak, identitate propioa daukan herri horrek, "*berezko ondare juridiko-instituzionala*" duela. "*Geografiari dagokionez, zazpi lurralde hartzen ditu, zeinak Europako bi estaturen barruan eta hiru erakunde-esparru bereizitan politikoki antolatutak dauden. Estatuak Espainiakoa eta Frantziakoa dira, eta erakunde-esparruak Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, eta Iparraldeko Mankomunitateak kudeatzen duen lurraldea*". **Beste behin ere, dimentsio juridikoa, modu interesatuan, dimentsio kultural, etnografiko edo soziologikoarekin nahasten da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren funtsezko arau bat izango den testu arauemaile batean txertatu nahi da (berdin da Hitzaurrean nahiz Zioen Azalpenean izan, horiek ere balio juridikoa baitaukate), Espainiaren nahiz Frantziaren konstituzio-esparru juridikoa aldatu gabe.**

13.- Nafarroari dagokionez –"Nafarroako Foru Komunitatea"–, jakina da bere autonomia definitzeko eta antolatzeko eskubidea gauzatu zuela, Konstituzioaren esparruaren

económico como político, bien para la regulación de las relaciones intracomunitarias, bien para las relaciones hacia afuera, es decir, hacia el Estado y la Unión Europea en su conjunto" (Propuesta de Bases y Principios para la actualización del Autogobierno Vasco, de 07/02/2018). Por consiguiente, en todo caso, dentro de la ciudadanía vasca habrá quienes aspiren al reconocimiento de una nueva "identidad nacional" y quienes no. Un despropósito político y jurídico.

12.- La bases propuestas afirman que ese pueblo con identidad propia que es Euskalherria, con un "*patrimonio jurídico-institucional propio*", "*está asentado geográficamente sobre siete territorios que en la actualidad se encuentran políticamente articulados en dos estados europeos –el español y el francés– y tres ámbitos institucionales diferenciados: la CAPV, la CFN y el territorio gestionado por la Mancomunidad de Iparralde*". **Una vez más, se vuelve a confundir interesadamente la dimensión jurídica con la cultural, etnográfica o sociológica, y se pretende incluir en un futuro texto normativo que será una norma fundamental de la Comunidad vasca –y da igual que sea en un preámbulo o exposición de motivos, porque también tienen valor jurídico–, sin antes modificar el marco jurídico constitucional, tanto de España como de Francia.**

13.- En lo que respecta a Navarra, a la "Comunidad Foral de Navarra", es sabido que ésta ejerció su derecho a definir y organizar su propia autonomía al amparo del marco





babespean, eta prozesu hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoarekin burutu zela, Nafarroako Foru Komunitatearen oinarritzko arau instituzionala dena eta Estatuaren ikuspegitik 13/1982 Lege Organikoa dena. Lege horren 1. artikulua hau dio: *"Nafarroa foru erkidego bat da, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituen, banaezina, Espainiako Nazioaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin"*. Nafarroa, gaur egun, foru-komunitate bat da, bera bakarrik, nafarren historiaren ondorio, eta nafarrek elkarrekin bizitzeko duten borondatearen emaitza. Nafarroa ez da Espainiaz besteko errealitate nazional baten atal.

Beste alde batetik, Estatutu berrian Nafarroako Foru Komunitateari buruz xedatu litekeena *res inter alios acta* bat litzateke; ez luke Nafarroan ez nafarengan eraginik izango. Nafarroari buruzko kontuak "subjektu juridiko eta politikoen" onespena izan gabe arautu nahi izatea balio juridikorik gabeko esku-hartzea da, erkidego batek ere ez baitauka legegintzazko ahalmenik besteen gainean, eta Konstituzioaren aurkakoa izango litzateke argi eta garbi.

Nafarroak nortasun juridiko, politiko eta historiko handienetako bat du Espainiako erkidegoen artean. Haren "egitate bereizgarria", beste erkidego batzuetatik desberdintzen duena, ez da hizkuntza propioa, ez kultura jakin eta baztertzaila bat izatea (izan ere, Nafarroaren ageriko ezaugarri bat pluraltasuna eta aniztasuna dira, bere historian zehar kultura ezberdinak integratu baititu). Haren "egitate bereizlea" foraltasuna da, belaunaldi

constitucional, y que ese proceso culminó con la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Fuero de Navarra, de 10 de agosto de 1982, que constituye la norma institucional básica de la CFN, además de Ley Orgánica 13/1982 desde el punto de vista del Estado. El artículo 1 de dicha ley dice: *"Navarra constituye una Comunidad Foral con régimen, autonomía e instituciones propias, indivisible, integrada en la Nación española y solidaria con todos sus pueblos"*. Hoy por hoy, Navarra es, por sí sola, una comunidad foral, fruto de la historia y de la voluntad de los navarros de vivir juntos. Navarra no forma parte de ninguna otra realidad nacional distinta a la española.

Por otra parte, lo que pudiera disponerse en el nuevo Estatuto con respecto a la Comunidad Foral de Navarra supondría una *res inter alios acta*, no afectaría a Navarra ni a los navarros, y pretender regular cuestiones relativas a Navarra sin contar con la aprobación de los "sujetos jurídico-políticos" afectados significa una injerencia sin valor jurídico alguno, pues ninguna comunidad tiene facultades legislativas sobre otra, y sería claramente inconstitucional.

Navarra es una de las comunidades con mayor personalidad jurídico-política e histórica de España, cuyo "hecho diferencial" respecto de otras comunidades no es una lengua propia, ni una determinada ni excluyente cultura propia –puesto que, si por algo se caracteriza Navarra, es por su pluralidad y diversidad, integradora de culturas diferentes a lo largo de su historia–. El "hecho diferencial" es la foralidad, vivamente





batetik bestera bizitasun handiz sentitua eta transmititua. Horixe da, hain zuzen ere, Nafarroa Espainiako Estatuan elkartasunez eta erabakitasunez txertatzen duena. Atariko Tituluari buruzko oinarri-proposamenaren 28. zenbakiak dakarren baieztapena, Nafarroari dagokionean, ezjakintasunaren ondorio edo, besterik gabe, faltsukeria baino ez da.

Nafarroaren foru-araubidea eta EAEan dauden lurralde historikoena oso ezberdinak dira jatorrian, edukian eta izaera juridikoan. Ez dago, eta ez da inoiz egon, EAEaren aurreko "errealitate nazionalik", zeinetan Nafarroa sartzen zen. Nafarroa soilik izango da euskal erkidego berriaren (ematen zaion izena ematen zaiola) kide baldin eta nafarrek, une jakin batean, beren nortasun juridiko eta politikoa urtzea eta beren historiaren norabidea aldatzea erabakitzen badute, baina ez "beti hala izan delako".

14.- Atariko Tituluari buruzko oinarriaren 29. zenbakian, Nafarroako Foru Komunitatearekin lotura politikoak ezartzeaz jarduten da, baita "Iparraldeko" "euskal lurraldeekin" ere. "Egitura edo organo instituzional iraunkor eta komunak" sortzeko aukera ere aipatzen da (hori bai, "funtsezkoa da lurralde-eremu bakoitzeko ordezkaritza-erakundearen erabakiak erabat errespetatzea", nola ez). Lotura horien helburua, besteak beste, "lurraldetasun irekiaren printzipioa eta politika bateratuko proiektu bat ezartzea" da. Gai honetan, gogorarazi behar dugu 1978ko Konstituzioak berriaz errefusatzen duela autonomia-erkidegoen federazioa (EKaren 145.1

sentida y transmitida de generación en generación y que es lo que constituye, precisamente, su forma de integración solidaria y decidida en el Estado español. La afirmación contenida en el número 28 de la propuesta de base referida al título preliminar es, directamente, en lo que pueda referirse a Navarra, bien producto de la ignorancia, o bien, simplemente, una falsedad.

El régimen foral navarro y el de los territorios históricos integrados en la CAPV presentan sustanciales diferencias en cuanto a su origen, contenido y naturaleza jurídica. No existe, ni ha existido nunca, una "realidad nacional" distinta y preexistente a la propia CAPV en la que Navarra estuviera englobada. Navarra solo podrá ser parte integrante de la nueva Comunidad vasca —llámese como se llame— porque los navarros, en un momento determinado, puedan decidir diluir su personalidad jurídico-política y alterar el rumbo de su historia, pero no lo será porque "haya sido siempre así".

14.- El n.º 29 de la base referida al título preliminar se refiere al establecimiento de vínculos políticos con la Comunidad Foral de Navarra, además de con los "territorios vascos" de "Iparralde", incluyendo la posibilidad de establecer "*estructuras u órganos institucionales permanentes y comunes*" —eso sí, faltaría más, afirma que "*desde el respeto total y absoluto a las decisiones de las instituciones representativas de cada ámbito territorial respectivo*"—, cuyo objetivo es, entre otros, "*lograr la plasmación de un principio de territorialidad abierta junto con un proyecto de política común*". A este respecto cabe recordar que la Constitución de 1978 expresamente





artikulu) eta, zerbitzu propioak kudeatu edo emateko hitzarmenak salbu, erkidegoen arteko lankidetzakordioek Gorte Nagusien baimena behar dutela (EKaren 145.2 artikulua).

rechaza la federación de comunidades autónomas (artículo 145.1 CE) y que, salvo convenios de gestión o prestación de servicios propios, los acuerdos de cooperación entre comunidades precisan autorización de las Cortes Generales (artículo 145.2 CE).

IV.- AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA

15.- Hitzaurrearen oinarrian (5. apartatuan) eta Atariko Tituluaren oinarrian (2.1 apartatua), euskal lurraldeetako herritarrei subjektu juridiko eta politiko bat –orain "konstituziogile" deritzona– eratzeko "eskubide demokratikoa" (*sic*) aitortzen zaie. Oraingo honetan "EAEko herritarrak" esapidea erabiltzen da, eta ez "euskal herria"; nolahi ere, "identitate nazionala" dute biek ala biek.

"Erabakitze eskubidea" esapidea esanahi ezberdinekin erabiltzen du nazionalismo independentistak, bai herri batek bere estatus juridiko eta politikoa erabakitze duen gaitasuna adierazteko, bai zuzenean erreferendum bat deitzeko eta independentziaren hautua berariaz proposatzeko. Nolanahi ere, "erabakitze eskubidea" oker deitu zaion horren funtsa –eta halaxe adierazten da Ibarretxe Planean eta Kataluniari buruzko zenbait agiri sezesionistatan– subjektu juridiko-politiko bat (kasu honetan, "euskal herria") existitzen delako sinismenean datza. Herri horrek nazioa eratuko luke. Horrek esan nahi du herrien determinazio askerako ustezko eskubidea duela, 1966ko Eskubideen Nazioarteko Itunetan oinarrituta.


Baina erabakitze eskubidea eufemismo hutsa da, autodeterminazio-eskubidea

IV.-EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN

15.- Tanto en la base relativa al preámbulo (apartado 5) como en la base relativa al título preliminar (apartado 2.1), se reconoce el "derecho democrático" (*sic*) de la ciudadanía de los territorios vascos a decidir la constitución de un sujeto jurídico-político que ahora se dice "constituyente". En esta ocasión se usa la expresión "ciudadanía vasca" en lugar de "pueblo vasco", en todo caso, dotados de "identidad nacional".

La expresión "derecho a decidir" se utiliza por el nacionalismo independentista con significados diferentes, bien como capacidad de un determinado pueblo para decidir su estatus jurídico-político, bien directamente para convocar un referéndum y plantear expresamente la opción por la independencia. En cualquier caso, el mal llamado derecho a decidir –y así se reflejaba en el Plan Ibarretxe y en varios documentos secesionistas en relación a Cataluña– tendría su fundamento en la creencia de la existencia de un sujeto jurídico-político (el pueblo vasco en este caso) que constituiría una nación, y esto supone la existencia de un supuesto derecho a la libre determinación de los pueblos en virtud de los Pactos Internacionales de Derechos de 1966. En realidad **el derecho a decidir es un eufemismo que pretende enmascarar el**





izendatzeko beste modu bat baino ez. Eta eskubide hori, Nazioarteko Zuzenbidean, kasu jakin batzuetarako bakarrik aintzat hartzen edo aurreikusten da; EAE eta, adibidez, Kataluniako erkidegoa, ez daude kasu horien artean.

derecho de autodeterminación, derecho que solo es reconocido o previsto por el Derecho internacional para determinados supuestos, en los que ni la CAPV ni, por ejemplo, la Comunidad de Cataluña encajan.

16.- Konstituzio Auzitegiak, abenduaren 2ko 259/2015 Epaian, adierazi zuen Espainiako Konstituzioa ez dela alde zurretik subiranoak ziren lurraldeen arteko ituna. Epaia berresten du hautsi ezinezko lotura dagoela printzipio demokratikoaren eta Konstituzioaren erabateko nagusitasunaren artean, Konstituzioa botere konstituziogile subirano eta legítimoaren produktua baita, demokrazia-eredu pluralista ezartzen duena eta Konstituzioa erreformatzeko prozedura batzuk finkatzen dituen (Espainiako Konstituzioaren 167 eta 168. artikulua), botere konstituziogileak Oinarrizko Araua berrikus eta alda dezan, hala nahi badu, are haren osotasunean ere (5. Oinarri Juridikoa).

16.- El Tribunal Constitucional en STC 259/2015, de 2 de diciembre, señala que la Constitución española no es un pacto entre territorios previamente soberanos. Reitera la vinculación indisociable entre el principio democrático y la primacía incondicional de la Constitución, porque ésta es producto de un poder constituyente soberano y legítimo, que establece un modelo de democracia pluralista y que prevé unos procedimientos de reforma constitucional (artículos 167 y 168 CE), dirigidos a que el poder constituyente constituido revise y modifique la Norma Fundamental si así lo desea, incluso en su totalidad (FJ 5.º).

17.- Proposatutako oinarrietan (Atariko Tituluari buruzko oinarriaren 2.1 apartatuko 6 eta 7. zenbakiak) erabakitze eskubidea sartzea lurraldearen zati baten sezesioa babestu eta bultzatzea baino ez da, eta Konstituzioaren kontzeptuarekin berarekin bateraezina da. Inongo estatu ez konstituziotan ez da beren sunsiketa errazten edo ekartzen duen mekanismorik aurreikusten, logikoa denez. Konstituzio batean autodeterminazio-eskubidea sartzeak konstituzioa arau iragankorra izatea ekarriko luke; konstituzio hori lurralde osoan eta estatuko biztanleria guztientzat indarrean egotea autodeterminazio-eskubidearen titularrek eskubide hori ez

17.- La inclusión del derecho a decidir en las bases propuestas (números 6 y 7 del apartado 2.1 de la base referida al título preliminar), que no es otra cosa que amparar e impulsar la secesión de una parte del territorio, es incompatible con el propio concepto de Constitución. Ningún Estado ni ninguna Constitución prevén mecanismos que faciliten o conduzcan a su propia destrucción, lo que parece lógico. La inclusión del derecho de autodeterminación en una Constitución colocaría a ésta en una posición de norma transitoria, cuya vigencia plena sobre la totalidad del territorio y población del Estado quedaría condicionada a que los titulares del derecho de





gauzatzearen baldintzaren pean geratuko litzateke. Denboran irauteko xedea berezkoa du Estatuaren ideiak. Beraz, ikuspegi kontzeptualetik, estatu batetik banantzeko asmoz autodeterminazio-eskubidea (sezesioa) gauzatzearen ondorioa ez da soilik estatua haustea, baizik eta Konstituzioa bera suntsitzea.

Konstituzio Auzitegiaren doktrina argia da: autodeterminazioa ez dago autonomia-erkidegoen autogobernuaren edukiaren barnean, autonomia ez baita subiranotasuna. Lurralde batek erabakitzeko eskubidea planteatzea, izatekotan, nahi politiko bat litzateke. Asmo hori bete ahal izateko, Konstituzioa erreformatu beharko litzateke alde zuzenetik, eta legegariak Konstituzioaren likidazioa sustatu beharko luke.

- 18.- Nazio bat existitzen delako ideia, eta hura subiranotasun baten titulartasunari eta erabakitzeko eskubidea edo autodeterminazio-eskubidea gauzatzeari lotuta dagoelako ideia ez da soilik barneko esparru juridikoaren aurka, baizik eta Europakoaren eta nazioartekoaren aurka ere bai: nazioarteko zuzenbidearen esparruan, autodeterminazio-eskubidea, definituta dagoen eran, ezin zaie aplikatu EAEari ez Europako ia ezein lurralderi.

Jakinaenez, estatuen lurralde-otasuna errespetatzearen printzipioa nazioarteko ordena juridikoaren elementu nagusietako bat da. Eta halaxe ulertzen du Europar Batasuna eratzen duen zuzenbideak ere (horra hor, adibidez gisa, independentistek Katalunian sustatu duten burugabekeria sezesionistaren aurrean


autodeterminación no lo ejerciesen. La vocación de permanencia en el tiempo es consustancial a la idea de Estado. Por lo tanto, desde el punto de vista conceptual, el ejercicio del derecho de autodeterminación para separarse de un Estado (la secesión) es un acto cuya consecuencia es no solamente la ruptura del Estado, sino la destrucción de la Constitución misma.

La doctrina del Tribunal Constitucional es clara: la autodeterminación no forma parte del contenido del autogobierno de las comunidades autónomas, porque la autonomía no es igual a la soberanía. El planteamiento del derecho a decidir de un territorio puede ser, en todo caso, una aspiración política que para materializarse necesitaría una reforma constitucional previa donde el legislador promoviera su liquidación.

- 18.- La pretensión de la existencia de una nación y su vinculación a la titularidad de una soberanía y al ejercicio del derecho a decidir o derecho de autodeterminación no contraviene solamente el marco jurídico interno, sino también el europeo y el internacional: en el ámbito de Derecho internacional, el derecho de autodeterminación se configura de un modo que no resulta de aplicación a la CAPV ni a la práctica totalidad de los territorios europeos.

Como es conocido, el principio del respeto a la integridad territorial de los Estados se configura como un elemento central del orden jurídico internacional, y así es tomado por el propio Derecho constitutivo de la Unión Europea (basta citar como ejemplo cercano la respuesta internacional ante el disparate





izan den nazioarteko erantzuna).

Oinarrietan egiten den planteamenduarekin, "erabakitzeko eskubidea", nolabait, eskubide natural eta historikotzat eta printzipio demokratikoaren berezko ondorioztat jotzen da; haren existentzia ukaezina omen da eta nazioarteko zuzenbidean omen du oinarria. Baina hori guztia errealtatea itxuraldatzearen emaitza baino ez da: ez dago erabakitzeko eskubide hori azaldutako baldintzetan jasotzen duen sistema demokratiko esanguratsurik.

"Erabakitzeko eskubidea" gauzatzea eta hasiera batean beharrezkoa den tresna, hots, erreferenduma (oinarriek "kontsulta gaitzailea" izenez mozorrotzen dutena), erabiltzea betiere legez ezarritako esparruaren barruan egin beharreko zerbait da. Legezketasuna da Europako Kontseiluko Veneziako Batzordeak exijitzen duen berme demokratikoko baldintza, hain zuzen ere, erreferendumaren gaian jokabide egokiak izateari buruzko txostenean; erreferendumaren aukera berariaz ukatzen da, Konstituzioaren edo legearen arabera egiten ez bada.

Auzitegi Gorenaren Zigor Arloak, 2018ko ekainaren 26ko autoan, hau adierazten du: *"Hain zuzen ere, eskubide hori (boto-eskubideaz ari da) modu librean eta berme guztiekin gauzatzea sistema politiko demokratikoaren oinarrietako bat da. Baina, eta hau funtsezkoa da, demokrazia garatuen eremuan, boto-eskubidea ez da gauzatzen herritar talde batek nahi duenean, hau da, edozein unetan, edozein modutan eta edozein gaitan, baizik eta*

secesionista impulsado en Cataluña por los independentistas).

El planteamiento que se hace en las bases del "derecho a decidir", como una especie de derecho natural, histórico o inherente al principio democrático, cuya existencia no puede negarse y se sostiene en el Derecho internacional, es una tergiversación de la realidad: no hay ningún sistema democrático en el mundo mínimamente relevante que acoja ese derecho a decidir en los términos planteados.

El ejercicio del "derecho a decidir" y la utilización del instrumento inicialmente necesario, el referéndum, que las bases camuflan bajo la denominación de "consulta habilitante", debe plantearse siempre dentro del marco legalmente establecido. La legalidad es la condición de garantía democrática que exige la Comisión de Venecia, del Consejo de Europa, en su informe sobre buenas prácticas en materia de referéndum, excluyendo expresamente la posibilidad del mismo cuando no se realice conforme a la constitución o a la ley.

El Tribunal Supremo, Sala de lo Penal, en recentísimo auto de 26 de junio de 2018, declara: *"Efectivamente el ejercicio libre y con todas las garantías de ese derecho (se refiere al derecho al voto) es una de las bases del sistema político democrático. Pero, y es algo elemental, en el ámbito de las democracias desarrolladas, el derecho a votar no se ejerce cuando un grupo de ciudadanos lo desee, es decir, en cualquier momento, de cualquier*





ordenamendu juridikoak ezartzen dituen une, modu eta gaietan. Hau da, legearekin bat etorriz. Espainia Europar Batasunaren barruan sobera homologatutako demokrazia da. Konstituzioa oso finkatuta dago eta haren aplikazioa normalizatuta dago. Are gehiago, esan dezakegu sistema bereziki eskuzabala dela, hura indargabetu nahi dutenen presentzia eta ekintza onartzen baititu bere barnean, Konstituzioa defendatzen dutenen aukera berberetan. Katalunian, eta Espainiako gainerakoan, hauteskondeak deitzen dira, Konstituzioak eta legeek ezarritako epeetan, eta berme guztiekin egiten dira. Eraitza ez da inola ere zalantzatan jartzen; beraz, herritarrek boto-eskubidea modu librean gauzatu dezakete. Eta legeak –arestian esan dugunez, gutxiengoaren eskubideak ere bermatzen dituztenak– aldatu egin daitezke, ezarritako bideak erabiliz, eta gehiengoaren eta gutxiengoaren eskubide eta interesak kontuan hartuz. Ordea, herritar talde batek, gehiengoa izan edo ez, ugaria izan arren, ezin ditu legeok ondoriorik gabe utzi egitatezko bideetara joz edo legezko bideetatik kanpo arituz. Inguruabar horietan, ez da zilegi legeari egitatezko bideetatik eraso egitea eta hura indargabetu nahi izatea.

Beste alde batetik, Europar Batasunean ez da arraroa, baizik eta ohikoa, Espainiako Konstituzioaren kasuan gertatzen denez, konstituzio batek ez jasotzea lurralde nazionalaren zati bat, autonomia-erkidego bat eratzen duena, parlamentarien erdien gehi baten erabakiz gainerako lurraldetik bereizi ahal izateko aukera.

manera, o sobre cualquier aspecto, sino cuando, como y sobre aquello que establece el ordenamiento jurídico. Es decir, con arreglo a la Ley. España es una democracia perfectamente homologada dentro de la Unión Europea, con una Constitución muy asentada y de observancia y aplicación normalizada. Incluso, puede decirse, es un sistema extremadamente generoso, en tanto que permite la presencia y actuación en su seno de quienes pretenden abolirlo en plan de igualdad con quienes lo defienden. Se convocan, en Cataluña y en el resto de España, elecciones en el tiempo marcado por la Constitución y las leyes y se celebran con todas las garantías, sin que se cuestione en forma alguna su resultado, de manera que sus ciudadanos pueden ejercer libremente el derecho al voto. Y las leyes, que, como hemos dicho, garantizan también los derechos de las minorías, pueden ser modificadas siguiendo los cauces establecidos, atendiendo a los derechos e intereses de mayorías y minorías. Pero, por el contrario, un grupo de ciudadanos, más o menos mayoritario, aunque sea numeroso, no pueden dejarlas sin efecto acudiendo a vías de hecho o fuera de las vías legales. En esas circunstancias no se justifica el asalto a la Ley y su derogación acudiendo a vías de hecho.

De otro lado, el hecho de que la Constitución española no contemple la posibilidad de que una parte del territorio nacional constituido en Comunidad Autónoma pueda separarse del resto por la decisión de la mitad más uno de sus parlamentarios, no es algo inusual en el marco de la Unión Europea, sino todo lo contrario".





V.- ARTIKULAZIO INSTITUZIONALA ETA ESKUMENEN MUGAKETA

19.- Euskal Talde Parlamentario Popularrak defendatzen du eskumenen "barne-banaketa" berria egin dadila (EAEaren barnean, alegia), boterea EAEko gobernuaren, lurralde historikoen eta udalerrien artean banatuz, **eskumenak argitzeko eta bikoiztasunak gairatzeko**. Puntu honetara iritsita, bereziki deigarria da Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat gobernuak foru-aldundien kaltetan bultzatutako prozesu zentralizatzailea, foraltasuna eta haren berezitasuna murrizten dituen. Komeniko litzateke, bidezkoa balitz, besteak beste LHLaren erreforma sakona egitea, foru-aldundiei nahiz udalei eskumen-autonomia handiagoa eta baliabide gehiago emateko.

20.- Bestalde, EAEan Justizia Administrazioa antolatzekeo eskumena geureganatzea proposatzen da (autoantolaketako ahalaren barnean), baita espetxe-politika propioa edukitzea ere. Euskal Kontseilu Judizial Nagusia sortu edo aintzat hartuko litzateke, baita Euskal Eskola Judiziala ere. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari esleituko litzaioke auziak modu arruntean burutzea, *"botere judizialaren batasuna kaltetu gabe eta Auzitegi Gorenaren nagusitasuna kontuan izanik, Estatuak emandako legeriari buruzko doktrina bateratu baino ez duena egingo"* Modu berean, talde nazionalistek erabaki dute "estatus politiko" berrian "Euskal Botere Judiziala" aintzat har dadila, eta gaur egungo eredu deszentralizatua gairatzekeo, *"antolaketa eta oinarri judizialeko eredu berri bat"* finkatzeko. Haren gailurra Justizia Auzitegi

V.- ARTICULACIÓN INSTITUCIONAL Y DELIMITACIÓN COMPETENCIAL

19.- El grupo parlamentario Popular Vasco defiende que se aborde un nuevo reparto competencial "interno" (dentro del País Vasco), redistribuyendo el poder entre el Gobierno de la CAPV, los territorios históricos y los municipios, **clarificando competencias y eliminando duplicidades**. Llegados a este punto, resulta especialmente llamativo el proceso centralizador impulsado por los diferentes gobiernos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en detrimento y perjuicio de las diputaciones forales, menoscabando la foralidad y su singularidad. Conviene, en su caso, una profunda reforma de la LTH, entre otras normas, para dotar de más autonomía competencial y recursos tanto a las diputaciones forales como a los ayuntamientos.

20.- Se plantea también la asunción de la competencia de organización de la Administración de Justicia en el País Vasco –como parte de la potestad de autoorganización–, incluida una política penitenciaria propia. Se crearía o se reconocería un Consejo General Judicial Vasco y una Escuela Judicial Vasca, y se atribuiría al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la culminación ordinaria de los asuntos *"sin perjuicio de la unidad del poder judicial y de la preeminencia del Tribunal Supremo, limitada a la unificación de doctrina en relación a la legislación dictada por el Estado"*. Así mismo, los grupos nacionalistas deciden que en el nuevo "estatus político" se reconozca el "Poder Judicial Vasco" y la superación del actual modelo descentralizado para establecer *"un modelo de organización y planta judicial propio"*



Nagusia litzateke.

Konstituzio Auzitegiak, 31/2010 Epaian, adierazi zuen autonomia-erkidego baten justizia-auzitegi nagusiaren eskumenak arautzen dituen legea Botere Judizialaren Lege Organikoa baino ezin daitekeela izan. Lege organiko horrekiko mendekotasuna nahitaezkoa da Justizia Administrazioaren eremuan edozein aldaketa egiteko, gure konstituzio-esparruarekin bat etorriko bada.

- 21.- Oinarrien proposamenak, modu berean, planteatzen du (Eskumenen eta Autogobernuaren Funtsaren oinarriaren 7 eta 11. zenbakiak) **"Indarrean dagoen Estatutuan zehaztutako eskumenak gehitzea", "Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarrian aintzatetsitako eskubide historikoak sistematikoki eguneratuz eta zabalduz"**, Espainiako Konstituzioaren 148 eta 149. artikuluen eraginkortasuna modulatzeari ahalbidetuko lukeen modu batean. Gainera, hau baieztatzen da: *"Proposatutako estatuarekiko harreman-eredu berria dela eta, printzipio demokratikoa ere eskumen-hartzeko berriaren iturri izango da"*.


Jarrera horrek ez dauka funtsik Konstituzioan ez konstituzio-jurisprudenzian. Izan ere, ezker ezin du baldintzatu Konstituzioaren 148 eta 149. artikuluetan ezarritakoa. Oinarrien proposamenean hala nahi den arren, ez da existitzen Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren eta EHAearen Xedapen Gehigarri Bakarraren ustezko "nagusitasunik" aipatutako manuen gaitetik, Nafarroaren eta EAEaren

cuyo culmen será el Tribunal Superior de Justicia.

El Tribunal Constitucional, en STC 31/2010, ya tiene declarado que la ley que regula las competencias del Tribunal Superior de Justicia de una comunidad autónoma solo puede ser la Ley Orgánica del Poder Judicial, y dicha supeditación a la LOPJ debe aplicarse a cualquier modificación que se pretenda abordar en el ámbito de la Administración de Justicia para que ésta sea conforme con nuestro marco constitucional.

- 21.- La propuesta de bases plantea igualmente (números 7 y 11 de la base relativa a Competencias-Fondo de Autogobierno) **"ampliar el 'quantum' competencial estatutariamente reconocido a Euskadi"**, a través o con fundamento en **"la actualización sistemática y extensiva de los derechos históricos reconocidos en la DA primera de la Constitución"**, de manera que esto permita incluso modular la operatividad de los artículos 148 y 149 de la CE. Además, se dice, *"dado el nuevo modelo relacional con el Estado que se propone, también el principio democrático será fuente del nuevo haber competencial"*.

Esta posición no tiene fundamento ni en la Constitución ni en la jurisprudencia constitucional, puesto que nada puede condicionar lo establecido por el propio texto constitucional en los artículos 148 y 149. No existe, aunque así se pretenda en la propuesta de bases, una supuesta "primacía" de la disposición adicional primera de la CE y adicional única del EAPV sobre los preceptos mencionados, con la





ekonomia- eta finantza-araubidearen salbuespen bakarrarekin. Inolako funts juridikorik gabe, "ekonomia-itunaren" kontzeptua nolabaiteko "itun politiko" batera zabaldu nahi da. Horrek, beste behin ere, lehertu egingo lituzke ordenamendu juridikoa eta Konstituzioaren aurreikuspenak (Espainiako Konstituzioaren VIII. Titulua eta, zehazki, eskumen-esparruari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 148, 149 eta 150. artikulua bereziki), baita azken hamarkadetan lortutako kontsentsu politiko guzti-guztiak ere. Beste zentzugabekeria juridiko eta politiko bat.

- 22.- Ekonomia Itunari dagokionez, EHAearen 41. artikulua aldatu nahi da (cfr. oinarrien apartatu beraren 26, 27, 28 eta 31. puntuak). Aldaketa horren bidez, orain arte Itunaren aplikazio-eremuaren barruan zegoena zabaldu nahi da; aurrerantzean gehiago zehaztu beharko da.


Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua EAEan modu berezi batean ("*aldebikoan*") aplikatzea proposatzen da. Hori, nolabait, jasota dago Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan. Hau dakar, hain zuzen ere, Hirugarren Azken Xedapeneko 2. apartatua: "*Lege honetan xedatutakoa EAEan aplikatzean, haren foru-araubidea dela bide, Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa aintzat hartuko da*". Ondorioz, lege bietan xedatutakoa bete beharko da, Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan konstituzionalizatuta dagoen aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren ondorioak zehazte aldera.

única excepción del régimen económico-financiero de Navarra y el País Vasco. Se pretende, sin fundamento jurídico alguno, extender el concepto de "concierto económico" a una suerte de "concierto político" que haría saltar por los aires, una vez más, el ordenamiento jurídico y las previsiones constitucionales (título VIII de la CE y, en concreto, por lo que se refiere al ámbito competencial, singularmente los artículos 148, 149 y 150 de la CE), así como todos y cada uno de los consensos políticos alcanzados en las últimas décadas. Otro disparate jurídico y político.

- 22.- En lo que se refiere al Concierto Económico, se plantea la modificación del artículo 41 de EAPV –cfr. puntos 26, 27, 28 y 31 del mismo apartado de las bases–, que pretende una ampliación sobre lo que lo que hasta ahora ha venido entendiéndose incluido en el ámbito aplicativo del Concierto, que deberá ser objeto de concreción.

También se plantea una aplicación específica –"*bilateral*"– para la CAPV del artículo 135 de la CE, cuestión que de alguna forma ya se encuentra prevista en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, en cuya disposición final tercera, apartado 2, dice: "*En virtud de su régimen foral, la aplicación a la CAPV de lo dispuesto en esta Ley, se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico*". En consecuencia, habrá que estar y atenerse a lo dispuesto en ambas leyes a los efectos de concretar las consecuencias del principio de estabilidad presupuestaria constitucionalizado en el artículo 135 CE.





VI.- EUSKADIREN ORDEZKARITZA
EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO
INSTITUZIO ETA ERAKUNDEETAN

23.- Estatuak nazioarteko harremanetan bakarreko eskumena daukan arren (Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua zena), autonomia-erkidegoek kanpo-ekintzako zenbait jarduera egiteko eskumena badute. Modu berean, zenbait negoziazioen berri jakiteko eskubidea daukate, baita espainiar ordezkarietako partaide izateko ere, baldin eta beraien eskumenetan eragina duten itunak negoziatzen ari badira: oro har, nazioarteko eremuari buruzko oinarrian jasotzen diren asmo guztiek Itunei eta bestelako nazioarteko akordioei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legean xedatutakoa bete beharko dute.

Oinarri egokian sartutako asmoek arauketa-maila ezberdinak dituzte, eta denak ezin dira sartu balizko Estatutu berrian, haien arauketa Estatuaren Zuzenbideari edo Batasunaren Zuzenbideari dagokielako. Baina egia da, halaber, egungo EHAEak ez duela bere artikuluetan Europar Batasunaren aipamenik egiten. Horrenbestez, logikoa da orain alderdi hori eguneratzea, halaxe egin baitute beste erkidego batzuetako estatutuek, oinarrien dokumentuan adierazten diren aurreikuspenenen antzekoak txertatuz. Noski, kontu batzuek Estatuaren esparrua gairatzen dute (adibidez, Ekonomia Ministroen Europako Kontseiluan zuzenean parte hartzea, "subjektu juridiko eta politiko titular" gisa). Beste batzuek bestelako erreforma batzuk beharko lituzkete, EAEko instituzioen eskumenetik eta gaitasun legegiletik haratago doazelako (esate baterako,

VI.- REPRESENTACIÓN DE EUSKADI EN
LAS INSTITUCIONES Y
ORGANIZACIONES EUROPEAS E
INTERNACIONALES

23.- Las comunidades autónomas, sin perjuicio de la competencia exclusiva del Estado en materia de relaciones internacionales (*ex artículo 149.1 CE*), tienen competencia para desplegar ciertas actividades de acción exterior y asimismo tienen derecho a ser informadas de determinadas negociaciones y a formar parte de delegaciones españolas que negocien tratados que afecten a sus competencias: en general, todas las pretensiones que se recogen en la respectiva base relativas al ámbito internacional deberán atenderse a lo dispuesto en la Ley 25/2014, de 27 de noviembre, de Tratados y otros Acuerdos Internacionales.

Las pretensiones incluidas en la respectiva base tienen distintos niveles de regulación, y no todas pueden incluirse en el hipotético nuevo Estatuto, pues su regulación corresponde bien al Derecho del Estado, bien al Derecho de la Unión. Pero también es cierto que el actual EAPV no ha incorporado en su articulado ninguna mención a la Unión Europea, y, por lo tanto, es lógico que ahora se actualice en dicho aspecto, como así lo han hecho los estatutos de otras comunidades, que han incorporado previsiones similares a las que se expresan en el documento de bases. Obviamente hay cuestiones que exceden del ámbito estatutario (p.ej. participación directa en el Consejo Europeo de Ministros de Economía como "*sujeito jurídico-político titular*") o que exigirían reformas que van más allá de la competencia y de la capacidad





hauteskundeen legeria orokorraren erreforma, *"euskaldunek Europako Parlamentuan estatus politiko berria jasotako SJPre eta Estatuaren arteko harreman-eredu berrira egokituko dela bermatzeko"*).

24.- Estatu bateko eskualdeen edo lurralde-entitateen eraketa juridiko-politiko estatu kide bakoitzari dagokio, eta ez Europar Batasunari. Eta, jakina denez, Europar Batasunaren oinarritzko printzipioetako bat estatu kideen lurralde-osotasuna errespetatzea da. Konstituzio-doktrinaren arabera, autonomia-erkidego bakoitzaren eskumenetan edo interesetan eragina duten Europar Batasunaren inguruko gaietan, erkidegoen parte-hartzea (erkidego bakoitzaren estatutuan aurreikusten dena) Estatuaren legeriak ezartzen dituen baldintza zehatzetan egingo da (cfr. Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 28ko 31/2010 Epaia, 122. Oinarri Juridikoa). Laburbilduz: estatu kideetako eskualdeek edo lurralde-entitateek Europar Batasunaren arazoetan duten parte hartzean edo harekin duten harremanean aldaketak egin ahal izateko, legean aldaketak egin behar dira (baliteke Konstituzioan ere aldaketak egin behar izatea). Aldaketa horiek, betiere, ezin dira alde bakarrekoak edo alde bikoak izan; izatekotan, alde askotakoak izango dira.

ONDORIOAK

Euskal autogobernua eguneratzeko Ponentzia parlamentarioa eratzean adierazitako helburuetako bi, zehazki, sortzen diren dokumentu eta testuetan **"ezberdinen artean ahalik eta adostasun handiena"** lortzea eta

legislativa de las instituciones de la CAPV (p.ej. la reforma de la legislación electoral general *"para garantizar una presencia de las vascas y los vascos en el Parlamento Europeo que se adecue al nuevo modelo de relación entre el sujeto jurídico-político y el Estado, contenido en el nuevo estatus político"*).

24.- La configuración jurídico-política de las regiones o entes territoriales de un Estado es algo que corresponde a la competencia de cada Estado miembro, no de la Unión Europea. Y, como es conocido, es principio básico de la Unión Europea el respeto a la integridad territorial de los Estados miembros. La doctrina constitucional en relación con estas cuestiones es que la participación de las comunidades, prevista en su respectivo Estatuto, en los asuntos relacionados con la Unión Europea que afecten a las competencias o intereses de la respectiva comunidad, ha de tener lugar en los concretos términos que establezca la legislación del Estado (cfr. STC 31/2010, de 28 de junio, FJ 122). En resumen: cualquier modificación en el ámbito de la participación de las regiones o entidades territoriales de los Estados miembros en los asuntos o relaciones con la Unión Europea requiere cambios legales, constitucionales o no, pero que no pueden abordarse ni unilateral ni bilateralmente; en todo caso, de modo multilateral.

CONCLUSIONES

Dos de los objetivos declarados para la constitución de la ponencia parlamentaria para la actualización del autogobierno vasco, concretamente lograr el **"máximo consenso entre diferentes"**, y el de **"respetar el ordenamiento jurídico"**





"ordenamendu juridikoa errespetatzea", erabateko porrota izan dira, dokumentu honetako boto partikularrean frogatu dugunez.

Puntu honetan, gutxienez aurretiazko gogoeta gisa, esan behar dugu Ponentzian ordezkatura dauden talde independentistek ez dutela lan egin indarrean dagoen Gernikako Estatutua "erreformatzeko" (Legebiltzarraren mandatua hori zen arren). Aitzitik, oinarrien emaitzak erakusten duenez, helburu politikoa, hasiera-hasieratik, "estatus juridiko-politiko berria" deritzona *ex-novo* eratzea izan da, hau da, Euskadirentzat konstituzio nazionalista bat egitea. Ez gaude, beraz, Autonomia Estatutuaren erreforma baten aurrean. Autonomia likidatzearen eta figura instituzional zehaztugabe batekin ordezkatzaren arriskuaren aurrean gaude; aldaketa honen oinarria euskal herria subjektu subirano gisa aitortzea da, Espainiatik bereizteko eskubidearekin. Ez du garrantzirik asoziazioa bultzatzeak. Planteamendu subiranistak berak haustura dakar, sistema konstituzionalarekiko apurketa; ironikoa bada ere, sistemari bere suntsiketan parte hartzeko gonbidapena egiten zaio.

Ponentzian onetsitako oinarriak (edukiagatik eta irismen politikoagatik esanguratsuenak direnak) EAJren eta EH Bilduren botoekin soilik onetsi dira; haiei ez die axola handirik izan Euskadiz eta euskal herritarrez duten ikuspegi nazionalista eta identitario berezia besteei gailentzea. Gainera, bi talde hauek oinarriok onesten tematu dira, jakinik ere beren asmoak indarrean dagoen ordenamendu juridikotik kanpo daudela.

Talde nazionalistek uko egin diote, berariaz, ezberdinen arteko kontsentsua bilatzeari, honelako maila eta garrantzia dauzkan arau hau onesteko beharrezkoa izan beharko litzatekeena. Euskal

en los documentos y textos resultantes, han resultado ser un fracaso rotundo, tal y como ha quedado acreditado a lo largo del voto particular contenido en este documento.

Conviene señalar en este punto, al menos como consideración previa, que los grupos independentistas representados en la ponencia no han trabajado para "reformat" el Estatuto de Gernika vigente (lo que era mandato parlamentario), sino que, tal y como demuestra el resultado de las bases, su objetivo político ha sido desde un principio configurar, *ex-novo*, un llamado "nuevo estatus jurídico-político", una constitución nacionalista para Euskadi. No estamos, por tanto, ante una reforma del Estatuto de Autonomía. Estamos ante el riesgo de liquidación de la autonomía y su sustitución por una figura institucional indeterminada cuya base es el reconocimiento del pueblo vasco como sujeto soberano, con derecho de secesión del conjunto de España. No importa que se propugne la asociación. El planteamiento soberanista en sí mismo introduce una quiebra, una ruptura con el sistema constitucional, al que irónicamente se invita a participar en su propia destrucción.

Las bases aprobadas por la ponencia, las más relevantes por su contenido y alcance político, han sido aprobadas en exclusiva con el concurso del PNV y EH Bildu, a quienes poco ha importado que impere su particular visión nacionalista e identitaria de Euskadi y los vascos. Además, ambos grupos han insistido pertinazmente en aprobar dichas bases aun siendo conscientes de que sus pretensiones se sitúan claramente al margen del ordenamiento jurídico vigente.

Los grupos nacionalistas han renunciado expresamente a buscar el consenso necesario entre diferentes que exige la aprobación de una norma de semejante rango y trascendencia. Han





gizartearen zati bat, nazionalista ez dena eta hala sentitzen ez dena, hemen integratzeari uko egin diote. Hori ez da txikikeria; geure buruari galdetu beharko genioke nola nahi duten talde nazionalistek, lehengai hauekin, testu artikuludun bat idazteko eskatuko zaien bost "legelari adituek" eginkizun hau ondo burutu dezatela, oinarrietan ezarritakoa betez, legea betez eta, gainera, Legebiltzarren zati handi bat eta, beraz, euskal herritarren multzo handi bat (PSE, Elkarrekin Podemos eta Euskal Alderdi Popularra) baztertuz.

Modu berean, oinarriak idatzi baino lehen, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak Ponentzia parlamentarioari eman zizkion eginbeharretako bat indarrean dagoen Gernikako Estatutuaren "estatutu-garapenaren ebaluazioa" egitea izan zen. Ponentzian oinarritutako agerraldien, agirien analisisen eta eztabaiden ondoren, estatutuaren garapenaren ebaluazioa nagusiki positiboa izan zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialarentzat onura objektiboak dituela ondorioztatu zen.

Talde independentistek (EAJk eta EH Bilduk) txikiagotu edo ezkutatu nahi izan duten arren, bidezkoa da Gernikako Estatutuaren funtzio egituratzailea aitortzea eta Euskadiren artikulazio politikoaren esparru gisa izan dituen lorpenak baloratzea, bertan legitimatzen eta jasotzen baitira gure eskubide historikoak, sistema konstituzionalaren barruan. Konstituzioa eta Estatutua baitira gure autogobernu-erakundeei buruzko erabakian euskal herritarren borondatea aipatzen duten lehenak, eta gure Ekonomia Ituna (baliabide publikoak hobeto kudeatzeko finantza-tresna nagusia) eta, finean, gure askatasunak, gure garapena eta gure bizikidetzak bermatzen dituzten espazio juridikoak babesten eta bultzatzen dituztenak.

renunciado a incluir a una parte de la sociedad vasca que ni es ni se siente nacionalista. Lejos de ser una cuestión menor, cabe preguntarse cómo es posible que con estos miembros los grupos nacionalistas pretendan que los cinco "expertos juristas" a los que se encomendará la redacción de un texto articulado, siendo fieles a lo marcado por las bases, puedan acometer semejante tarea con éxito, adecuándose a la ley y obviando además a una parte sustancial de la Cámara vasca y, por lo tanto, de los vascos (PSE, Elkarrekin Podemos y Partido Popular Vasco).

Así mismo, y con carácter previo a la redacción de las bases, una de las encomiendas que el Pleno del Parlamento Vasco realizó a la ponencia parlamentaria fue la "evaluación del desarrollo estatutario" del Estatuto de Gernika vigente. Tras numerosas comparecencias sustanciadas en la ponencia, análisis de documentos y debates, fue mayoritaria la evaluación positiva del desarrollo estatutario así como de sus beneficios objetivos para el desarrollo económico y social de la Comunidad Autónoma vasca.

Aunque por parte de los grupos independentistas (PNV y EH Bildu) se ha pretendido minimizar u ocultar este aspecto, es de justicia reconocer el papel vertebrador del Estatuto de Gernika, valorar sus logros como marco de la articulación política de Euskadi, donde se legitiman y consagran nuestros derechos históricos dentro del sistema constitucional. Porque son la Constitución y el Estatuto los que incorporan por primera vez la voluntad de los vascos en la decisión sobre nuestras instituciones de autogobierno, los que salvaguardan y potencian nuestro Concerto Económico, principal herramienta financiera para gestionar mejor los recursos públicos y, en definitiva, los espacios jurídicos que garantizan nuestras libertades, nuestro desarrollo y nuestra convivencia.





Gernikako Estatutua euskal herritarren arteko elkargunea da. Bizikidetzaz-esparru honi esker, Euskal Autonomia Erkidegoak bere historia osoko garapen-, ongizate- eta autogobernugaraitik handienak lortu ditu. Alderdi Parlamentario Popularrak Gernikako Estatutua indarrean dagoela aldarrikatzen du: ez bakarrik batzen gaituena jasotzeko duen gaitasunagatik, baizik eta euskal herritarren artean daukan babesarengatik ere bai. Azken Euskobarometroaren datuen arabera (2018ko uztaila), Euskadiko herritarren % 81a pozik dago Estatutuarekin. Babes hori, azken lau urtean –hau da, Ponentzia landu den denboran–, 27 puntu handitu da. Ez dirudi, beraz, Ponentziaren bidez herritarrak estatutu berri baten beharraz konbentzitu ahal izan dituztenik.


Gure autonomiaren garapenak azken hamarkadetan ondo funtzionatu du, eta lege-esparruetan beti ager daitezkeen interpretazio-arazoak ebatzi ahal izan ditu. Arazo horiek oso txikiak izan dira, dena den, nahiz eta batzuek esajeratzeko joera daukaten, ustezko ez-betetzeen txostenak baliatuz, beren helburua betetzeko xedez, alegia, herritar guztion artean diseinatu genuen sistemaren funtzionamendua etengabe auzitan jartzeko.

Estatutuak historian inoiz existitu ez den erkidego politiko bat sortu zuen. Biztanleria osoak babestu zuen, tolerantzia eta bakean elkarrekin bizitzeko itxaropen handia zekarrelako, euskal herritar guztiek lekua zeukaten Estatutua baitzen. Funtsezkoa da gogoratzea Estatutu honek euskal hautesleen % 90 baino gehiagoren babesa jaso zuela. Aldaketa-proposamen bat kontuan hartzeko, babes-maila berdina izan beharko litzateke, gutxienez.

El Estatuto de Gernika representa el punto de encuentro entre vascos y el marco de convivencia que ha permitido al País Vasco conseguir las mayores cotas de desarrollo, bienestar y autogobierno de su historia. Desde el Grupo Parlamentario Popular reivindicamos la vigencia del Estatuto de Gernika, no solo por su capacidad para recoger todo aquello que nos une, sino por el respaldo que suscita entre los propios ciudadanos vascos. Según datos de último Euskobarómetro (julio 2018), el 81 % de la ciudadanía de Euskadi se sigue mostrando satisfecha con el Estatuto, un apoyo que en los últimos cuatro años, esto es, durante el tiempo de trabajo de la ponencia, ha crecido en 27 puntos. No parece, por tanto, que la misma haya servido para convencer a la ciudadanía de la urgencia de un nuevo Estatuto.

El desarrollo de nuestra autonomía ha funcionado durante las últimas décadas y ha sido capaz de resolver los problemas de interpretación que siempre pueden aparecer en los marcos legales, problemas que han sido mínimos, por mucho que haya algunos que siempre intenten magnificarlos, bajo informes de supuestos incumplimientos, para alcanzar su objetivo de cuestionar continuamente el funcionamiento del sistema que entre todos los ciudadanos diseñamos.

El Estatuto estableció una comunidad política que nunca había existido en la historia, con una población que le prestó apoyo prácticamente universal porque representaba una enorme esperanza de convivencia en tolerancia y en paz, porque era un Estatuto en el que cabían todos los vascos. Es fundamental recordar que este Estatuto obtuvo el apoyo de más del 90 % de los electores vascos. La toma en consideración de una propuesta de modificación tendría que contar, cuando menos, con un grado de apoyo semejante.





Gure autonomiaren funtsezko osagaia den Gernikako Estatutuaren betetze baketsu, eraginkor eta leiala nahitaezko erreferentzia izan da, eta aurrerantzean ere izango da, Alderdi Popularrarentzat. Horixe baita herritarrek adierazitako borondatea, eta horrek ahalbidetu eta ahalbidetuko baitu geure autogobernua garatzea. Estatutuak, ondo kudeatuta badago, Euskadiren ongizatea eta hazkundera bermatzen ditu.

Zalantzarik gabe, gizalan oro bezala, Gernikako Estatutua hobetu egin daiteke. Baina bidezkoa da aitortzea, ia berrogei urteren ondoren, tresna malgua dela erakutsi duela. Malgutasun horri esker, erakundeak errealitate aldakorrari egokitu dizkiogu gure historia politikoan izan diren gertakari garrantzitsu guztietan zehar, esate baterako, Espainia 1985. urtean Europako Erkidegoan sartu zenekoan. Haren izaera irekia, esparru zabala izateko bokazioa, arau orokor eta argiekin, une bakoitzean politika publikoen garapena oztopatu edo galaraziko luketen mugetatik ihesi, haren bertute nabarmenetako batzuk izan dira.

Estatutuak funtzionatzen du, baita ondo funtzionatu ere. Beraz, ezin zaio berari leporatu froga-zama. Haren aurka daudenek eta likidatu nahi dutenek esan behar dute zein alderdi zehatzetan egiten duen Estatutuak kale, eta non datzan hobetzeko aukera. Ponentzian ez baita halakorik argitu. Beraz, ez da frogatu Estatutuaren alderdi zehatzik erreformatu beharra dagoenik.

Bukatzeko, talde independentistek (EAJk eta EH Bilduk) onetsitako oinarriek ez dute kontsentsurik ez transbertsaltasunik lortu beren onespenean, ordenamendu juridikotik kanpo daude, eta euskal herritarren artean zatiketa sortzen dute. Eta hori gutxi balitz, ospe eta sinesgarritasun


El pacífico, efectivo y leal cumplimiento del Estatuto de Gernika, pieza fundamental de nuestra autonomía, ha sido y seguirá siendo referencia obligada para el Partido Popular, por cuanto es la voluntad expresada de los ciudadanos, que ha permitido y permite el desarrollo de nuestro autogobierno y, bien gestionado, supone la garantía de bienestar y crecimiento para Euskadi.

Sin duda, como toda obra humana, el Estatuto de Gernika es susceptible de mejora. Pero es justo reconocer que, tras casi cuarenta años, se ha mostrado como una herramienta flexible que ha permitido la adaptación de nuestras instituciones a una realidad cambiante que ha conocido hitos tan significativos en nuestra historia política como el ingreso de España en la Comunidad Europea en 1985, por poner sólo un ejemplo. Su carácter abierto, su vocación de servir como un marco amplio, con reglas generales y claras, huyendo de limitaciones que pudieran encorsetar o impedir el desarrollo de las políticas públicas en cada momento, ha representado una de sus mejores virtudes.

El Estatuto funciona y funciona bien. No puede recaer, en consecuencia, sobre él la carga de la prueba. Sus detractores y quienes pretenden liquidarlo han de señalar en qué aspectos concretos se produce el fallo y dónde está la posibilidad de mejora, cuestiones que no se han aclarado en el devenir de la ponencia. No ha quedado por tanto acreditada la necesidad de su reforma en ningún aspecto concreto.

Concluyendo, las bases aprobadas por los grupos independentistas (PNV y EH Bildu) no han logrado consenso ni transversalidad en su aprobación, se sitúan al margen del ordenamiento jurídico, y dividen a los vascos. Por si esto fuera poco, estudios demoscópicos de reconocida





handiko azterlan demoskopiko batek, Euskobarometroak, bere azken zenbakian, 2018ko maiatzaren 9tik 26ra bitartean egindako landa-lan bati buruzkoan, azaldu zuen hamar euskal herritarretik zortzik "guztiz baliodontzat" jotzen dutela Gernikako Estatutua beren "nahi politiko eta sozialak" asetzeko, eta hamar euskal herritarretik soilik hiruk adierazten dutela "independentzia lortzeko nahi handia" dutela.

Euskal nazionalismoak nora eraman nahi gaituen galdetu behar diogu geure buruari. Hau ote den planteatzen ari den berrikuspen sakonari heltzeko unea, eta horretarako inguruabar politiko eta sozial egokiak dauden. Erantzuna ezezko biribila da. Jarrerak erabat aldentuta daude: ehundu nahi den akordioa, transbertsala izango litzatekeena eta kontsentsu zabal bat jasoko lukeena, ez da inondik inora ikusten.

Euskal Autonomia Erkidegoak egonkortasun politikoa bizi du, eta egonkortasun hori ezinbestekoa da une honetan: krisi ekonomiko izugarri batetik irten gara, eta orain lehenetasun nagusia orduan galdu ziren hazkunde-, enplegu- eta ongizate-mailak lehengoratzeko eta sendotzea da, oraindik ere euskal familia askok krisiaren ondorioak pairatzen baitituzte. Ziurgabetasun-egoera batean sartzeak ekonomiaren susperraldia, erakundearen egonkortasuna eta bizikidetzaren kinka larrian jarriko litzuke.

Estatutuaren erreformaren itzalpean prozesu subiranista bat irekitzeko, autodeterminazio-eskubidearen babespean, euskal gizartea berriro zatituko luke eta bizikidetzaren nahastuko luke; gainera, ekonomikoki ondorio kaltegarriak biziko genituzke. Horrenbestez, alde bakarreko bideei uko egin behar zaie, eta konturatu behar gara autodeterminazio-eskubidea alde bakarreko bidea dela beti; ezinezkoa da estatu demokratiko batean itunak egitea, horrek herritarren gehiengoari bere

solvencia y prestigio, como el Euskobarómetro, apunta en su última publicación, sobre un trabajo de campo realizado entre los días 9 y 26 de mayo de 2018, que ocho de cada diez vascos encuentran "totalmente válido" el Estatuto de Gernika para colmar sus "aspiraciones políticas y sociales", y tan solo tres de cada diez vascos expresan un "deseo grande de alcanzar la independencia".

Cabe preguntarse a dónde pretende llevarnos el nacionalismo vasco. Si es este el tiempo y se dan las circunstancias políticas y sociales que aconsejen acometer la revisión profunda que se viene planteando. La respuesta es claramente negativa. Las posiciones están tan alejadas, que no se acierta a ver qué acuerdo se pretende tejer y que pueda ser transversal y merecedor de un consenso amplio.

El País Vasco goza de una situación de estabilidad política que es esencial en un momento, después de una gravísima crisis económica, en el que la prioridad no puede ser otra que recuperar y consolidar los niveles de crecimiento, empleo y bienestar que se perdieron y que siguen penalizando a muchas familias vascas. Abrir un escenario de incertidumbre pondría en riesgo la recuperación económica, la estabilidad institucional y la convivencia.

Abrir un proceso soberanista al amparo de una reforma estatutaria, invocando el derecho de autodeterminación, no sólo volvería a dividir a la sociedad vasca y a perturbar la convivencia, sino que acarrearía consecuencias muy negativas en materia económica. Por tanto, se ha de renunciar a vías unilaterales y ser conscientes de que el derecho de autodeterminación es siempre una vía unilateral, que no es posible pactar en un Estado democrático en la medida en





eskubide politikoak ukatzea ekarriko lukeen neurrian.

Testuinguru politiko eta soziala, beraz, ez da egokia kontsentsu-bermerik izango ez lukeen edo aldebakarreko bideetara (adostu ezinezkoak) eramango gintuzkeen prozesu bati ekiteko.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idazki honek, EAJk eta EH Bilduk onetsitako oinarriei Talde Parlamentario Popularrak ematen dien boto partikularra ez ezik, oinarri horiek atzera botatzeko eskaera formala izan nahi du, oinarriok indarrean dagoen legeriatik kanpo daudelako, Euskal Autonomia Erkidegoaren ikuspegi nazionalista eta independentista baino ez dutelako kontuan hartzen, eta euskal herritarrak, oro har, ziurgabetasun-prozesu batean eta konpondu ezinezko talka politiko batean murgilduko gintuzketelako.

SV-ES TALDEAK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA

Euskal Sozialistak legebiltzar-taldearen iritziz, gure autogobernua eguneratzeko irekitako prozesua aukera on bat da eskura ditugun erremintak modernizatzeko, batez ere, horri esker herritarren bizitza hobetu eta gure erkidegoaren gizarte-kohesiorako borondatea sakondu ahal izango dugulako. Gure ustez, talde askok partekatzen duten borondate bat da, eta gauza askotan erabakiak aho batez hartzeko aukerak ere ikusten ditugu, baina hori ez da kontuan hartu gehiengoak adostu dituen oinarrien espirituan eta letran.

- Espirituan diogu, zeren eta, 79an erdietsitako adostasunak are gehiago zabaltzeko aukera dagoela ikusirik, Euskadin ditugun sentsibilitate eta identitate desberdinen arteko bizikidetzaitun gisa, nahiago izan

que supondría privar de sus derechos políticos a una mayoría de ciudadanos.


El contexto político y social no invita, pues, a iniciar un proceso sin garantías de consenso o que pueda derivar en vías unilaterales, imposibles de pactar.

A tenor de lo anteriormente expuesto, sirva el presente escrito no solo como un voto particular del Grupo Parlamentario Popular a las bases aprobadas por PNV y EH Bildu, sino también como solicitud formal de retirada de las mencionadas bases, por situarse fuera de la legalidad vigente, reflejar en exclusiva la visión nacionalista-independentista del País Vasco, y sumirnos al conjunto de los vascos en un proceso de incertidumbre y choque político de imposible resolución.

VOTO PARTICULAR PRESENTADO POR EL GP SV-ES

El grupo parlamentario Socialistas Vascos considera que el proceso abierto para la actualización de nuestro autogobierno es una oportunidad para modernizar las herramientas a nuestro alcance que permitan mejorar la vida de la ciudadanía y profundizar en la vocación de cohesión social de nuestra comunidad. Entendemos que esa intención es ampliamente compartida por los grupos, con posibilidades incluso de unanimidad en muchos aspectos, y que no se ha tenido en cuenta ni en el espíritu ni en la letra de las bases que una mayoría ha acordado.

- En el espíritu, porque, frente a la oportunidad de ampliar los consensos que se alcanzaron en el 79, como pacto de convivencia entre las diferentes sensibilidades e identidades que existen en Euskadi, se ha elegido





baitute sentsibilitate nazionalista desberdinen artean gehiengoak osatzeko bideari heldu, horrelako beste testu batzuetan eskatzen den gehiengo kualifikatuaren mailara iristen ez diren arren.

(9. Eranskina, bigarren paragrafoa, Estatutua erreformatzeko eska daitezkeen gehiengoei buruz).

- Eta letran diogu, zeren eta, delako gehiengo horren asmo legitimoak beteko dituzten proposamen batzuk aurrera atera ahal izango diren arren, Konstituzioaren xedapenen aldebakarreko interpretazio bat eginda, gainditu egingo baitituzte Legebiltzar honi esleitutako gaitasunak.

(1. Eranskina, autogobernua eguneratzearen inguruko alde aurreko gogoeta batzuk)

Alde horretatik, beharrezkoa da gogoratzea, Ganbera honetako Osoko Bilkurak 2017ko urtarrilaren 26an emandako aginduarekin bat etorritik, proposatzen den testu artikulatu horrek aipatu egin behar duela "Gernikako Estatutuaren erreforma **ordenamendu juridikoa errespetatuz egingo dela**" (11. Eranskina).

Eta autonomia-araubidea erdietsi zuen lehen erkidegoa Euskadi izanenez eta oraindik eguneratu ez duen bakarra ere bera denez, beste estatutu batzuetako erreformekin loturik garatutako konstituzio-doktrina oso-osea aztertu beharko da. Doktrina horretan, gizarte-errealitate berrietara eta Europako testuingurura egokitzeko aukera ezin zabalagoak topatzen ditugu, Konstituzioan eta lehen estatutuetan jorratu gabeak, eta doktrina horrek adierazten digunez, estatutuek duten muga bakarra Konstituzioaren funtsezko oinarriak aldatzeko modurik ez izatea da.

el camino de sumar mayorías de las distintas sensibilidades nacionalistas, que ni siquiera alcanzan el rango de cualificadas que se exige en otros textos de este tipo.

(Adenda 9, párrafo segundo, en relación con las mayorías exigibles para reformar el Estatuto)

- En la letra, porque esa suma se transforma en propuestas que responden a las legítimas aspiraciones de esa mayoría pero que, desde una interpretación unilateral de disposiciones constitucionales, desbordan las capacidades que son atribuibles a este Parlamento.

(Adenda 1, consideraciones previas ante la actualización del autogobierno)

En este sentido, es necesario recordar que el mandato del Pleno de la Cámara del 26 de enero de 2017 indica que el texto articulado que se proponga elaborar debe enunciar "una reforma del Estatuto de Gernika, **respetando el ordenamiento jurídico**" (Adenda 11).

Y que, siendo Euskadi la primera comunidad que accedió a su régimen autonómico y la única que no lo ha actualizado, se debe tener en cuenta toda la doctrina constitucional desarrollada en relación con las reformas de otros estatutos. Una doctrina que muestra un camino de amplísimas oportunidades de adaptación a nuevas realidades sociales y al propio contexto europeo, que no se contemplaban ni en la Constitución ni en los primeros estatutos, y que indica como única limitación que desde esos estatutos no se puede modificar aspectos nucleares de la Constitución.





Doktrina hori kontuan izanik, Euskal Sozialistak taldeak hasiera-hasieratik adierazi zuen, baita lantaldean erregistratu diren agiri guzti-guztietan ere, Konstituzioaren erreforma batek aukera emango ligukeela gure eskumen-aukerak, hots, euskal instituzioek geure gain hartzea erabaki genuen erantzukizun horiek, luze eta zabal sakontzeko, horien interpretazioan izandako gatazkak bideratzeko modu berriak erabiliz, epaitegietara jo beharrik ez izateko, edo etengabe helegiteak jarri beharrik ez izateko, Konstituzio Auzitegia ez dadin bihurtu beste foro batzuetan zuzendu daitezkeen desberdintasunen epaile. Baina aukera horrek bere bidea egin bitartean, denok onartu behar dugu, egin daitezkeen aldaketa ugari horiek egitekotan, bere garaian adostu genituen arauak aldatu gabe egin behar direla. (1. eranskina)

Euskal Sozialistak taldearen iritziz, onetsitako oinarri horiek hitzaurretik bertatik definitutako printzipio zehatz batzuetan oinarrituta daude eta, bere garaian ohartarazi genuen moduan, printzipio horiek baldintzatu egiten zuten atzetik etor zitekeen guztia, eta izan ere, halaxe gertatzen da, printzipio horietan bermatuz egin daitezkeen guztiaren segurtasun juridikoa zalantzan jarriz.

Oinarrien agiri horrek, lehen atal horretan, kontakizun nahasia eskaintzen du Euskal Herriaren errealitate sozial, historiko eta kulturalari buruz, euskal herriaren kontzeptuari buruz eta estatutu eguneratu batean xedatzen denak izan dezakeen lurralde-hedadurari buruz, eta beraz, ikuspegi juridiko batetik argitu beharra ekarriko luke horrek. Baina gainera, **demokraziaren eta legezketasunaren printzipioak elkarren aurka jartzen ditu, eta lehenengoa bigarrenaren – konstituzio-errealitatearen– interpretazio partikular baten gainetik lehenesten du**, erabakitzeko eskubide deitu izan dena sendotu nahirik, eta, adierazten den eran adierazten dela ere, horren xedea da

Teniendo en cuenta esa doctrina, el grupo Socialistas Vascos señaló desde el principio, y en todos y cada uno de los documentos registrados en la ponencia, que una reforma constitucional permitiría una ampliación real de nuestras posibilidades competenciales, de las responsabilidades que decidimos asumir desde las instituciones vascas, con nuevas formas de dirimir conflictos de interpretación de las mismas para evitar la judicialización o el recurso sistemático para que el Tribunal Constitucional se constituya en árbitro de las diferencias que puedan solventarse en otros foros. Pero, mientras esa posibilidad se abre paso, lo que corresponde es asumir que los muchos cambios que se puedan introducir se hagan sin modificar las reglas que pactamos en su momento (*Adenda 1*).

El grupo Socialistas Vascos aprecia que esas bases aprobadas se sustentan en unos principios identificados desde su mismo preámbulo que, como advertimos también en el momento oportuno, condicionaban todo lo que viniera detrás, como así ocurre, poniendo en cuestión la seguridad jurídica de todo lo que pudiera hacerse sobre estas premisas.

El documento de bases presenta en ese primer apartado un relato confuso sobre la realidad social, histórica y cultural de Euskal Herria, el concepto de pueblo vasco y el alcance territorial de lo que se dispusiera en un estatuto actualizado, que requeriría una aclaración en términos jurídicos. Pero además **confronta los principios democrático y de legalidad, haciendo prevalecer el primero sobre una interpretación particular del segundo**, de la realidad constitucional, para consolidar el llamado derecho a decidir, que, se exprese como se quiera expresar, pretende que cualquier mayoría en cualquier momento pueda establecer cualquier tipo de relación con el resto del





edozein gehiengok edozein unetan edozein eratako harremana finkatu ahal izatea Estatuaren gainerako lurraldearekin, Espainiako Konstituzioaren 1.2 eta 2 artikuluetan xedatutakoari jaramonik egin gabe.

- Proposatutako oinarri horiek, beraz, beren 33. paragrafoan honelaxe diote berariaz: "Euskal autogobernuaren eguneratzean zilegitasunaren printzipioari erantzun behar zaio. **Dena dela, zilegitasun-printzipioa errespetatzeak ezin dezake printzipio demokratikoa urratzea ekarri. Printzipio honek lehen mailako balore garrantzitsua eman behar dio euskal herritargoaren borondateari**".
- Eta 34.ean: "Horrenbestez, euskal herritarrek beren borondate kolektiboa erabakitzeko, adierazteko eta gauzatzeko eskubidea eta ahalmena aitortzea da xedea, beren borondatez erabakitako elkarbizitza-formulak erdietsi daitezen eta lortutako konpromiso horiek errespetatuak izango direla bermatuko duten mekanismoak finkatu daitezen".

Euskal Sozialistak taldeak itzulingururik gabe defendatzen du herritarrei eragiten dieten gaien inguruko erabakiak hartzean Euskadiko botere publiko bakoitzak berezkoak dituen gaitasunen esparruan parte hartu ahal izatea, baina horiek guztiak, jakina, horretarako itundutako formulen bitartez bideratu behar dira. Kontraesan hori gainditzeko, hitzaurrerako oinarri horiek adostu dituztenek **lege aldetik zalantzak sortzen dituen euskarri bati heldu nahi izan diote Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren bidez**, eta horrek, Konstituzioan bertan lurraldeen deszentralizazioaren inguruan aurreikusitakoa aldatzera ere bultzatu ditu, proposamenaren 37. paragrafoan ikus

Estado, obviando lo dispuesto en los artículos 1.2 y 2 de la Constitución española.

- Así, las bases propuestas señalan expresamente en su párrafo 33: "La actualización del autogobierno vasco debe atender el principio de legalidad. **No obstante, el respeto a la legalidad no debe provocar la vulneración del principio democrático. Un principio que exige dotar de un valor relevante y primario a la decisión de la ciudadanía vasca**".
- Y en el 34: "Se trata, por tanto, de reconocer el derecho y la capacidad de los vascos y las vascas para decidir, expresar y ejercer su voluntad colectiva de cara a la consecución de fórmulas de convivencia acordadas voluntariamente y de establecer mecanismos que garanticen que los compromisos alcanzados serán respetados".

El grupo Socialistas Vascos defiende sin ambages la participación de la ciudadanía en la toma de decisiones sobre las cuestiones que le afectan en el ámbito de las competencias que son propias de cada poder público vasco, pero todas y cada una de ellas deben encauzarse en las fórmulas pactadas para hacerlo. Para salvar esta contradicción, quienes han acordado esas bases para el preámbulo buscan un **sopORTE dudosamente legal en la disposición adicional primera de la Constitución**, lo que les conduce incluso a cambiar lo previsto en la propia Constitución para la descentralización territorial, como se refleja en el párrafo 37 de la propuesta:





daitekeen moduan:

"Eskubide historiko hauen titularra Euskal Herria da eta bere nazio-nortasuna da aitortzen zaion errealitate juridiko eta instituzionala oinarritzen duena. Testu artikulatuak aurrera egin beharko du 1978ko Konstituzioak babesten eta errespetatzen dituen euskal eskubide historiko horiek eguneratzen, Gernikako Estatutuak eta Estatuko legeria arruntak jada gauzatua duten eguneratzea sendotuz eta herritarren ongizatea bermatzeko beharrezkoak diren eremu eta gai guztietara zuzenduz, gure autogobernua sakontzeko eta gotortzeko aukera emango duten mailetaraino hedatu dadin horren interpretazioa, eta Euskal Herriarentzat Konstituzioaren helduleku gisa balio izan dezan Estatuarekin alde biko harreman-eredu berri bat finkatzeko, elkarrenganako errespetuan eta aitortzan oinarritua eta izaera konfederala izango duena".

Proposatutako oinarri horiek ez dute adierazten Euskadiko egungo errealitateak kontuan hartzen duela xedapen gehigarri hori, baina baita bigarren xedapen iragankorra ere, zeinak Konstituzioaren VIII. titulura bideratzen gaituen, eta beraz, ezin daiteke bat bestea gabe ulertu, lurralde-ereduaren aldaketarik gertatu ezean, eta horrek, edonola ere, sozialiston ikuspegitik, orientabide federalekoa izan beharko luke nahitaez (*10. Eranskina*).

Hitzaurrea hedadura horrekin justifikatzeko argudioen artean aipatu dutenez, eragin juridikorik ez duen zati bat da. Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak argi eta garbi esan duen moduan, **hitzaurreek, arau-baliorik ez izan arren, badute balio juridikoa.**

Horrelaxe gogoratzen da Kataluniako Estatuarekin loturik aurkeztutako

"El titular de los derechos históricos es el Pueblo Vasco, cuya identidad nacional fundamenta su reconocida realidad jurídico-institucional. El texto articulado, deberá avanzar en la actualización de esos derechos históricos vascos que la Constitución de 1978 ampara y respeta, consolidando la actualización ya operada por el Estatuto de Gernika y la legislación ordinaria del Estado, y proyectándola hacia todos los ámbitos y materias necesarias para garantizar el bienestar de la ciudadanía, extendiendo su interpretación a nuevos niveles que posibiliten la profundización y el blindaje de nuestro autogobierno y sirva de percha constitucional al Pueblo Vasco o Euskal Herria para configurar un nuevo modelo de relación con el Estado, bilateral, de respeto y reconocimiento mutuos, de naturaleza confederal".

Las bases planteadas obvian que la realidad actual de Euskadi tiene en cuenta esa adicional, pero también la transitoria segunda, que remite al título VIII de la Constitución, y que no cabe entenderse lo uno sin lo demás, salvo un cambio de modelo territorial que en cualquier caso, y desde el punto de vista socialista, debería ser de orientación federal (*Adenda 10*).

En las argumentaciones para justificar este preámbulo con este alcance se ha señalado que se trata de una parte sin efectos jurídicos. Sin embargo, tal y como ha dejado claro el Tribunal Constitucional, **los preámbulos, aunque no tienen valor normativo, tienen valor jurídico.**

Así se recuerda en los fundamentos referidos a los recursos presentados en





helegiteei buruzko oinarrietan (Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 Epaia, ekainaren 28koa), non esaten baita legeen hitzaurreek eta zioen azalpenek, "nahiz eta juridikoki nahitaezko eraginik ez izan, eta beraz, zuzenbideko arauen berezko arau-baliorik ez izan, badutela juridikoki kualifikatutako balio bat arau horiek interpretatzeko jarraibide gisa. Horien hartzaila, horrenbestez, Zuzenbidearen interpretea da, jokabide bat betetzera behartua dagoena baino gehiago, zeren eta hitzaurreak, definizioz, ezin baitu horrelakorik ezarri".


Eta aipatutako Kataluniako Estatutuaren kasuan, Konstituzio Auzitegiak interpretatu du erkidego hori naziotzat jotzeak ez duela gerora begira eraginkortasun juridikorik, eta bertan agertzen diren beste era bateko definizioak, interpretazio politiko desberdinak izan ditzaketan arren, Zuzenbidearen ikuspegitik mugatuta geratzen dira, testu horretan bertan onartzen baita "Konstituzioarekin bat etorriz" gauzatzen dela autogobernua. Hala eta guztiz ere, aipamen hori ez da ageri Eusko Legebiltzarreko autogobernua-lantaldeak aipatzen dituen oinarrien artean.

Estatutua eguneratzeko oinarrien sostengu gisa Legebiltzarren gehiengoak proposatu dituen euskarri horiek direla eta, atariko tituluan bertan, eta beraz, araubalio osoarekin, alegia, interpretazio baten mende egon beharrik gabe, argi eta garbi adierazten da, beste edozein ohararazpenen gainetik, **"herri-borondatea dela erabaki politikoaren muga bakarra**, eta sentsibilitate eta ideia politiko guztiekiko errespetua eta babesa izango direla elkarbizitza demokratikoaren ardatzak", eta horrez gain, **"legezkotasunaren printzipioa ez da muga** izango printzipio demokratikoa zabaldu dadin, baizik eta euskal herritarren borondatearen adierazpide ordenatua egiteko bide egokia, eta proiektu politiko guztiak berdintasunezko baldintzetan gauzatu ahal izateko esparrua, betiere

relación con el Estatut de Catalunya (STC 31/2010, de 28 de junio), al señalar que los preámbulos y exposiciones de motivos de las leyes, "sin prescribir efectos jurídicamente obligados y carecer por ello del valor preceptivo propio de las normas de derecho tienen un valor jurídicamente cualificado como pauta de interpretación de tales normas. Su destinatario es pues el intérprete del Derecho antes que el obligado a una conducta que, por definición, el preámbulo no puede imponer".

Y en el caso citado del Estatut el Constitucional interpreta que la consideración de aquella Comunidad como nación no tiene eficacia jurídica posterior y que otro tipo de definiciones que allí aparecen, de distintas posibles interpretaciones políticas, desde el punto de vista del Derecho quedan acotadas al asumirse en ese texto que el ejercicio de autogobierno se hace "de acuerdo con la Constitución". Sin embargo, dicha alusión no aparece en las bases a las que nos refiere la ponencia de autogobierno del Parlamento vasco.

Como consecuencia de esos pilares en los que la mayoría parlamentaria propone sustentar las bases de la actualización estatutaria, en el título preliminar, ya con plena validez normativa, ya no sujeta a más interpretación, se reproduce con nitidez como primera de cualquier otra consideración que **"la voluntad popular como único límite** de las decisiones políticas y el respeto y protección de todas las sensibilidades e ideas políticas serán los ejes de la convivencia democrática", y que **"el principio de legalidad no será límite** para el despliegue del principio democrático, sino el cauce adecuado para la expresión ordenada de la voluntad de la ciudadanía vasca y el marco para que todos los proyectos políticos puedan ser materializados en términos de igualdad





herritarren gehiengoaren babesba jasotzen badute" (Atariko tituluaren oinarriak, 2.0. Atariko tituluaren printzipio orokorrak, 2. paragrafoa).

Oinarri horietan helburutzat aldarrikatu arren, **itundutako arau batzuen bidez bakarrik babestu daiteke aniztasuna eta gehiengo baten bidez bakarrik ezin daitezke arau horiek ordezkatu, horrek segurtasun juridikorik gabe utziko lukeelako aurrerantzean abiarazten den edozein prozedura, eta sentsibilitate desberdinen arteko edozein elkarbizitza-hitzarmenetan funtsezko auzi bat da Estatutuak nolakoa izan behar duen zehaztea.**

Erabakitze eskubidea deitu izan dena berresten du jarraian titulu horrek, Konstituzioaren artikulua bati bakarrik egiten dio aipamena, Konstituzioaren gainerako aurreikuspenak alde batera utziz, eta lurralde-eredua berrantolatzen du, izaera "konfederalaren" arabera, Euskadik Espainiaren gainerakoarekin izan beharreko harremanak finkatzeko orduan.

Horri guztiari gai benetan kezagarria gehitzen zaio, taldeen hasierako proposamenetan ere ez zegoena eta fase honetan jakinaren gaineko anbiguotasun batez txertatzen dena, eta hain zuzen ere, "Herritartasunaren eta nazionalitatearen" gaiari buruzko 2.8 kapituluak da. Itxura batean inolako ondorioz izango ez balu bezala, administrazio arloko bizilagun guztiei aitortzen baitzaie herritartasuna, beren eskubideak babestuta dituztela, izaera hori "naziotasunarenetik" bereiziko duen lege bat aurreikusten da. Horrek, inolako zalantzarik gabe, **Euskadin bizi direnen kategorizazio bat dakar, zerbitzu publiko guztiak edukitzeko eskubidea dutenen eta etorkizuneko testu horretan erabakitzen denaren artean.**

Gure talde honek ezin du halako


siempre que conciten el respaldo mayoritario de la ciudadanía"(Bases de título preliminar, 2.0. Principios generales del título preliminar, párrafo 2).


Por mucho que se invoque como desiderátum en estas bases, **la pluralidad únicamente se puede preservar por unas normas pactadas que no pueden ser sustituidas solo por una mayoría, porque esto desprovee de seguridad jurídica cualquier procedimiento en adelante, y es una cuestión nuclear en cualquier pacto de convivencia entre las distintas formas de sentirse, como debe ser el Estatuto.**

Dicho título continúa con la consolidación del llamado derecho a decidir, la alusión a un único artículo constitucional que prescinde del resto de las previsiones de la Carta Magna, o la reconfiguración del modelo territorial con la consideración "confederal" para determinar las relaciones de Euskadi con el resto de España.

Y a ello se suma una cuestión extraordinariamente preocupante, que ni siquiera estaba en las propuestas originales de los grupos y que se incorpora en esta fase con una ambigüedad deliberada, como es el capítulo 2.8 sobre "Ciudadanía y nacionalidad". Con apariencia inocua, dado que se reconoce a toda la vecindad administrativa la condición ciudadana con preservación de sus derechos, se prevé una ley que distinga esta condición de la de "nacionalidad". Esto de forma incuestionable plantea una **categorización de quienes residen en Euskadi, entre quienes tienen derecho a disponer de todos los servicios públicos y lo que se determinara en ese futuro texto.**

Una distinción que este grupo no





bereizketarik onartu, eta gainera, ez dago horrelakorik ez Konstituzioan eta ez beste inongo estatututan ere. Aldiz, Espainiako Konstituzioaren 11.3 artikuluan aurreikusia dago diasporako herritarren berezko eskubideak aitortu ahal izango direla baldin eta bertako kideek, beste erkidego batzuetan adierazitakoaren ildotik, Espainiako naziotasunari heltzen badiote, atzerrian bizi arren. Itundutako oinarrietan egiten den moduan, Euskadin bizi direnen eta Euskadiko "nazionalen" arteko bereizketa gisa interpretatu nahi izatea aurreikuspen hori, gizarte plural baten oinarriak eta demokraziaren beraren funtsa ahultzea izango litzateke, demokraziaren printzipio nagusia baita eskubideak eta betebeharrak denontzat berdinak izatea.

Hitzaurre eta atariko titulu hauek, nolabait ere, proposatutako gainerako tituluak gidatzen dituzte, eskumenak eta ahalmenak bere gain hartzeko gaitasuna mugagabea delakoan, eta horrek ahuldu egiten du autogobernua eguneratu ahal izateko gaitasun erreala, indarreko esparru juridikoaren barruan. Alde horretatik, adibide gisa aipa daitezke gizarte-segurantzaren sistema propioari buruzko aipamenak (*ekonomia, finantza eta zerga arloko araubiderako oinarrien proposamena, 42. paragrafoa*), edo botere judizial independente bati buruzkoak (*"SJParen Botereak" oinarrien proposamena, 2.3 apartatua*), eta Talde Sozialistak, jakina, baztertu egiten ditu horiek guztiak.

Gauzak horrela, lehen bi apartatu horiek eztabaidatuenak izan dira lantaldean, eta gainerakoak, aldiz, talde batzuen eta besteen azalpen huts modura landu dira, inolako proposameni buruzko balioespenik egin gabe, paragrafo kosmetikoren bat edo beste kenduta.


Horrexegatik, Euskal Sozialistak taldeak adituen taldeari eskatu nahi dio balioetsi ditzala, adierazitakoaz gain,

puede aceptar y que, además, no existe ni en la Constitución ni tampoco en ningún otro estatuto. Lo que existe (*artículo 11.3 CE*) es que se puedan reconocer derechos propios de la ciudadanía a la diáspora si los miembros de ésta, como señalan en otras comunidades, se acogen a la nacionalidad española aunque residan en el extranjero. Pretender interpretar, como se hace en las bases acordadas, esta previsión a modo de distinción entre quienes residen en Euskadi y los "nacionales" de Euskadi supondría socavar los cimientos mismos de una sociedad plural y de la esencia de la democracia, cuyo principio máximo es igualdad de derechos y obligaciones.

Este preámbulo y este título preliminar marcan el resto de los títulos propuestos, en forma de capacidad ilimitada de atribuirse competencias y poderes que diluyen las capacidades reales de poder actualizar el autogobierno dentro del marco jurídico vigente. Sirvan como ejemplo las alusiones a un sistema propio de seguridad social (*propuesta de bases régimen económico, financiero y tributario, párrafo 42*) o un poder judicial independiente (*propuesta de bases "Poderes del SJP", apartado 2.3*), entre otras cuestiones que rechaza el Grupo Socialista.

Tan es así, que esos dos primeros apartados han sido los más discutidos en el seno de la ponencia, mientras que el resto han sido abordados como meras exposiciones de unos y otros grupos sin que se valorara ninguna propuesta, más allá de algún párrafo cosmético.

Por ello, el grupo Socialistas Vascos traslada al grupo experto que valore, además de lo apuntado anteriormente, las





arestian jorratutako gai horiek, hots: pertsonen eskubideak zabaldu ahal izatea (*3. eta 7. eranskinak*), eskumenak gizarte-errealitatera egokitzea (*4. eranskina*), eskumen horiek Euskadiko botere publikoen artean erakunde maila desberdinetara banatzea (*5. eranskina*), erakunde horien arteko barne-harremanak berrantolatzea zerbitzu publikoak eskaintzeko orduan eraginkorrakoak eta baliagarriagoak izan daitezten (*5. eranskina*), zerga-arau mailako eskumenak Legebiltzarrari esleitzea (*4., 5. eta 6. eranskinak*), eta gizon eta emakume libre eta berdinen gizarte batean bizikidetzaren berri bat erdiestea, sentsibilitate eta identitateen aniztasunean (*1. eta 2. eranskinak*).

Euskal Sozialistak taldeak testu artikulatu bideragarri eta baliagarri bat sustatu nahi du, indarrean dagoen Estatutuak baino adostasun zabalagoa eduki eta indarreko ordenamendu juridikoa errespetatuko duena, 2017ko urtarrilaren 26ko Legebiltzarraren aginduak ezartzen duen moduan.

Horri begira, ohar hauek aurkezten ditu boto partikular modura, baita horiekin batera doazen eranskinak ere, erregistratutako dokumentu horietatik gehientsuenak kontuan hartu ez diren arren, adituen taldeak balioetsi ditzan, eta horrez gain, arestian aipatutako gai horien inguruan gure desadostasuna agerrarazten dugu.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA. ESTATUTU BERRIAREN OINARRIEN PROPOSAMENA

Aldez aurreko hausnarketa

Gure autogobernuaren eguneraketarako oinarriak adosteko orduan ditugun adostasun eta desadostasunen inguruan gainerako talde parlamentarioek

cuestiones aportadas que permiten ensanchar derechos de las personas (*adendas 3 y 7*), adaptar las competencias a la realidad social (*adenda 4*), distribuir esas competencias entre los poderes públicos vascos en sus distintos niveles institucionales (*adenda 5*), reordenar las relaciones internas entre esas instituciones para ganar en eficiencia y eficacia en la prestación de servicios públicos y garantía de los derechos (*adenda 5*), atribuir las competencias normativas tributarias al Parlamento (*adendas 4, 5 y 6*), y conseguir un nuevo pacto de convivencia en una sociedad de hombres y mujeres libres e iguales, con pluralidad de sentimientos e identidades (*adendas 1 y 2*).

El grupo Socialistas Vascos pretende promover un texto articulado que sea viable, útil, de consensos más amplios que el Estatuto en vigor y que respete el ordenamiento jurídico vigente, tal y como establece el mandato parlamentario del 26 de enero de 2017.


A tal fin, aporta estas consideraciones en forma de voto particular, así como las adendas que lo acompañan, documentos registrados que en su inmensa mayoría no se han tenido en cuenta, a fin de que sean valoradas por el grupo experto, haciendo constar nuestra oposición en las cuestiones antes mencionadas.

ANEXO

ADENDA 1. PROPUESTA BASES NUEVO ESTATUTO

Reflexión previa

Vistas las reflexiones realizadas por el resto de los grupos parlamentarios en relación con las coincidencias y diferencias para acordar unas bases para la





egindako hausnarketak kontuan izanik, Euskal Sozialistak taldeak beharrezko ikusten du berriro azpimarratzea, 2017ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuraren aginduak esaten duen moduan, lantzeko proposatzen den testu artikulatu horrek hauxe aipatu beharko duela: "**Gernikako Estatutuaren erreforma, ordenamendu juridikoa errespetatuz**".

Alde horretatik, uste dugu oinarrietan aurreikusi beharra dagoela konstituzioaren alde aurreko erreforma batek eskainiko lituzkeen aukerei buruzko hausnarketa batzuk egon badaudela. Zeren eta, eskumenak argitu nahi baditugu, administrazioen arteko gatazkak konpontzearen auzitegiara jo beharra ekidingo duten leialtasun federaleko baliabide berriak eduki, erakunde juridiko arrunt gorenaren Auzitegi Gorena izan dadila proposatu edo eragiten diguten Europako erabakietan parte hartze handiagoa izan nahi badugu, ez da aski estatutuaren erreforma bidez egin nahi izatea, eta, horrenbestez, edozein testu artikulatu idatzi aurretik kontuan hartu beharko dira, eta beraz, aitortu beharko dugu **indarreko konstituzio-ordenamendua eguneratzeko aukerari uko egin gabe gauzatu daitekeela edozein erreforma**.

Edonola ere, autogobernua eguneratzeko prozesu hori aurrera eraman ez duen erkidego bakarra dugu Euskadi. Orain arte Estatutuarekin loturik egin den proposamen bakarra 2004. urtekoa da, Ibarretxe Plana izenez ezagutzen dena, eta proposamen horrek segurtasun juridikoaren oinarritzko baldintza hori apurtzen zuen, **konstituzioaren erreforma estali bat zelako funtsean, eta hori kontuan hartu beharko da erredakzio berria egiten denean**.

Euskal Sozialistak taldeak beharrezko ikusten du, halaber, eguneraketari ekiteko borondatearen adierazpide gisa, oinarri horietan **abiapuntu gisa** aitortzea

actualización de nuestro autogobierno, Socialistas Vascos entiende necesario reiterar que el mandato del Pleno del 26 de enero de 2017 indica que el texto articulado que se proponga elaborar debe enunciar "una reforma del Estatuto de Gernika, **respetando el ordenamiento jurídico**".

En este sentido, consideramos que en las bases debe recogerse que existen reflexiones sobre las posibilidades que ofrecería una reforma constitucional previa. Porque la clarificación de competencias, los nuevos mecanismos de lealtad federal que eviten el recurso a los tribunales para resolver conflictos entre administraciones, la propuesta para que el Tribunal Superior sea la instancia jurídica ordinaria última, o la mayor participación en las decisiones europeas que nos afectan, no pueden hacerse solo desde la reforma estatutaria y, por tanto, son aspectos a tener en cuenta antes de la redacción de cualquier texto articulado, para admitir que **cualquier reforma se hace sin renuncia de la posibilidad de una actualización del ordenamiento constitucional vigente**.

En cualquier caso, Euskadi es la única comunidad que no ha llevado adelante ese proceso de actualización de su autogobierno. La única propuesta que se ha realizado hasta la fecha en relación con el Estatuto fue la de 2004, el conocido Plan Ibarretxe, que precisamente rompía esa premisa básica de seguridad jurídica, porque materialmente suponía **una reforma constitucional encubierta, un hecho que deberá tenerse en cuenta en la nueva redacción**.

Igualmente el Grupo Socialista considera necesario, como expresión de la voluntad por la que se procede a la actualización, que en las bases se





La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene, por razón de su historia, una estructura institucional compleja, ciertamente singular. La tradición foral se articulaba institucionalmente en el ámbito de cada uno de los territorios que, posteriormente, se configuraron como provincia.

La aprobación del Estatuto de Autonomía del País Vasco en 1979 supuso, en el marco de lo previsto en la disposición adicional primera de la Constitución, la reafirmación de la voluntad de mantener viva la vinculación del nuevo régimen de autonomía política con la tradición foral característica del país, aun en un marco histórico ciertamente transformado. Así, los territorios forales, que recibirán la denominación de territorios históricos, son un elemento estructural esencial de la articulación institucional de la Comunidad Autónoma establecida en el Estatuto de Autonomía, en el que se les reconocerá su singularidad dentro de la misma y el ejercicio de la autonomía en la organización de sus instituciones de gobierno. Vinculado a ello, el Estatuto reconoce a los territorios históricos unas competencias básicas, vinculadas al ejercicio de esa autonomía institucional, y dejará a la decisión del Parlamento Vasco la determinación de atribuirles otros poderes o competencias, en los términos que estime oportunos.

El Parlamento Vasco es, en





Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakundeen barne-egitura arautzeko eskumena duen erakundea da, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian zehaztuta datorren moduan, eta bertan, foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatu daitezela aldarrikatzen da eta, hala egokituz gero, foru-araubidearen eguneraketa horren testuinguruan eta Autonomia Estatutuarenean gauzatuko dela gaineratzen du, eta horrelaxe zehazten da, halaber, Autonomia Estatutuan.

Autonomia Estatutuan aurreikusitako sistema garatuz, Autonomia Estatutu osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak, Lurralde Historikoen Lege esan ohi zaiona, edo laburtuta esanda, LHL, eta bertan, lurralde historikoei esleitzen zaizkien eskumenak finkatzen dira, Autonomia Estatutuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, baina baita Autonomia Erkidegoko erakunde komunien eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanak ere, finantzen eremuan oso bereziki.

Hogeita hamar urte baino gehiago igaro dira Eusko Legebiltzarrak LHL hori onetsi zuenetik. Horren onespeneraren inguruko eztabaida eta horrekin loturiko beste arazo batzuk alde batera utzirik, denboraren poderioz eta urte horietan guztietan burututako erakunde-jardueraren ondorioz, euskal gizarteari eta bertako erakundeei eskaini dien esperientzia horrek aukera eman beharko luke Autonomia Erkidegoko erakundeen barne-antolamendua arautu eta eguneratuko duen lege berri bat onesteko, patxada handiagoz eta 1983an topatu zutena baino adostasun maila zabalago eta sendoago batez.

consecuencia, la institución competente para regular la estructura institucional interna de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tal y como se precisa en la disposición adicional primera de la Constitución, en la que se proclama el amparo y respeto de los derechos históricos de los territorios forales, indicando que, en su caso, la actualización del régimen foral se realizará en el marco de la misma y del Estatuto de Autonomía, y así se determina en el Estatuto de Autonomía.

En desarrollo del sistema previsto en el Estatuto de Autonomía, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, sobre Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, comúnmente conocida como Ley de Territorios Históricos o, abreviadamente, LTH, determinando las competencias que se atribuían a los territorios históricos, al amparo de lo previsto en el Estatuto de Autonomía, así como las relaciones entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus territorios históricos, muy destacadamente en el ámbito financiero.

Han transcurrido ya más de treinta años desde que el Parlamento Vasco aprobase la mencionada LTH. Dejando de lado la controversia que rodeó su aprobación y otros problemas conexos, el transcurso del tiempo y la práctica institucional desarrollada durante estos años ofrece hoy a la sociedad vasca y a sus instituciones una experiencia que debiera permitir la aprobación de una nueva ley que regule y actualice la organización institucional interna de la Comunidad Autónoma con mayor sosiego y con un grado de consenso más amplio y consistente que el que estuvo ausente en 1983.





Lurralde historikoak erakunde gisa sendotu izana eta, bereziki, foru-aldundien eginkizuna sendotu izana azpimarratu beharreko gertaera garrantzitsua da. Halaber, eta xehetasun batzuk alde batera utziz, modu baketsuan onartu dira lurralde historikoek esku hartzeko eremu materialak. Horrexegatik, lurralde historikoen eskumenak gauzatzeko eremu materialari dagokionez, ez dago aldakuntza garrantzitsurik egin beharrik.

Edonola ere, badira zenbait gai Lurralde Historikoen Legean, nahitaez egungo errealitateara egokitu beharrekoak. Oso esanguratsua da, alde horretatik, LHLK lurralde historikoei araugintzaren arloan esleitzen zizkien ahalmenei buruzkoa, ez baitator bat eremu material horien errealitatearekin, hogeita hamar urtetik gorako esperientziak erakutsi duen moduan. Beharrezkoa da esperientziak erakutsi duen horretara egokitzea lege-araudia. Horrek ez du esan nahi lurralde historikoek garrantzi gutxiagoko aintzatespenik edukiko dutenik Autonomia Erkidegoaren erakunde-antolamenduaren barruan.

Zinez, lurralde historikoen araugintza-ahalmenak, ekonomia-itunaren sistema osatzen duten zergen testuinguruan, esan berri dugunaren salbuespen bat dira, Ekonomia Itunaren Legean aitortuta dauden ahalmenak diren neurrian, eta berezitasun hori halaxe aitortu izan da berariaz, horien konstituzionaltasunaren gaineko kontrola zuzenean Konstituzio Auzitegiari esleituz.


Beste hari bati helduz, hamarkada hauetako esperientziak agerian utzi du ez dagoela tresna egokirik gobernuen arteko lankidetzarako, eta sistema federalen eboluzioan –autonomia-erkidegoetako erakundeen barne-egiturak antzekotasun

La consolidación institucional de los territorios históricos, especialmente el papel de las diputaciones forales, es un hecho significativo que debe ser constatado. Asimismo, y salvo algunas cuestiones de detalle, los ámbitos materiales de intervención de los territorios históricos están aceptados de forma pacífica. Por ello, en lo que se refiere al ámbito material de ejercicio de las competencias de los territorios históricos no son necesarias modificaciones significativas.

Sin embargo, hay aspectos de la Ley de Territorios Históricos que es necesario adecuar a la realidad. Es muy significativo el relativo a las potestades que la LTH atribuía a los territorios históricos en el ámbito normativo, que no se corresponden con la realidad de esos ámbitos materiales, como ha demostrado la experiencia de estos más de treinta años. Es necesario adecuar la regulación legal a lo que ha mostrado la experiencia. Ello no significa una consideración de los territorios históricos menos significativa en el entramado institucional de la Comunidad Autónoma.

Ciertamente, las potestades normativas de los territorios históricos en el ámbito de los tributos que integran el sistema de concierto económico son una excepción a lo que se acaba de decir, en la medida en que se trata de potestades que vienen reconocidas en la Ley del Concierto Económico y cuya especialidad ha sido específicamente reconocida, atribuyendo directamente al Tribunal Constitucional el control de constitucionalidad de las mismas.

En otro orden de cosas, la experiencia de estos decenios ha puesto de relieve la carencia de instrumentos adecuados de cooperación intergubernamental, que en la evolución de los sistemas federales -con los que la





nabarmenak ditu horrekin— argi eta garbi geratzen ari da sekulako garrantzia duela norberaren eskumenak testuinguru harmoniatsu batean gauzatzeko orduan, aipatutakoak bezalako erakunde-antolamendu konplexuek eragin dezaketen ezegonkortasun-arriskua ekiditearren. Lege honen bitartez gobernuen arteko lankidetzarako tresna bertikalak —foru-aldundiek Eusko Jaurlaritzarekin dituztenak— finkatu nahi dira erakundeen alorrean, eta halaber, gobernuen arteko lankidetzaren horizontala sustatu —foru-aldundien artean—.

Lege honen bidez barneratzen den aldaketaren funtsezko elementu bat, hain zuzen ere, Ekonomia Ituna osatzen duten zergen kudeaketatik datozen finantza-baliabideen banaketa-sistemarekin loturik Eusko Legebiltzarrak bete beharreko eginkizunaren ingurukoa da. Lege honetan jasotako erregulazioarekin bat etorritik, Gobernuari dagokio Eusko Legebiltzarraren aurrean baliabideen banaketarako metodologiaren lege-proiektua aurkeztea eta foru-aldundi bakoitzak Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari eta udalen finantzaketa-fondoari egin beharreko ekarpena erabakitzea, eta Eusko Legebiltzarrari aitortzen zaio, halaber, Gobernuak aurkeztutako proiektuari zuzenketak egiteko ahalmena.

Gai honekin berarekin loturik, baina ikuspegi desberdin batetik, hamarraldi hauetan guztietan indarrean egon den sistemaren hutsunerik garrantzitsuenetako bat zuzendu nahi du lege honek, hots: Ekonomia Ituna osatzen duten zergetatik datozen finantza-baliabideen banaketan udalek eduki beharreko presentzia. Alde horretatik, finantza-baliabideen banaketan udalen finantzaketarako fondo bat sortu dadila finkatzen da, Autonomia Erkidegoko udalen finantzaketaren zatirik

estructura institucional interna de la Comunidad Autónoma tiene evidentes semejanzas- se está demostrando tan esencial en el desarrollo del ejercicio de las respectivas competencias en un contexto de suficiente armonía, que evite el riesgo de inestabilidad que puede ser el resultado de estructuras institucionales complejas como las referidas. Con la presente ley se pretenden consolidar institucionalmente los instrumentos de cooperación intergubernamental de carácter vertical -de las diputaciones forales con el Gobierno Vasco-, así como impulsar la cooperación intergubernamental horizontal -entre las diputaciones forales-.

Un elemento sustancial de la modificación que se introduce con la presente ley es el referido al papel que debe jugar el Parlamento Vasco en relación con el sistema de distribución de los recursos financieros procedentes de la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico. De acuerdo con la regulación contenida en la presente ley, corresponde al Gobierno presentar ante el Parlamento Vasco el proyecto de ley de metodología de distribución de los recursos y la determinación de la aportación que cada diputación foral debe realizar a la Hacienda General de la Comunidad Autónoma y al fondo de financiación municipal, reconociendo al Parlamento Vasco la potestad para enmendar el proyecto presentado por el Gobierno.

En relación con esta misma cuestión, pero desde una perspectiva diferente, la presente ley trata de corregir una de las ausencias más significativas del sistema que ha estado vigente durante estos decenios: la presencia de los municipios en la distribución de los recursos financieros procedentes de los tributos que integran el Concierto Económico. En este sentido, en la distribución de los recursos financieros se establece la creación de un fondo de financiación municipal, que nutrirá la parte





garrantzitsuena elikatuko duena, eta Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan udaletako ordezkariak esku hartzea aurreikusten da, bai Ekonomia Itunaren sistemako parte diren udal-zergen erregulazioari buruzko gaiak jorratzen dituztenean eta bai erakunde desberdinen – udalak barne– finantzaketari buruzko gaiak aztertzen dituztenean ere.

Azkenik, lurralde historiko desberdinen artean edo horietako bakoitzaren barruan egon daitezkeen aberastasun eta garapen ekonomikoaren desorekak gainditzeko xedea duen berdintze-fondo bat sortzea aurreikusten du legeak.

TESTU ARTIKULATUA

1. Artikulua.- Xedea

1.- Lege honen xedea Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakundeen barne-antolamendua arautzea da, bere Autonomia Estatutuan xedatutakoa garatuz.

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko gobernuaren oinarritzko erakunde-egitura Autonomia Erkidegoko erakunde komunek, bere lurralde historikoetako foru-organoek eta horren barruan sartuta dauden udalek osatutakoa da.

2. Artikulua.- Helburuak

1.- Lege honen helburua, hain zuzen ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde bakoitzari dagozkion arloetan eskumen desberdinak finkatzea eta bakoitzaren eginkizunak arautzea da.

2.- Lege honen helburua da, halaber, Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundeetako gobernu-instituzioen arteko

sustancial de la financiación de los municipios de la Comunidad Autónoma, y se prevé la presencia de representantes de los municipios en las sesiones del Consejo Vasco de Finanzas Públicas tanto cuando en el mismo se traten cuestiones relativas a la regulación de los tributos locales que forman parte del sistema del Concierto Económico como cuando se trate de las cuestiones relativas a la financiación de las distintas instituciones, incluidos los municipios.

Finalmente, la ley especifica la creación del fondo de nivelación, destinado a superar las desigualdades de riqueza y desarrollo económico entre los distintos territorios históricos o en el interior de cada uno de ellos.

TEXTO ARTICULADO

Artículo 1.- Objeto

1.- La presente ley tiene por objeto regular la organización institucional interna de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en desarrollo de lo dispuesto en su Estatuto de Autonomía.

2.- La estructura institucional básica de gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco se integra por las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, los órganos forales de sus territorios históricos y los municipios que en ella se integran.

Artículo 2.- Fines

1.- La presente ley tiene la finalidad de establecer las competencias y regular las funciones que en las respectivas materias corresponden a cada ente institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Asimismo, la presente ley tiene la finalidad de regular las relaciones entre las instituciones de gobierno (relaciones





harremanak (gubernuen arteko harremanak) arautzea da, baita bere lurraldearen barruan kokatuta dauden udalekin dituztenak ere.

3.- Azkenik, lege honen helburua da Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundeen eta bertako udalen finantzaketa-sistema arautzea, Autonomia Erkidegoaren finantza-baliabideak horien artean banatzeko sistema finkatuz.

3. Artikulua.- Autonomia Erkidegoko erakunde komunak

1.- Autonomia Erkidegoko erakunde komunek Euskadiko Autonomia Erkidegoaren osotasunean, bertako erakundeetan eta bertako herritarrengan gauzatuko dute beren eskumena.

2. Artikulua.- Autonomia Erkidegoko erakunde komunak hauek dira:

- a) Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritzaren eta bertako lehendakaria, Autonomia Erkidegoko herritar guztien ordezkaritzarako eta gobernurako erakunde diren aldetik.
- b) Arartekoaren erakundea, herritarren eskubide eta askatasunak defendatu eta babesteko Eusko Legebiltzarraren mandatari gisa, Euskadiko erakunde guztien jardueren gaineko eskumena duela.
- c) Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Euskadiko erakundeak osatzen dituzten organoen eta sektore publiko osoaren ekonomia nahiz finantza arloko jarduerak fiskalizatuko dituen organo goren gisa.

intergubernamentales) de los entes institucionales que integran la Comunidad Autónoma, así como con los municipios radicados en su territorio.

3.- Finalmente, la presente ley tiene la finalidad de regular el sistema de financiación de los entes institucionales que integran la Comunidad Autónoma y de sus municipios mediante el establecimiento del sistema de distribución entre ellos de los recursos financieros de la Comunidad Autónoma.

Artículo 3.- Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma

1.- Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma ejercen su competencia sobre el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sus instituciones y su ciudadanía.

2.- Son instituciones comunes de la Comunidad Autónoma:

- a) El Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco y su presidente o lehendakari, en su condición de instituciones de representación y de gobierno del conjunto de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma.
- b) La institución del Ararteko, como comisionado del Parlamento Vasco para la defensa y protección de los derechos y libertades de la ciudadanía, con competencia sobre las actuaciones de todas las instituciones del país.
- c) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, como supremo órgano fiscalizador de la actividad económico-financiera de los órganos que integran las instituciones del País Vasco y del conjunto del sector público.





3.- Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egitura, antolamendua eta funtzionamendua horietako bakoitza arautuko duten lege edo arau bereziek eta aplikagarri zaizkien Autonomia Erkidegoko gainerako legeek arautuko dituzte, Konstituzioan, Autonomia Estatutuan eta, hala egokituz gero, Estatuko legeetan xedatutakoa garatuz.

4. Artikulua.- Lurralde historikoetako erakundeak

1.- Batzar nagusiak eta foru-aldundia dira lurralde historikoetako foru-organoak, eta diputatu nagusiak, bertako buru gisa, eta foru-diputatuek osatuko dute foru-aldundia.

2.- Lurralde historiko bakoitzak bere araubide pribatua izango du, eta bere antolamendua edo autogobernurako erakunde pribatiboak berrezarri edo eguneratu ahal izango ditu.

3.- Lurralde historikoek beren autogobernu-erakunde pribatiboak antolatzeko gaitasuna lege honetan, Autonomia Erkidegoko legeetan eta, hala egokituz gero, aplikagarri zaizkion Estatuko legeetan xedatutakoarekin bat etorri gaiztuko da.

5. Artikulua.- Toki Administrazioako erakundeak

1.- Udalen eta gainerako toki-erakundeen antolamendua toki-araubidea arautzen duten Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeetan, bakoitzak bere eskumeneko eremuetan, erabakiko da.

2.- Udalei ere aplikatuko zaizkie lege honetako xedapenak, bereziki Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde desberdin artean finantza-baliabideak banatzearekin loturikoak.

3.- La estructura, organización y funcionamiento de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma serán objeto de regulación por las leyes o normas reguladoras específicas de cada una de ellas y las demás leyes de la Comunidad Autónoma que les sean de aplicación, en desarrollo de lo dispuesto en la Constitución, en el Estatuto de Autonomía y, en su caso, en las leyes del Estado.

Artículo 4.- Las instituciones de los territorios históricos

1.- Son órganos forales de los territorios históricos las juntas generales y la diputación foral, que estará integrada por el diputado general, que la preside, y por los diputados forales.

2.- Cada territorio histórico se regirá por su propio régimen privativo, pudiendo restablecer o actualizar su organización e instituciones privativas de autogobierno.

3.- La capacidad de los territorios históricos para organizar sus instituciones privativas de autogobierno se realizará de acuerdo a lo dispuesto en la presente ley y en las leyes de la Comunidad Autónoma y, en su caso, las leyes del Estado que sean de aplicación.

Artículo 5.- Las instituciones de la Administración local

1.- La organización institucional de los municipios y de los demás entes locales se determinará por las leyes del Estado y de la Comunidad Autónoma que regulen el régimen local, en sus respectivos ámbitos de competencia.

2.- Serán de aplicación a los municipios las disposiciones de la presente ley, especialmente las que se refieren a la distribución de recursos financieros entre los distintos entes institucionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.





**LEHEN KAPITULUA
ESKUMEN-BANAKETA,
AUTONOMIA-ERKIDEGOKO
ERAKUNDEEN ARTEAN**

6. Artikulua.- Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eskumenak

1.- Autonomia Estatutuarekin bat etorritz, Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagozkien eta lege honetan lurralde historikoei berariaz esleitu ez zaizkien eskumen guztiak Autonomia Erkidegoko erakunde komunenak izango dira.

2.- Eusko Legebiltzarrari dagokio botere legegilea gauzatzea, eta lege honetan lurralde historikoei eskumen batzuk esleitu izanak ez dio inolako mugarik eragingo.

7. Artikulua.- Lurralde historikoei eskumenak esleitzea arautzen duten printzipioak

1.- Lurralde historikoenak izango dira Autonomia Estatutuak eta lege honek berariaz esleitzen dizkieten eskumenak, baita horiek berariaz aldatzen dituztenak ere.

2.- Lurralde historikoenak izango dira, halaber, Ekonomia Itunaren Legean Estatuak esleitzen dizkien eskumenak.

3.- Lurralde historikoenak izan daitezke, era berean, Estatuko legeek berariaz esleitzen dizkieten eskumenak, baldin eta horrela xedatuko balute Autonomia Estatutuarekin bat etorritz Euskadiko Autonomia Erkidegoari ez dagozkion eremuetan.

4.- Lege honetan ezarritakoarekin bat

**CAPÍTULO PRIMERO
LA DISTRIBUCIÓN DE
COMPETENCIAS ENTRE LOS DISTINTOS
ENTES INSTITUCIONALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA**

Artículo 6.- Competencias de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma

1.- Corresponde a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma toda competencia que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo a su Estatuto de Autonomía, no haya sido atribuida expresamente a los territorios históricos en la presente ley.

2.- Corresponde al Parlamento Vasco el ejercicio de la potestad legislativa, sin que la atribución de competencias a los territorios históricos en la presente ley suponga ninguna limitación a ella.


Artículo 7.- Principios que rigen la atribución de competencias a los territorios históricos

1.- Corresponden a los territorios históricos las competencias que expresamente les atribuyen el Estatuto de Autonomía y la presente ley, así como aquellas que expresamente la modifiquen.

2.- Asimismo, a los territorios históricos les corresponden las competencias que les atribuya el Estado en la Ley del Concierto Económico.

3.- Podrán corresponder, igualmente, a los territorios históricos las competencias que expresamente les atribuyan las leyes del Estado, si así lo dispusieran, en ámbitos que, de acuerdo al Estatuto de Autonomía, no corresponden a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.- En las materias que, de acuerdo a lo





etorri beren eskumenekoak diren gaitan, lurralde historikoen ardura izango da eginkizun administratiboak eta exekutiboak burutzea, baita, hala egokituz gero, Autonomia Erkidegoko legeak eta arauak garatzea ere.

5.- Gai jakin batean lurralde historikoei eskumena esleitzeak ez du inola ere eragingo Eusko Legebiltzarrari dagokion botere legegilea baztertzea edo mugatzea, Autonomia Estatutuarekin bat etorri Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren arloetan.

8. Artikulua.- Lurralde historikoen eskumen eskusiboak

1.- Lurralde historikoei, Autonomia Estatutuarekin bat etorri, eskumen eskusiboa edukiko dute ondorengo arlo hauetan:

- a) Autogobernurako erakundeentzako antolamendua, araubidea eta funtzionamendua
- b) Bere aurrekontuen prestatzea eta onestea
- c) Probintziaren mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindikoa lurralde-mugapenak
- d) Probintzietako eta udaletako ondasunen araubidea, bai jakin publikokoak direnetan eta bai ondarekoak edo propioak eta komunalak direnetan ere.
- e) Udaletako hauteskunde-araubidea.

2.- Beren eskumen eskusiboak gauzatzeko, lurralde historikoei arauak erregulatzeko gaitasuna edukiko dute, baita administratzeko eta betearazteko ere, eta hori, kasu bakoitzean aplikagarri zaien

establecido en la presente ley, se atribuyan a su competencia, corresponderá a los territorios históricos el ejercicio de las funciones administrativa y ejecutiva, así como, en su caso, el desarrollo normativo de las leyes y normas reglamentarias de la Comunidad Autónoma.

5.- La atribución de competencia a los territorios históricos en una materia determinada no supondrá, en ningún caso, exclusión o limitación de la potestad legislativa que corresponde al Parlamento Vasco en las materias que, de acuerdo al Estatuto de Autonomía, corresponden a la competencia de la Comunidad Autónoma.

Artículo 8.- Competencias exclusivas de los territorios históricos

1.- Los territorios históricos tendrán, de acuerdo con el Estatuto de Autonomía, competencia exclusiva en las siguientes materias:

- a) Organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno
- b) Elaboración y aprobación de sus presupuestos
- c) Demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal que no excedan los límites provinciales
- d) Régimen de los bienes provinciales y municipales, tanto de dominio público como patrimoniales o de propios y comunales
- e) Régimen electoral municipal.

2.- En el ejercicio de sus competencias exclusivas, los territorios históricos tendrán capacidad de regulación normativa, así como de administración y ejecución, lo que realizarán en coherencia con lo dispuesto





Estatuko edota Autonomia Erkidegoko legerian xedatutakoarekin bat etorri egingo dute.

9. Artikulua.- Lurralde historikoen arauak garatzeko, administratzeko eta betearazteko dituzten eskumenak.

1.- Autonomia Estatutuan aurreikusitakoa garatuz, lurralde historikoen ondorengo arloetan ere eskumena izango dute:

1. Errepide eta bideetan, Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekoak direla adierazi ezean.
2. Mendiak, basoetako aprobetxamendu eta zerbitzuak, abelbideak eta larreak.
3. Gune natural babestuak.
4. Beste lurralde historiko batzuei eragiten ez dieten obra publikoak edo Eusko Jaurlaritzat interes orokorrekotzat jotzen ez dituenak. Aurrekoa hala izanik ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren interes orokorreko obra hidraulikotzat jotzen dira Eusko Legebiltzarraren Uren Legean horrela definituta datozenak. Uraren Euskal Agentziari dagokio interes orokorreko obra hidraulikoen proiektzioa, exekuzioa eta kudeaketa, baita lege horrek horrelako obrekin loturik agintzen dituen beste edozein eratako eginkizunak burutzea ere.
5. Artxiboak, liburutegiak, museoak eta arte ederrekin loturiko erakundeak, erakunde komunek izaera bereko eta Autonomia Erkidegoaren interes orokorrerako beste erakunde batzuk sortu ahal izatearen kontra joan gabe.
6. Artisautza.

en la legislación del Estado y de la Comunidad Autónoma que sea de aplicación en cada caso.

Artículo 9.- Competencias de desarrollo normativo, administración y ejecución de los territorios históricos

1.- En desarrollo de lo previsto en el Estatuto de Autonomía, los territorios históricos tendrán competencia, además, en las siguientes materias:

1. Carreteras y caminos, salvo los que sean declarados de interés general de la Comunidad Autónoma.
2. Montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos.
3. Espacios naturales protegidos.
4. Obras públicas cuya realización no afecte a otros territorios históricos o no se declare de interés general por el Gobierno Vasco. No obstante lo anterior, se consideran obras hidráulicas de interés general de la Comunidad Autónoma del País Vasco las que así se definen en la Ley de Aguas del Parlamento Vasco. Corresponde a la Agencia Vasca del Agua la proyección, ejecución y gestión de las obras hidráulicas de interés general, así como el ejercicio de cualesquiera otras funciones que le encomienda aquella ley en relación con tales obras.
5. Archivos, bibliotecas, museos e instituciones relacionadas con las bellas artes, sin perjuicio de que las instituciones comunes puedan crear instituciones de la misma naturaleza, de interés general de la Comunidad Autónoma.
6. Artesanía.





- | | |
|---|--|
| 7. Arte, monumentu eta arkeologia arloko ondarea. | 7. Patrimonio artístico, monumental y arqueológico. |
| 8. Lurralde historikoko kultura-erakunde interesgarriak sortzea eta mantentzea. | 8. Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del territorio histórico. |
| 9. Landare-osasuna, nekazaritzaren erreforma eta garapena; nekazaritza ezagutaraztea, sustatzea eta gaitzea; mahastizaintza eta enologia; landare-ekoizpena, haziak eta mintegiko landareak izan ezik. Arlo honetan, Uraren Euskal Agentziaren arduraren izango da homidurarekin, saneamendurarekin, arazketarekin eta ureztaketarekin loturik Erkidegoko Uraren Legeak esleitzen dizkion eginkizunak burutzea, eta horren barruan sartzen da Eusko Jaurlaritzak onetsi beharreko dekretu-proposamena hari igortzea, ureztaketaren araubide juridikoa arautzeko, lege horretan ezarritako gutxieneko edukiarekin. | 9. Sanidad vegetal, reforma y desarrollo agrario; divulgación, promoción y capacitación agraria; viticultura y enología; producción vegetal, salvo semillas y plantas de viveros. En esa materia, compete a la Agencia Vasca del Agua el ejercicio de las funciones que le atribuye la Ley de Aguas autonómica en relación con el abastecimiento, saneamiento, depuración y riego, incluida la de elevar al Gobierno Vasco la propuesta de decreto que éste aprobará para regular el régimen jurídico del riego, con el contenido mínimo establecido en esa ley. |
| 10. Abeltzaintza eta animalien osasuna. | 10. Ganadería y sanidad animal. |
| 11. Kontinenteko arrain-aberastasunaren aprobetxamendua eta aprobetxamendu zinegetikoa. | 11. Aprovechamiento de la riqueza piscícola continental y aprovechamiento cinegético. |
| 12. Kontinenteko ur publikoen eta ubide naturalen, ibai-bazterren eta zorren polizia, eta hori Eusko Legebiltzarraren Uren Legean aurreikusitakoarekin bat etorritik gauzatu da. | 12. Policía de las aguas públicas continentales y de sus cauces naturales, riberas y servidumbres, que se ejercerá de conformidad con lo previsto en la Ley de Aguas del Parlamento Vasco. |
| 13. Kirola, eskola-kirola eta denontzako kirola sustatzea. | 13. Fomento del deporte, deporte escolar y deporte para todos. |
| 14. Gizarte-zerbitzuak. | 14. Servicios sociales. |
| 15. Garapen komunitarioa, emakumea eta genero-berdintasuna sustatzeko politika, haur eta gazteei zuzendutako politika, hirugarren adinekoen politika. | 15. Desarrollo comunitario, política de promoción de la mujer y de la igualdad de género, política de la infancia y la juventud, política de la tercera edad. |





- | | |
|--|---|
| 16. Aisialdia eta denbora librea. | 16. Ocio y esparcimiento. |
| 17. Babes zibila; suteen aurkako babesa. | 17. Protección civil; defensa contra incendios. |
| 18. Hirigintza eta lurraldearen antolamendua. | 18. Urbanismo y ordenación del territorio. |
| 19. Jarduera nekagarriak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak. | 19. Actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas. |
| 20. Foru-aldundien mende dauden Foruzain, Minoi eta Mikeleteen Sail edo Kidegoen araubidea, ordezkaritza eta tradizionalei begira. | 20. Régimen de los cuerpos o secciones de Forales, Miñones y Miqueletes dependientes de las respectivas diputaciones forales a efectos de representación y tradicionales. |

2.- Articulo honen 1 zenbakian adierazitako arloetan, lurralde historikoek, bidezkoa denean, Autonomia Erkidegoan lege eta arauen indarra duten xedapenak garatzeko ahalmena beteko dute eta, edonola ere, horiek betearazteko eta administrazio arloan kudeatzeko eginkizunak ere bai.

2.- En las materias indicadas en el número 1 de este artículo, los territorios históricos ejercerán, cuando proceda, la potestad de desarrollo normativo de las disposiciones con fuerza de ley y reglamentarias de la Comunidad Autónoma y, en todo caso, las funciones de ejecución y gestión administrativa.

3.- Lege honek lurralde historikoei eskumenak esleitzen badizkie, arlo hauetan udalei dagozkien eskumenen kontra joan gabe da, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko toki-araubidearen alorreko legeria orokorrarekin bat etorritik.

3.- La atribución por esta ley de competencias a los territorios históricos lo es sin perjuicio de las competencias que en algunas de estas materias correspondan a los municipios, de acuerdo con la legislación general en materia de régimen local del Estado y de la Comunidad Autónoma.

4.- Autonomia Erkidegoak, bere Legebiltzarraren lege baten bitartez eta bertan ezartzen diren baldintzekin bat etorritik, lurralde historikoetako foru-organoei eskualdatu edo eskuordetu ahal izango dizkie lege honek haiei esleitu ez dizkien eskumen batzuk, lege honen 7.5 artikuluan zehaztutako aurreikuspenarekin.

4.- La Comunidad Autónoma, mediante ley de su Parlamento y en los términos que la misma establezca, podrá transferir o delegar a los órganos forales de los territorios históricos competencias no atribuidas a los mismos por la presente ley, con la prevención realizada en el artículo 7.5 de esta ley.

5.- Eusko Jaurlaritzak, bere ekimenez edo lurralde historikoetako foru-organoei hala eskatuta, foru-aldundiei eskuordetu ahal izango die, dagokion dekretuan ezartzen

5.- El Gobierno Vasco, por propia iniciativa o a solicitud de los órganos forales de los territorios históricos, podrá delegar en las diputaciones forales, con el alcance y





den hedadura eta iraupenarekin, bere eskumeneko zerbitzuak kudeatzea eta eskaintzea.

Nolanahi ere, Gobernuak beretzat gordeko ditu ondorengo ahalmenak:

- a) Gauzatze-erregelamenduak xedatzea.
- b) Jarraibideak finkatzea eta kudeaketa-programak prestatzea.
- c) Kudeaketari buruzko informazioa jasotzea, eta hautemandako hutsegiteak zuzentzeko eskakizunak egitea.

6.- Foru-aldundiek estatistikak egin ahal izango dituzte, lege honetan haiei aitortu zaizkien eta Autonomia Erkidegoaren Estatistika Planean jasota ez dauden helburu eta eskumenei begira, haren legerian ezartzen diren arauak betez. Halaber, Autonomia Erkidegoaren Estatistika Planaren prestakuntzan aholku-izaeraz parte hartuko dute, interes orokorreko estatistikak bilduz, eta bere gain hartuko dituzte plan horretan jasotako estatistikak dagokien lurraldean egiteko lanak, bertan edo horiek garatzen dituzten urteko estatistika-programetan ezarritako baldintzetan.

10. Artikulua.- Lurralde historikoek udaletan esku hartzea

1.- Lurralde historikoek programak ezarri edo inbertsio-plan sektorialak onetsi ahal izango dituzte beren lurraldeko udaletan, lurralde osoaren eta bertako toki-erakundeen garapen orekatua bermatzearren.

2.- Halaber, lurralde historikoek udalei laguntzeko baliabide batzuk finkatu ahal izango dituzte udalen eskumeneko zerbitzuak eskaintzeko, beren autonomiaren aurka joan gabe, bereziki udal txikien

duración que se establezca en el correspondiente decreto, la gestión y prestación de servicios de su competencia.

En todo caso, el Gobierno se reservará las siguientes facultades:

- a) Dictar reglamentos de ejecución.
- b) Establecer directrices y elaborar programas de gestión.
- c) Recabar información sobre la gestión, y formular requerimientos para subsanar las deficiencias observadas.


6.- Las diputaciones forales podrán realizar estadísticas, para los propios fines y competencias a ellas reconocidas en la presente ley, no incluidas en el Plan Estadístico de la Comunidad Autónoma, cumpliendo las normas que se establezcan en la legislación de ésta. Asimismo, participarán con carácter consultivo en la elaboración del Plan Estadístico de la Comunidad Autónoma, que incluirá las estadísticas de interés general, y asumirán la ejecución en su respectivo territorio de estadísticas contenidas en dicho plan, en los términos fijados por el mismo o por los programas estadísticos anuales que lo desarrollen.

Artículo 10.- Intervención de los territorios históricos en los municipios

1.- Los territorios históricos podrán establecer programas o aprobar planes sectoriales de inversión en los municipios de su territorio, con el fin de garantizar un desarrollo equilibrado del conjunto del mismo y de sus entes locales.

2.- Asimismo, los territorios históricos podrán establecer los instrumentos de asistencia a los municipios en la prestación de los servicios de competencia local, sin menoscabo de su autonomía,





kasuan edo legez esleituak dituzten zerbitzuak eskainiko direla bermatzeko zailtasunak dituzten udalen kasuan.

11. Artikulua.- Lurralde historikoen eta erakunde komunen arteko lankidetzaz, beren eskumeneko eremuetatik kanpo.

1.- Lurralde historikoen eta erakunde komunek, Estatutuan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorritik, beren eskumenekoak ez diren arloetan esku hartu ahal izango dute, eskumena duen erakundearen ekintzak sustatuz eta haiekin elkarlanean arituz, baldin eta beren iritziz lurralde historikoen edo Autonomia Erkidego osoaren interesekoa dela jotzen badute.

2.- Artikulu honek aipatu bezala, lurralde historikoen eta erakunde komunek esku hartzen dutenean, hori burutzeko eskumenaren titulartasuna duen erakundearekin bat etorritik bakarrik egin ahal izango da, betiere eskumenaren titulartasuna duen erakundearekin berariaz izenpetu den alde biko edo alde anitzeko lankidetzaz-hitzarmen edo -itunean zehazten diren baldintzetan.

12. Artikulua.- Lurralde historikoen zerga alorrean dituzten eskumenak

1.- Zerga alorrean, lurralde historikoen Ekonomia Itunaren Legeak esleitzen dizkien eskumenak eta ahalmenak izango dituzte, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Hori dela eta, aipatutako lege-xedapenetan ezarritako mugen barruan, lurralde historikoen beren lurraldeetako zerga-araubidea legeen bidez arautzeko gaitasuna izango dute, eta, oro har, Autonomia Erkidegoaren zerga-sistema barneratuko dute.

especialmente en el supuesto de los pequeños municipios o aquellos que tengan dificultades para garantizar la prestación de los servicios que tienen legalmente atribuidos.


Artículo 11.- Colaboración entre los territorios históricos y las instituciones comunes fuera de sus respectivos ámbitos de competencia

1.- Los territorios históricos y las instituciones comunes podrán intervenir en materias que, de acuerdo con lo establecido en el Estatuto y en la presente ley, no corresponden a su respectiva competencia de ejecución, impulsando y colaborando con la acción de la institución competente, cuando consideren que ello es de interés del territorio histórico o del conjunto de la Comunidad Autónoma.

2.- La intervención de los territorios históricos y de las instituciones comunes a que hace referencia este artículo solo podrá realizarse de acuerdo con la institución titular de la competencia de ejecución y en los términos que determine el correspondiente convenio o acuerdo de colaboración, bilateral o multilateral, específicamente suscrito con la institución titular de la competencia.

Artículo 12.- Competencias de los territorios históricos en materia tributaria

1.- En el ámbito tributario, los territorios históricos tendrán las competencias y potestades que les atribuye la Ley del Concierto Económico, en consonancia con lo establecido en el artículo 41 del Estatuto de Autonomía del País Vasco. En consecuencia, dentro de los límites establecidos en las disposiciones legales mencionadas, los territorios históricos tienen capacidad para regular, normativamente, el régimen tributario en su respectivo territorio, integrando, en su





2.- Halaber, aurreko zenbakian aipatutako lege-xedapenekin bat etorritz, foru-aldundien ardura izango da Ekonomia Itunaren Legeak erabakitzen dituen zerga guztiak kudeatzea eta ordainaraztea.

3.- Halaber, eta lege-xedapen horiekin bat etorritz, lurralde historiko desberdinetako ogasunen eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren artean koordinazioa, zerga-harmonizazioa eta lankidetzaz bermatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien legeak xedatzeko gaitasuna edukiko dute Autonomia Erkidegoko erakunde komunek.

4.- Ekonomia Itunaren Legean jasotako xedapenen ondorioz lurralde historikoei dagozkien eskumenak zerga-arlorara mugatuta geratzen dira, Estatuaren Legearen izaerak eskatzen duen moduan, eta ezin dezake baldintzatu Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoen arteko eskumenen banaketa beste edozein eremutan.

13. Artikulua.- Zerga-harmonizazioa

1.- Lurralde historikoei, Ekonomia Itunaren Legeak arauak egiteko eta zerga-harmonizazioa bermatzeko esleitzen dien ahalmena gauzatuz, modu bateratuan erregulatuko dituzte zerga desberdinen funtsezko elementuak.

2.- Ekonomia Ituna osatzen duten zergen funtsezko elementuak modu harmoniatsuan arautzeko lurralde historikoei duten obligazioa egoki bete dadila zainduko du Eusko Jaurlaritzak.

3.- Edozein lurralde historikok Ekonomia Ituna osatzen duten zergaren bat

conjunto, el sistema tributario de la Comunidad Autónoma.

2.- Asimismo, de acuerdo con las disposiciones legales mencionadas en el número anterior, corresponderá a las diputaciones forales la exacción y gestión de todos los tributos que determine la Ley del Concierto Económico.

3.- Igualmente, y de acuerdo con las mismas disposiciones legales, las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma tendrán capacidad para dictar las leyes que estimen necesarias para garantizar la coordinación, armonización fiscal y colaboración entre las haciendas de los distintos territorios históricos y con la Hacienda General del País Vasco.


4.- Las competencias que corresponden a los territorios históricos como consecuencia de las disposiciones contenidas en la Ley del Concierto Económico quedan limitadas al ámbito tributario, como exige la naturaleza de aquella ley del Estado, sin que pueda condicionar la distribución de competencias entre instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los territorios históricos en cualquier otro ámbito.

Artículo 13.- Armonización fiscal

1.- Los territorios históricos, en el ejercicio de la potestad normativa que les atribuye la Ley del Concierto Económico y para garantizar la armonización fiscal, regularán de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos tributos.

2.- El Gobierno Vasco vigilará el cumplimiento por parte de los territorios históricos de la obligación de regulación armónica de los elementos sustanciales de los tributos que integran el Concierto Económico.

3.- Cuando cualquiera de los territorios históricos proceda a modificar la normativa





erregulatzen duen araudia aldatzeari ekiten badio, Eusko Jaurlaritzak, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak gai horri buruz alde aurretik azterketa egin ondoren, memoria bat landuko du, zergaren erregulazioaren aldaketa horrek zergen funtsezko elementuen erregulazio berdinari eragiten ote dion ikertzeko, horretara behartuta baitaude lurralde historikoak.

4.- Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztuko du aurreko zenbakiak aipatzen duen memoria, aipagai duen zerga erregulatzen duen araudiaren aldaketa ofizialki argitaratzen denetik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen. Gobernuak, bere iritziz, zergaren erregulazioak bere funtsezko elementuen erregulazio berdina apurtzen duela jotzen badu, memoria horrekin batera, lurralde historiko desberdinen artean zerga-erregulazioaren harmonizazioa bermatzeko beharrezko neurriak jasoko dituen lege-proiektua gehituko du, lege honek eskatutako hitzetan. Eusko Legebiltzarrean lehentasunez izapidetuko da, eta ez da zuzenketak egiteko epea luzatzeko aukerarik egongo

5. Legebiltzarrak uste badu, Gobernuak duen iritziauren aurka, zergaren araudi horrek zergaren funtsezko elementuak urratzen dituela, Ganberak bidezkoa iruditzen zaion erabakia hartuko du, Erregelamenduari bat etorritz.

BIGARREN KAPITULUA ERAKUNDE KOMUN, LURRALDE HISTORIKO ETA UDALETAKO GOBERNUEN ARTEKO LANKIDETZA

14. Artikulua.- Gobernuen arteko lankidetzaz

1.- Lege honek lurralde historikoei esleitzen

reguladora de cualquiera de los tributos que integran el Concierto Económico, el Gobierno Vasco, previo análisis de la cuestión en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, elaborará una memoria en la que analice si la referida modificación de la regulación del tributo afecta a la regulación igual de los elementos esenciales de los tributos a que están obligados los territorios históricos.


4.- El Gobierno Vasco presentará ante el Parlamento la memoria a que se refiere el número anterior antes de que transcurran dos meses desde la publicación oficial de la modificación de la normativa reguladora del tributo a que se refiere. En caso de que el Gobierno considere que la regulación del tributo rompe la igual regulación de sus elementos esenciales, acompañará a la memoria el correspondiente proyecto de ley en el que se contengan las medidas necesarias para garantizar la armonización de la regulación tributaria entre los distintos territorios históricos en los términos exigidos por la presente ley. Su tramitación en el Parlamento Vasco tendrá carácter preferente, sin que quepa ampliación del plazo de enmiendas.

5. En el supuesto de que el Parlamento considerase, en contra de la opinión del Gobierno, que la normativa del tributo supone una vulneración de los elementos esenciales del tributo, la Cámara adoptará el acuerdo que considere oportuno, de acuerdo con el Reglamento.

CAPÍTULO SEGUNDO LA COOPERACIÓN INTERGUBERNAMENTAL ENTRE LAS INSTITUCIONES COMUNES, LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS Y LOS MUNICIPIOS

Artículo 14.- La cooperación intergubernamental

1.- En los ámbitos de competencia que esta





dien eskumenaren eremuetan, bai foru-aldundietako gobernuen jarduera, oro har, eta bai dagokion alorrean eskumena duen foru-diputatu bakoitzarena ere, bereziki, gobernuen arteko lankidetzaren printzipioak gidatu behar du, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta dagozkion sektore-arduradunekin koordinatuta eta lankidetzan jardungo dutela bermatuko du, beren eskumenen kudeaketa egokiago eta eraginkorrago bat erdiesteari begira. Legeek udalei eskumen batzuk esleitzen dizkieten eremuetan, bertako ordezkariak gobernuen arteko lankidetzaren harreman horietan parte hartuko dute.

2.- Lurralde historikoei dagozkien eskumenen eremuetan, berriz, bai foru-aldundiak, oro har, eta bai foru-diputatuak ere, bereziki, bakoitzari dagozkion eskumen-eremuetan, elkarrekin koordinatuta eta lankidetzan arituko dira, beren eskumen-eremuetan gobernu-kudeaketa egokiago eta eraginkorrago bat erdiesteari begira.

3.- Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako arduradunen arteko koordinazioa eta lankidetzaren baita beren artekoa ere, bereziki ezinbestekoa da batzar nagusiek zerga-alorrean duten ahalmen arau-emailea gauzatu ahal izateko, Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik, Autonomia Erkidegoko zerga diren funtsezko elementuak modu harmoniatsuan erregulatuta egon daitezela bermatzeari begira.

4.- Era berean, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako arduradunen arteko koordinazioa eta lankidetzaren baita beren artekoa ere, bereziki ezinbestekoa da Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik ordainarazteko ardura beren gain hartu duten zerga-kudeaketaren alorrean, zergen funtsezko elementuen erregulazio harmoniatsua antzeko zerga-kudeaketa

ley atribuye a los territorios históricos, la acción de gobierno de las diputaciones forales en general, y de los respectivos diputados forales competentes por razón de materia en particular, estará guiada por el principio de cooperación intergubernamental, que garantizará la coordinación y colaboración con el Gobierno Vasco y sus respectivos responsables sectoriales, a los efectos de lograr una más adecuada y eficaz gestión de sus competencias. En los ámbitos en que los municipios tienen atribuidas legalmente competencias, sus representantes participarán en las relaciones de cooperación intergubernamental.

2.- En los ámbitos de competencia que corresponden a los territorios históricos, las diputaciones forales en general, y los respectivos diputados forales en sus respectivos ámbitos de competencia en particular, se coordinarán y colaborarán entre sí, a los efectos de lograr una más adecuada y eficaz gestión de gobierno en sus ámbitos de competencia.

3.- La coordinación y colaboración entre los responsables del Gobierno Vasco y de las diputaciones forales, y de éstos entre sí, es especialmente obligada en el ámbito del ejercicio de las potestades normativas en materia tributaria por parte de las respectivas juntas generales, a los efectos de garantizar la obligación de regulación armonizada de los elementos sustanciales de los tributos que, de acuerdo a la Ley del Concierto Económico, son tributos de normativa autónoma.

4.- Igualmente, la coordinación y colaboración entre los responsables del Gobierno Vasco y de las diputaciones forales, y de éstos entre sí, es especialmente obligada en el ámbito de la gestión de los tributos cuya exacción les corresponde de acuerdo a la Ley del Concierto Económico, a los efectos de garantizar que la regulación armonizada de los elementos





baten bidez, zerga-presio berberaz eta zerga-iruzurraren aurkako jarduera eraginkor berarekin gauzatu dadila bermatzearren.

15. Artikulua.- Gobernuen arteko lankidetzaren bertikalerako organoak

1.- Lege honek lurralde historikoen eskumenari esleitzen dizkion eremuetan Foru-aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako arduradunen artean gobernu arteko lankidetzaren lanak burutzeari begira, haiei dagozkion politika publikoen sektore bakoitzean, lankidetzaren kontseilu bat eratuko da, Eusko Jaurlaritzako dagozkion saileko arduradun gorenak eta dagozkion bileran aztertuko duten gaietan eskumena duen foru-aldundi bakoitzekoek osatua.

2.- Lankidetzaren kontseilu horiek alde anitzeko kontseiluen forma hartu ahal izango dute, eragindako erakundeetako ordezkari guztiek parte hartzen dutela, edo, baita ere, alde biko kontseiluarena, aztertu beharreko gaiak lurralde historiko bati bakarrik eragiten diotenean.

3.- Gobernuen arteko lankidetzaren kontseilu horiei dagozkien erakundeetako teknikariek lagunduko diete, eta komenigarritzat jotzen diren batzorde teknikoak osatu ahal izango dira horien barruan.

16. Artikulua.- Finantza Publikoen Euskal Kontseilua

1.- Zerga alorreko eskumenen eremuan Finantza Publikoen Euskal Kontseilua eratzen da, Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoen arteko koordinazio eta lankidetzarako gobernu arteko lankidetzaren organo gisa,

sustanciales de los tributos se concrete en una gestión tributaria similar, en una igual presión fiscal y en una igualmente eficaz actuación contra el fraude fiscal.

Artículo 15.- Los órganos de cooperación intergubernamental vertical

1.- A los efectos de ejercer las tareas de cooperación intergubernamental entre los representantes de las respectivas diputaciones forales y los del Gobierno Vasco en los ámbitos que esta ley atribuye a la competencia de los territorios históricos, en cada sector de las políticas públicas correspondientes a aquellos se constituirá un consejo de cooperación, que estará integrado por los máximos responsables del correspondiente departamento del Gobierno Vasco y de los de cada una de las diputaciones forales competentes en los asuntos que vayan a tratarse en la correspondiente reunión.

2.- Los respectivos consejos de cooperación podrán adoptar la forma de consejo multilateral, con participación de todos los representantes de las instituciones afectadas, o la de consejo bilateral, cuando los asuntos a tratar afecten a un solo territorio histórico.

3.- Los consejos de cooperación intergubernamental serán asistidos por los técnicos de las respectivas instituciones, y en su seno podrán establecerse las comisiones técnicas que se estimen convenientes.

Artículo 16.- El Consejo Vasco de Finanzas Públicas

1.- En el ámbito de las competencias en materia tributaria se constituye el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, como órgano de cooperación intergubernamental para la coordinación y colaboración entre las instituciones comunes de la Comunidad





Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik erkidegoak arautu beharreko zergen araugintza-proiektuen prestakuntzarekin loturik, horien funtsezko elementuak modu harmoniatuan erregulatu daitezela bermatzeari begira.

2.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, halaber, Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik lurralde historikoetako foru-aldundiei dagozkien zergak ordainarazi eta kudeatzearen inguruko gaiak aztertuko ditu.

3.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zerga alorreko lankidetzak eta koordinazioak sustatuko ditu. Horri begira, zergakudeaketarekin loturiko jarduerak koordinatuko dituzte hiru lurralde historikoetan zerga-presio berbera bermatu dadin, benetan egindako zerga-bilketa lurralde bakoitzak dituen ezaugarri eta egoeren arabera bakoitzari dagokion zerga-bilketaren egozpena egokitu dakion, eta halaber, zerga-iruzurraren aurkako jarduerak modu koordinatuan egin daitezela, lurralde historiko desberdinetako egoeren artean desorekak egon daitezela ekiditearren. Horri begira, urtero, kontseiluak zerga-iruzurraren aurkako borroka-plan bat prestatuko du, eta Gobernuak Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko dio, eztabaidatu dadin eta Ganberak egoki ikusten dituen baldintzetan onetsi dadin.

4.- Finantza Publikoen Euskal Kontseilua bederatzi kidek osatuko dute: hiru Gobernuak izendatuko ditu, beste hiru foru-aldundiak –aldundi bakoitzak bat–, eta euskal udalen hiru ordezkari ere izango dira, ezarpen handieneko euskal udalen elkarteak izendatuak. Euskal udalen ordezkagarritasunaren aniztasun politikoa bermatzeari begira, Autonomia Erkidegoko

Autónoma y los territorios históricos en relación con la elaboración de los proyectos de regulación normativa de los tributos que, de acuerdo a la Ley del Concierto Económico, son tributos de normativa autónoma, a los efectos de garantizar la regulación armonizada de sus elementos sustanciales.

2.- El Consejo Vasco de Finanzas Públicas tratará, igualmente, de las cuestiones relativas a la exacción y gestión de los tributos que, de acuerdo con la Ley del Concierto Económico, corresponde a las diputaciones forales de los territorios históricos.

3.- El Consejo Vasco de Finanzas Públicas impulsará la colaboración y coordinación en materia tributaria. A estos efectos, se coordinarán las actuaciones relativas a la gestión tributaria para garantizar una igual presión fiscal en los tres territorios históricos, la adecuación de la recaudación tributaria efectivamente realizada a la imputación a cada territorio de la recaudación que, de acuerdo a sus características y circunstancias, le corresponda, así como las actuaciones contra el fraude fiscal, que se realizarán de forma coordinada con el objetivo de eliminar desequilibrios entre las situaciones en los diferentes territorios históricos. A estos efectos, con carácter anual, el consejo elaborará un plan de lucha contra el fraude fiscal que el Gobierno elevará al Parlamento Vasco para su debate y aprobación en los términos que la Cámara considere oportunos.

4.- El Consejo Vasco de Finanzas Públicas estará integrado por nueve miembros: tres designados por el Gobierno, tres por las diputaciones forales, a razón de uno por cada una de ellas, y tres representantes de los municipios vascos designados por la asociación de municipios vascos con mayor implantación. A efectos de garantizar la pluralidad política de la representatividad





udal-hauteskundeetan boto-kopuruari dagokionez ezarpen handiena lortu duten hiru indar politikoetako kideen esku geratu behar dute aipatutako izendapen horiek, eta edonola ere, zinegotzi hautetsien izaera eduki behar dute.

Udal-ordezkariek bertara joango dira, hitz egiteko bai baina botoa emateko eskubiderik gabe, zuzenean haiei eragiten ez dieten gaiak aztertzen dituztenean, eta eskubide osoko kide gisa jardungo dute, aldiz, Euskadiko Udal Legearen 106.2 eta 107. artikuluetan zehaztutakoa aztertzen dutenean eta, halaber, udalei edo beren ordezkariari zuzenean eragiten dieten gaiak jorratzen dituztenean, baita, edonola ere, toki-ogasunen zergen erregulazioarekin loturiko gaiak aztertzen dituztenean ere.

5.- Gobernuak bere ordezkarien artetik izendatzen duen kidea izango da kontseiluko buru. Eusko Jaurlaritzako karrerako edo enpleguko funtzionario publiko batek egingo ditu idazkari-lanak, baina ez du hitz egiteko edo botoa emateko eskubiderik izango kontseiluaren eztabaidetan.

6.- Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea lehendakariaren ardura izango da, bere ekimenez, edo bestela, foru-aldundietako edozein ordezkariak hala eskatzen duenean, eta deialdian adierazten den tokian egingo dira bilerak. Udal mailako edozein ordezkariak hala eskatzen duenean ere bilera egingo du kontseiluak, hain intereseko gaiak jorratzeko.

7.- Kontseiluak bertako kideen gehiengo absolutuz hartuko ditu erabakiak, lege honek gehiengo kualifikatu bat eskatzen duen kasuetan izan ezik. Udal-ordezkariek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin parte hartzen dutenean,


de los ayuntamientos vascos, las referidas designaciones deberán recaer sobre miembros de las tres fuerzas políticas con mayor implantación en cuanto a número de votos en las elecciones municipales en la Comunidad Autónoma, que deberán tener en todo caso la condición de concejal o concejala electa.


Las representantes y los representantes municipales asistirán al mismo con voz pero sin voto cuando se traten asuntos que no les afectan directamente, pasando a actuar como miembros de pleno derecho cuando se trate de lo establecido en los artículos 106.2 y 107 de la Ley Municipal de Euskadi e, igualmente, en cuanto se trate de asuntos que afecte directamente a los municipios o a su representación, así como, en cualquier caso, cuando se trate de cuestiones relativas a la regulación de los tributos de las haciendas locales.

5.- El consejo será presidido por el miembro representante del Gobierno que éste designe. Actuará de secretario un funcionario público de carrera o de empleo del Gobierno Vasco, que no tendrá ni voz ni voto en las deliberaciones del consejo.

6.- La convocatoria para las reuniones del consejo corresponderá al presidente, a iniciativa propia, o a petición de cualquiera de los miembros representantes de las diputaciones forales, y sus reuniones se celebrarán en el lugar que señale la convocatoria. También se reunirá el consejo a petición de cualquiera de las representantes o los representantes del nivel municipal para los asuntos de su interés.

7.- El consejo adoptará sus acuerdos por mayoría absoluta de sus miembros, salvo en aquellos supuestos en que la presente ley elija una mayoría cualificada. Cuando las representantes o los representantes municipales intervengan con voz y voto,





erabakiak hartzeko ezinbestekoa izango da erabaki horiek gehiengo absolutuz onestea, betiere gehiengo horren barruan erakunde bakoitzetik ordezkari bana baldin badago gutxienez.

8.- Kontseiluak, horri begira, lege honek esleitu dizkion eginkizunak burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen aholkularitza guztiak eskatu eta Euskadiko nahiz lurralde historikoetako Administrazioaren edozein organotatik beharrezkoak diren datu guztiak jaso ahal izango ditu. Era berean, Euskadiko udaletatik eta ezarpen handieneko udalen elkartetik beharrezkotzat jotzen dituen datuak jaso eta aholkularitza eskatu ahal izango du kontseiluak. Aipatutako udal eta elkarte horiek behartuta daude datuak eta bestelako informazioa eskaintzera, Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako Administrazioarentzat aurreikusitako baldintza berdinetan.

9.- Lege honetan edo kontseiluak berak erabakitzen dituen barne-funtzionamendurako arauetan aurreikusita ez dauden gauza guztietan, eraketarako quorumari, eztabaidei eta erabakiak hartzeko moduari dagokionez, Administrazio Prozedurari buruzko Legean xedatutakoa bete beharko da.

10.- Lege honek aipagai dituen eginkizunak betetzeko, bai Gobernuak eta bai foru-aldundiek ere, urte bakoitzeko irailaren lehen hamabostaldian, Kontseiluaren esku jarriko dituzte ondorengo datuak:

- a) Aurtengo eta hurrengo ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen aurrekontu eta aurreikuspenen zerrrenda-egoera eguneratua.
- b) Bere eskumenen eremuan, hurrengo ekitaldian egitea beharrezko ikusten dituen inbertsioen memoria xehakatu, kasu bakoitzean zenbaterainoko presa dagoen eta


para la adopción de acuerdos será preceptiva la aprobación de los mismos por mayoría absoluta, siempre que dicha mayoría incluya al menos una persona representante de cada nivel institucional.

8.- El consejo podrá solicitar todos los asesoramientos y recabar de cualquier órgano de la Administración del País Vasco y de los territorios históricos todos los datos que considere necesarios para el desempeño de las funciones que esta ley le atribuye. Así mismo, el consejo podrá solicitar asesoramiento y recabar los datos que considere necesarios de los municipios vascos y de la asociación de éstos con mayor implantación. Los citados municipios y asociación están obligados a facilitar datos y demás información en los mismos términos que los previstos para la Administración de la Comunidad Autónoma y de los territorios históricos.

9.- Cuanto no esté previsto en la presente ley o en las normas de funcionamiento interno que el propio consejo acuerde, en orden al quórum de constitución, deliberaciones y modo de adopción de acuerdos, se regulará por lo dispuesto en la Ley de Procedimiento Administrativo.

10.- Para el cumplimiento de las funciones a que se refiere esta ley, el Gobierno y las diputaciones forales pondrán a disposición del Consejo, dentro de la primera quincena del mes de septiembre de cada año, los siguientes datos:

- a) Situación actualizada de relación de los presupuestos y previsiones de ingresos y gastos del ejercicio en curso y del siguiente
- b) Memoria detallada de las inversiones que, en el ámbito de sus competencias, estima necesario efectuar en el ejercicio siguiente, con indicación, en cada caso, de su grado





lehentasun-hurrenkera adieraziz.

- c) Foru-aldundien iritziz, hurrengo ekitaldian Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen eremuan egin beharko lituzkeen inbertsio-proiektu zehatzen inguruko iradokizunak, eta alderantziz.
- d) Kontseiluak bere eginkizunak egoki burutzeko egoki ikusten duen beste edozein informazio.

11.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak urte bakoitzeko irailean aurreko apartatu horretan adierazitako daturen edo dokumenturen bat jasotzen ez badu, kontseiluak berak egingo du hurrengo ekitaldiari dagozkion datuen zenbatespen bat, uneko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan oinarrituz, bidezkoa den zenbatekoan aldatuta, eta horretarako erreferentzia objektiboak hartuko ditu.

12.- Lege honen 23. artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, gobernuen arteko lankidetzarako organo gisa, erakunde bakoitzaren diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena finkatuko du, eta lurralde historiko bakoitzari eskatu ahal izango zaion zerga-bilketarako gaitasunaren zenbatespena ere egingo du, horietako bakoitzak izango duen zerga-presioa eta zerga-iruzurraren zenbatespenak kontuan izanik.

13.- Autonomia Erkidegoko udalen inguruko zenbatespenak eta udal-finantzaketarako fondoak bildu behar duen zenbatekoa zehazteari begira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren bilkuretan udaletako ordezkariak ere parte hartuko dute, lege honetan aurreikusitako baldintzetan.

17. Artikulua.- Gobernuen arteko

de urgencia y orden de prioridad

- c) Sugerencias en orden a proyectos concretos de inversión que, en opinión de las diputaciones forales, debería realizar en el ejercicio siguiente el Gobierno Vasco en el ámbito de sus propias competencias, y viceversa
- d) Cualquier otra información que el consejo considere procedente para el adecuado cumplimiento de sus funciones.

11.- En el supuesto de que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas no recibiera dentro del mes de septiembre de cada año alguno de los datos o documentos señalados en el apartado anterior, el propio consejo realizará la estimación de los correspondientes al ejercicio próximo, sobre la base del presupuesto aprobado para el ejercicio corriente, modificado en la cuantía que proceda, tomando para ello referencias objetivas.

12.- A los efectos previstos en el artículo 23 de la presente ley, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, como órgano de cooperación intergubernamental, establecerá la previsión de ingresos y gastos de cada ente institucional, precisando la estimación de capacidad recaudatoria que sería exigible a cada territorio histórico, teniendo en cuenta la presión fiscal y las estimaciones de fraude fiscal en cada uno de ellos.

13.- A los efectos de determinar las estimaciones relativas a los municipios de la Comunidad Autónoma y la cuantía necesaria que debe integrar el fondo de financiación municipal, se integrarán en las sesiones del Consejo Vasco de Finanzas Públicas representantes de los municipios, en los términos previstos en la presente ley.

Artículo 17.- La cooperación





lankidetza horizontala

1.- Foru-aldundiek elkarren arteko lankidetza sustatuko dute, Autonomia Estatutuarekin, Ekonomia Itunaren Legearekin eta lege honekin bat etorritik dagozkien eskumenak gauzatzeko laguntzarren, eta bakoitzak dituen esperientziak besteekin trukatzeko dituzten zerbitzuak kudeatu eta eskaintzak herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagundu dezaten eta baliabide publikoak egoki erabili daitezkeen.

2.- Foru-aldundi desberdinetako ordezkariak gobernu arteko lankidetzaren eginkizunak bete ahal izan ditzaten lege honek lurralde historikoei esleitzen dizkien eskumenen eremuan, foru-aldundi bakoitzeko departamentuan politika publikoetako sektore bakoitzeko arduradun goren direnek aldi berean bilerak egingo dituzte beren eskumenak gauzatzeko elkarlanean jarduteko.

3.- Foru-aldundi bakoitzeko foru-ogasunaren arduradunek ere elkarlanean jardungo dute Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik autonomia mailako araugintza duten zergen funtsezko elementuak modu harmoniatzuan erregulatuta egon daitezela bermatzeko.

4.- Halaber, foru-aldundi bakoitzeko foru-ogasuneko arduradunek elkarrekin jardungo dute Ekonomia Itunaren Legearekin bat etorritik dagozkien zergen kudeaketa lurralde historiko desberdinetan modu harmoniatzuan gauzatu dadila bermatzeko, zerga-presio berbera, zergen kudeaketa egokia eta zerga-iruzurraren aurkako jarduera eraginkorra bermatu ahal izateko.

18. Artikulua.- Lurralde historikoen Autonomia Erkidegoko legeria betetzen

intergubernamental horizontal

1.- Las diputaciones forales impulsarán la cooperación entre sí con el fin de colaborar en el ejercicio de las competencias que les corresponden de acuerdo al Estatuto de Autonomía, la Ley del Concierto Económico y la presente ley, poniendo en común sus respectivas experiencias con el fin de que la gestión y la prestación de servicios redunde en una mejor calidad de vida de la ciudadanía y un uso idóneo de los recursos públicos.

2.- A los efectos de ejercer las tareas de cooperación intergubernamental entre los representantes de las respectivas diputaciones forales en los ámbitos que esta ley atribuye a la competencia de los territorios históricos, los máximos responsables de los departamentos correspondientes de cada una de las diputaciones forales en cada sector de las políticas públicas se reunirán periódicamente para la colaboración en el ejercicio de sus competencias.

3.- Los responsables de las haciendas forales de cada respectiva diputación foral cooperarán entre sí para garantizar la regulación armonizada de los elementos sustanciales de los tributos que, de acuerdo a la Ley del Concierto Económico, son tributos de normativa autónoma.

4.- Asimismo, los responsables de las haciendas forales de cada respectiva diputación foral cooperarán entre sí para garantizar que la gestión de los tributos que les corresponden de acuerdo con la Ley del Concierto Económico se realiza de forma armónica en los distintos territorios históricos, con el fin de garantizar una igual presión fiscal, una adecuada gestión tributaria y una actuación eficaz contra el fraude fiscal.

Artículo 18.- Control de la ejecución por los territorios históricos de la legislación





dutela kontrolatzea

1.- Eusko Jaurlaritzaren ardura da lurralde historikoek Autonomia Erkidegoko legeak bete ditzatela kontrolatzea, lege honek bertako 9. artikuluekin bat etorritz esleitzen dizkien eremu materialetan.

2.- Aurreko zenbakian zehaztutako kontrol-eginkizun horiei begira, Eusko Jaurlaritzak egoki iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango die dagokion lurralde historikoko agintaritzak gorenei, Autonomia Erkidegoko legeria betetzearen inguruan, baldin eta hori bete edo gauzatzeari buruzko zalantzarik edo desadostasunik badu, eta azterketa egokiaren ondoren, hori zuzen betetzeko jarraibideak bidali diezazkieke.

3.- Aurreko zenbakian aipatutako lurralde historikoko agintaritzek uko egiten badiote informazio hori eskaintzeari edo Autonomia Erkidegoko legeria zuzen betetzeko Gobernuak igorritako jarraibideak betetzeari, Gobernuak beheagoko agintaritzei zuzendu ahal izango die errekerimendu hori.

4.- Aurreko zenbakian aipatutako jarraibideak igorri ondoren, Autonomia Erkidegoko legeria betetzearekin loturiko huts horiek zuzentzen ez badira, Eusko Legebiltzarrak, Gobernuak hala eskatuta eta horretarako xedatzen den prozedurarekin bat etorritz, lurralde historikoko agintaritzei jarraibide individualak igortzeko gaitasuna esleitu ahal izango dio hari.

**HIRUGARREN KAPITULUA
EUSKADIKO OGASUN
PUBLIKOAK ETA FINANTZA-
BALIABIDEAK ERAKUNDE KOMUNEN,
LURRALDE HISTORIKOEN ETA UDALEN**

de la Comunidad Autónoma


1.- Corresponde al Gobierno Vasco el control de la ejecución de las leyes de la Comunidad Autónoma que realicen los territorios históricos en los ámbitos materiales que la presente ley les atribuye de acuerdo con el artículo 9 de la misma.

2.- A los efectos de las tareas de control precisadas en el número anterior, el Gobierno Vasco podrá requerir de las autoridades superiores del territorio histórico de que se trate la información que considere oportuna en relación con la ejecución de la legislación de la Comunidad Autónoma sobre cuya correcta ejecución o desarrollo tenga dudas o discrepancias y, tras el oportuno examen, enviar instrucciones para su correcta ejecución.

3.- En caso de que las autoridades del territorio histórico referidas en el número anterior se negaran a proporcionar la información o a cumplir las instrucciones remitidas por el Gobierno para la correcta ejecución de la legislación de la Comunidad Autónoma, el Gobierno podrá dirigir el requerimiento correspondiente a las autoridades inferiores.

4.- En el caso de que, remitidas las instrucciones referidas en el número anterior, no fueran subsanadas las deficiencias en la ejecución de la legislación de la Comunidad Autónoma, el Parlamento Vasco, a solicitud del Gobierno y de acuerdo al procedimiento que habilite para ello, podrá atribuir a éste la capacidad de emitir instrucciones individuales a las autoridades del territorio histórico.

**CAPÍTULO TERCERO
HACIENDAS PÚBLICAS DEL PAÍS
VASCO Y DISTRIBUCIÓN DE LOS
RECURSOS FINANCIEROS ENTRE LAS
INSTITUCIONES COMUNES, LOS**





ARTEAN BANATZEA

19. Artikulua.- Printzipio orokorrak

1.- Euskadiko Autonomia Erkidegoak, eta hori osatzen duten lurralde historiko eta udal bakoitzak, finantza eta aurrekontu alorreko autonomia edukiko dute Autonomia Estatutuaren testuinguruan dituzten eskumenak, lege honetan jasotako xedapenak eta aplikagarri zaizkien gainerako legeak gauzatzeko.

2.- Lurralde historikoen eta beren sektore publikoaren finantza-jarduera Euskadiko Ogasun Orokorrarekin koordinatuta gauzatu da. Era berean, Euskadiko toki-ogasunek Euskadiko Ogasun Orokorrarekin eta lurralde historikoetako foru-ogasunekin modu koordinatuan, solidarioan eta erantzukizun partekatuz beteko dituzte beren esleipenak.

3.- Nolanahi ere, Autonomia Estatutuan eta lege honetan bertan jasotakoarekin bat etorritik, Ekonomia Itunean aitortutako botere arau-emaitza betetz foru-organo eskudunek ematen dituzten xedapenak modu bateratuan erregulatuko dituzte zerga desberdinen funtsezko elementuak.

4.- Autonomia Erkidegoak, bertako lurralde historikoek eta udalek urtero beren aurrekontuak prestatu eta onetsiko dituzte, beren jarduera publikoaren diru-sarrera eta gastu guztiak bilduz. Euskadiko Aurrekontu Orokorrak bertako Gobernuak prestatuko ditu eta Eusko Legebiltzarrak onetsiko ditu. Lurralde historiko bakoitzekoak dagokion foru-aldundiak prestatuko ditu eta batzar nagusiek onetsiko dituzte. Udal-entitate bakoitzarenak bertako lehendakariak egingo ditu eta Udal Batzarrak onetsiko ditu.

TERRITORIOS HISTÓRICOS Y LOS MUNICIPIOS

Artículo 19.- Principios generales

1.- La Comunidad Autónoma del País Vasco y cada uno de los territorios históricos y municipios que la integran gozarán de autonomía financiera y presupuestaria para el ejercicio de sus competencias, en el marco del Estatuto de Autonomía, de las disposiciones contenidas en la presente Ley y las demás leyes que les sean aplicables.

2.- La actividad financiera de los territorios históricos y de su sector público se ejercerá en coordinación con la Hacienda General del País Vasco. Así mismo, las haciendas locales vascas ejercerán sus atribuciones de forma coordinada, solidaria y con corresponsabilidad con la Hacienda General del País Vasco y las haciendas forales de los territorios históricos.

3.- En cualquier caso, conforme a lo contenido en el Estatuto de Autonomía y esta propia ley, las disposiciones que dicten los órganos forales competentes, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Concierto Económico, regularán de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos.

4.- La Comunidad Autónoma, sus territorios históricos y sus municipios elaborarán y aprobarán anualmente sus respectivos presupuestos conteniendo todos los ingresos y gastos de su actividad pública. Los Presupuestos Generales del País Vasco serán elaborados por su Gobierno y aprobados por el Parlamento Vasco. Los de cada territorio histórico serán elaborados por su respectiva diputación foral y aprobados por sus juntas generales. Los de cada entidad local serán formados por su presidente y aprobados por el Pleno de la corporación municipal.





5.- Euskadiko foru-aldundiek eta udalek, baita horien organismo eta erakundeek ere, Autonomia Erkidegoko erakunde komunek erabilitakoen antzeko irizpide homogeneoak aplikatuko dituzte aurrekontu-prozedurarekin eta kontabilitate publikoarekin loturik, Euskadiko sektore publiko osoa, informazio aldetik, bateratuta egon dadin erdiestearren.

20. Artikulua.- Autonomia Erkidegoko eta bertako udaletako ogasun publikoak

1.- Autonomia Erkidegoko finantza-baliabideen artean ditugu Euskadiko Ogasun Nagusiaren baliabideak, dagozkion lurralde historikoetako foru-ogasunenak eta udal-erakundeen ogasunenak.

2.- Autonomia Erkidegoko erakunde bakoitzaren Ogasunak eta bere lurraldean kokatuta dauden udal-erakundeak autonomia osoz kudeatuko dituzte bere baliabide propioak, eta aplikagarri zaien legeriari bakarrik egingo diote men.

3.- Erakunde bakoitzeko ogasunaren baliabide propio izango dira Ekonomia Ituna osatzen duten zergen kudeaketaren bidez erdietsitako baliabideen banaketatik datozenak, baita beste diru-iturri batzuetatik etor dakizkiekeenak ere.

4.- Autonomia Erkidegoko ogasun publikoek, baita udal-ogasunek ere, Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari buruzko legeek eta horiek garatzen dituzten arauk ezarritako aurrekontu eta kontabilitate publikoko xedapenak beteko dituzte, Euskadiko sektore publiko osoa bateratuta egon dadila bermatzearen.

5.- Las diputaciones forales y ayuntamientos de Euskadi, así como sus organismos y entidades, aplicarán criterios homogéneos a los utilizados por las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma en materia de procedimiento presupuestario y contabilidad pública, con el fin de obtener, a efectos informativos, la consolidación de todo el sector público vasco.

Artículo 20.- Las haciendas públicas de la Comunidad Autónoma y de sus municipios

1.- Los recursos financieros de la Comunidad Autónoma están integrados por los recursos de la Hacienda General del País Vasco, los de las haciendas forales de los respectivos territorios históricos y los de las haciendas de sus entes locales.

2.- La Hacienda de cada uno de los entes institucionales de la Comunidad Autónoma y de los entes locales radicados en su territorio gestionará sus propios recursos con plena autonomía, con sometimiento, únicamente, a la legislación que le sea de aplicación.

3.- Serán recursos propios de las respectivas haciendas de cada ente institucional los procedentes de la distribución de los recursos obtenidos en la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico, así como los que les correspondan procedentes de otras fuentes de ingresos.

4.- Las haciendas públicas de la Comunidad Autónoma, incluidas las haciendas locales, cumplirán las disposiciones en materia presupuestaria y de contabilidad pública establecidos por las leyes relativas a la Hacienda General de la Comunidad Autónoma y sus normas de desarrollo, a los efectos de garantizar la consolidación del conjunto del sector público del País Vasco.





21. Artikulua.- Autonomia Erkidegoko ogasunen finantza-baliabideak eta bere lurraldean kokatuta dauden udalenak

1.- Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren finantza-baliabideak hauek dira:

1. Ekonomia Ituna osatzen duten zergak kudeatuz erdiesten diren diru-sarreraren banaketatik datozenak.
2. Autonomia Erkidegoak, hala egokituz gero, ezarritako zerga propioetatik datozenak
3. Hala egokituz gero, Lurralde Konpentsaziorako Funtzaren transferentziak
4. Tasa eta prezio publikoetatik datozenak, eta halaber, hala egokituz gero, diru-zehapenetatik datozenak.
5. Bere ondaretik datozen errendimenduak.
6. Kreditu-eragiketen emaitza.
7. Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan xedatutakoarekin bat etorriz ezar daitezkeen beste edozein eratako diru-sarrerak.

2.- Dagozkion lurralde historikoetako foru-ogasunen finantza-baliabideak hauek dira:

1. Ekonomia Ituna osatzen duten zergak kudeatuz erdiesten diren diru-sarreraren banaketatik datozenak.
2. Bere ondaretik datozen errendimenduak.
3. Tasa eta prezio publikoetatik

Artículo 21.- Los recursos financieros de las haciendas de la Comunidad Autónoma y de los municipios radicados en su territorio

1.- Son recursos financieros de la Hacienda General de la Comunidad Autónoma:

1. Los procedentes de la distribución de los ingresos obtenidos a través de la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico
2. Los procedentes de los tributos propios establecidos por la Comunidad Autónoma, en su caso
3. Las transferencias del Fondo de Compensación Territorial, en su caso
4. Los procedentes de las tasas y precios públicos, así como, en su caso, de las sanciones pecuniarias
5. Los rendimientos procedentes de su patrimonio
6. El producto de las operaciones de crédito
7. Cualesquiera otros ingresos que puedan establecerse en virtud de lo dispuesto en la Constitución y el Estatuto de Autonomía.

2.- Son recursos financieros de las haciendas forales de los respectivos territorios históricos:

1. Los procedentes de la distribución de los ingresos obtenidos a través de la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico
2. Los rendimientos procedentes de su patrimonio
3. Los procedentes de las tasas y precios





datozenak.	públicos
4. Kreditu-eragiketen emaitza, hala egokituz gero.	4. El producto de las operaciones de crédito, en su caso
5. Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan xedatutakoarekin bat etorri ezar daitezkeen beste edozein eratako diru-sarrerak.	5. Cualesquiera otros ingresos que puedan establecerse en virtud de lo dispuesto en la Constitución y el Estatuto de Autonomía.
3.- Udaletako ogasunen finantza-baliabideak hauek dira:	3.- Son recursos financieros de las haciendas de los municipios:
1. Ekonomia Ituna osatzen duten zergak kudeatuz erdiesten diren diru-sarreraren banaketatik datozenak	1. Los procedentes de la distribución de los ingresos obtenidos a través de la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico
2. Udal-zergetatik datozenak	2. Los procedentes de los tributos locales
3. Bere ondaretik datozen errendimenduak	3. Los rendimientos procedentes de su patrimonio
4. Tasa eta prezio publikoetatik datozenak	4. Los procedentes de las tasas y precios públicos
5. Estatuaren edo beste erakunde batzuen transferentzietatik datozenak	5. Los procedentes de transferencias del Estado o de otras instituciones
6. Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan xedatutakoarekin bat etorri ezar daitezkeen beste edozein eratako diru-sarrerak.	6. Cualesquiera otros ingresos que puedan establecerse en virtud de lo dispuesto en la Constitución y el Estatuto de Autonomía.

22. Artikulua.- Ekonomia Ituna osatzen duten zergetatik datozen finantza-baliabideen banaketa-printzipioak

1.- Ekonomia-itunaren sistema osatzen duten zergetatik datozen finantza-baliabideak (zergak eta udal-tasak), lege arau-emaitzarekin bat etorri horien kudeaketa dagozkion lurralde historikoetako foru-aldundiei dagokienez, Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren, dagozkion lurralde historikoetako foru-ogasunen eta beren lurraldean kokatuta dauden udalen toki-

Artículo 22.- Principios de distribución de los recursos financieros procedentes de los tributos que integran el Concierto Económico

1.- Los recursos financieros procedentes de los tributos que integran el sistema de concierto económico (impuestos y tasas fiscales), cuya gestión, de acuerdo a su ley reguladora, corresponde a las diputaciones forales de los respectivos territorios históricos, se distribuirán entre la Hacienda General de la Comunidad Autónoma, las haciendas forales de los respectivos territorios históricos y las haciendas locales





ogasunen artean banatuko dira, lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.- Aurreko zenbakian xedatutakoa hala izanik ere, Ekonomia Itunaren parte diren udal-zergetatik datozen baliabideak, horiek erregulatzea eta ordainaraztea foru-aldundiei dagokienean eta tokiko diru-sarreratzat jotzen direnean, banaketa honi begira egin beharreko zenbaketatik kanpo geratzen dira.

3.- Erakunde desberdinen artean finantza-baliabideen banaketa, artikuluko honek aipatzen duen moduan, hurrenez hurren titular diren eskumenei dagozkien gastu-eskakizunei erreparatuz egingo da, horien guztien finantza-nahikotasunaren printzipioa bermatuz.

4.- Erakunde desberdinen artean finantza-baliabideak banatzean, artikuluko honek aipatzen duen bezala, biztanle bakoitzeko gastua orekatua eta solidarioa izateko moduan jokatuko da, baina salbuespenezko egoera iragankorretan neurri bereziak hartu ahal izango dira.

5.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko ogasunen diru-sarrerak, baldin eta Ekonomia Ituna osatzen duten zergetatik kanpo badago horien jatorria, salbuetsita egongo dira lege honetan ezarritako banaketa-arauak aplikatu behar izatetik, eta ez dira kontuan hartuko ondorio horiei begira. Dagokion erakundeak erabakiko du haien xedea, komenigarritzat jotzen duen moduan, bere finantza-autonomia gauzatzuz, bere eskumenak finantzatu ahal izan ditzan.

23. Artikulua.- Lurralde historikoen ekarpenak

1.- Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiak Autonomia Erkidegoko erakunde

de los municipios radicados en su territorio de acuerdo a lo establecido en la presente ley.

2.- A pesar de lo dispuesto en el número anterior, los recursos procedentes de los tributos locales que forman parte del Concierto Económico, cuya regulación y exacción corresponde a las diputaciones forales y que tienen la consideración de ingresos locales, quedan excluidos del cómputo a efectos de esa distribución.

3.- La distribución de los recursos financieros entre las distintas instituciones a que se refiere el presente artículo se realizará atendiendo a las exigencias de gasto que correspondan a las competencias de las que, respectivamente, son titulares, garantizando el principio de suficiencia financiera de todas ellas.

4.- La distribución de los recursos financieros entre las diferentes instituciones a que se refiere el presente artículo se realizará de forma que el gasto medio por habitante sea equitativo y solidario, sin perjuicio de la adopción de medidas especiales en situaciones excepcionales de carácter transitorio.

5.- Los ingresos de las haciendas de la Comunidad Autónoma del País Vasco que no tengan su origen en los tributos que integran el Concierto Económico estarán excluidos de la aplicación de las normas de distribución establecidas en la presente ley, y no serán tenidos en cuenta a estos efectos. Su destino será decidido por el respectivo ente, en la forma que estime conveniente, en ejercicio de su autonomía financiera, para la financiación de sus competencias.

Artículo 23.- Las aportaciones de los territorios históricos

1.- La diputación foral de cada territorio histórico aportará a la financiación de los





komunen eta Euskadiko udalen aurrekontuen finantzaketarako egoki den diru-zenbatekoaren ekarpena egingo du, lege honetan ezarritakoarekin bat etorritik. Ekarpene hori Ekonomia Ituna osatzen duten zergak kudeatuz erdietsitako baliabideetatik etorriko da, Euskadiko Autonomia Erkidegoak Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren ekarpena bertatik deskontatu ondoren.

2.- Foru-aldundi bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa zehazteko, lurralde historiko bakoitzaren errenta hartuko da kontuan, eta lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahaleginaren eta Autonomia Erkidego osoko batez besteko zerga-ahaleginaren arteko erlazioa alderantziz modu proportzionalen zenbatetsiko da.

3.- Eusko Legebiltzarraren lege batek erabakiko du, ezartzen den denbora-epe bakoitzerako, baliabideak banatzeko eta foru-aldundi bakoitzari dagokion ekarpena zehazteko metodologia, artikuluko honen 1. zenbakian adierazitako baldintzetan.

4.- Artikulu honek aipagai duen legeak erabakiko ditu udal-finantzaketarako fondoak osatuko duten baliabideak, eta Ekonomia Ituna osatzen duten zergetatik datozen baliabideak banatzean udalek izango duten parte-hartzearen koefizientea finkatuko du. Halaber, udalen artean banatzeko irizpideak finkatuko ditu, eta besteak beste, erabakitzen diren haztapen-koefizienteekin, udal-erri bakoitzeko biztanleria, udal-zergen gaineko zerga-presioa eta egoki jotzen dituen gainerakoak agertuko dira, eta era horretan, fondoak osatzen duten baliabideak horien artean banatuko dira oso-osorik, legean ezarritako irizpideak zuzenean aplikatuz.

presupuestos de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y de los municipios del País Vasco la cuantía que le corresponda, de acuerdo con lo establecido en la presente ley. Esa aportación procederá de los recursos obtenidos de la gestión de los tributos que integran el Concierto Económico, una vez descontada su contribución al Cupo a pagar al Estado por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Para la determinación de la cuantía de la aportación que corresponde a cada diputación foral se tendrá en cuenta la renta de cada territorio histórico y se ponderará en forma inversamente proporcional la relación entre el esfuerzo fiscal de cada territorio histórico y el esfuerzo fiscal medio en el conjunto de la Comunidad Autónoma.

3.- Una ley del Parlamento Vasco determinará, para cada periodo temporal que se establezca, la metodología de distribución de recursos y determinación de la aportación que corresponde a cada diputación foral, en los términos señalados en el número 1 de este artículo.

4.- La ley a que se refiere el presente artículo determinará los recursos que integran el fondo de financiación municipal, fijando el coeficiente de participación de los municipios en la distribución de los recursos procedentes de los tributos que integran el Concierto Económico. Asimismo, establecerá los criterios para su distribución entre los municipios, entre los que deberán figurar, con los coeficientes de ponderación que se determinen, la población de cada municipio, la presión fiscal en tributos locales y los demás que considere oportunos, de forma que los recursos que integran el fondo se distribuyan íntegramente entre ellos en aplicación directa de los criterios establecidos en la ley.





5.- Udalen finantzaketarako fondoa osatzen duten baliabideak dagokion lurralde historikoko udalen artean banatuko dituzte foru-aldundiek, artikulua honetan aipatzen den legean ezarritako irizpideak aplikatuz.

6.- Gobernuari dagokio Eusko Legebiltzarraren aurrean baliabideen banaketarako metodologiaren lege-proiektua aurkeztea eta foru-aldundi bakoitzak Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari eta udalen finantzaketa-fondoari egin beharreko ekarpena erabakitzea. Gobernuak aurkeztutako proiektuari zuzenketak egiteko ahalmen osoa izango du Eusko Legebiltzarrak, eta egoki iruditzen zaizkion baldintzetan onetsiko du legea, Ganberaren funtzionamendua erregulatzen duten arau-xedapenak aplikatuz.

7.- Urte bakoitzeko urriko lehen hamabost egun naturalen gehieneko epearen barruan, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak finkatuko ditu hurrengo ekitaldian Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari eta udalen finantzaketa-fondoari foru-aldundiek egin beharko dizkieten ekarpenak.

8.- Lege honen 26.3 artikulua aipatzen duen legea onesten baldin bada, erabaki hori Eusko Legebiltzarrari jakinaraziko zaio horren berri izan dezan, eta lege hori aplikatuz ondorioztatzen diren ekarpenetan oinarrituz prestatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak eta foru-aldundienak.

9.- Lege honen 26.3 artikulua aipatzen duen legea ez badago, aurreko denborapeari dagokion legean ezarritako metodologia aplikatzen jarraituko dute behin-behinekoz, ekitaldiko epealdiari dagokion legea onesten denean egokitzen batzuk egin beharko dituzten arren. Erabaki hori Eusko Legebiltzarrari

5.- Los recursos que integran el fondo de financiación municipal se distribuirán por las diputaciones forales entre los municipios del correspondiente territorio histórico, aplicando los criterios establecidos en la ley a que hace referencia el presente artículo.

6.- Corresponde al Gobierno presentar ante el Parlamento Vasco el proyecto de ley de metodología de distribución de los recursos y la determinación de la aportación que cada diputación foral debe realizar a la Hacienda General de la Comunidad Autónoma y al fondo de financiación municipal. El Parlamento Vasco tendrá plena potestad para enmendar el proyecto presentado por el Gobierno, aprobando la ley en los términos que considere oportunos, en aplicación de las disposiciones reglamentarias que regulan el funcionamiento de la Cámara.

7.- Dentro del plazo máximo de los quince primeros días naturales del mes de octubre de cada año, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas fijará para cada ejercicio siguiente las aportaciones que deban efectuar las diputaciones forales a la Hacienda General de la Comunidad Autónoma y al fondo de financiación municipal.

8.- En el caso de que se hubiera aprobado la ley a que se refiere el artículo 26.3 de esta ley, el acuerdo se comunicará al Parlamento Vasco para su conocimiento, pudiendo elaborarse los presupuestos del Gobierno Vasco y de las diputaciones forales sobre la base de las aportaciones que resulten de la aplicación de dicha ley.

9.- En caso de ausencia de la ley a que se refiere el artículo 26.3 de esta ley, transitoriamente se seguirá aplicando la metodología establecida en la ley correspondiente al periodo temporal precedente, con independencia de los ajustes que hayan de realizarse una vez aprobada la ley correspondiente al periodo





jakinaraziko zaio horren berri izan dezan, eta lege hori aplikatuz ondorioztatzen diren ekarpenetan oinarrituz prestatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak eta foru-aldundienak.

10.- Euskadiko Aurrekontu Orokorrak luzatzeak, aldi berean, foru-aldundiek azken ekitaldian egitera behartuta egon diren ekarpenak luzatzea ekarriko du, zenbateko eta epemuga berdinekin, baina dena den, aurrekontu berriak onesten direnean, bertan jasotako ekarpenak sartuko dira indarrean, eta hala egokituz gero, aldeengatik egoki diren likidazioak egin ahal izango dira.

11.- Lurralde historikoen ekarpenak zehaztu ondoren, Autonomia Erkidegoak Estatutik eskumen edo zerbitzu berriak bere gain hartzen baldin baditu, eta dagokion kupoaren ekarpena eginez horiei eusten lagundu badute, Autonomia Estatutuaren 41.2.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, urte horretan foru-aldundiek Euskadiko Ogasun Orokorrari egin beharreko ekarpenak Estatuari ordaindu beharreko kupoak izandako murrizpenaren pareko zenbatekoan gehituko dira. Irizpide bera aplikatuko da eskumenak gauzatzearekin loturiko aldaketa hori alderantziz gertatzen bada.

12.- Lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Autonomia Erkidegotik lurralde historikoei edo horietakoren bati eskumenak edo zerbitzuak eskualdatzen zaizkienean, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onetsi ondoren erabaki bada transferentzia hori eraginkor bihurtzen den urtean, eskumenak edo zerbitzuak jasotzen dituen foru-aldundi bakoitzak ekitaldi horretan egin beharreko ekarpenen murrizpena finkatuko du, Aurrekontu Orokorretan lurralde bakoitzari izendatu zaizkion eta eskualdaketa

del ejercicio. El acuerdo se comunicará al Parlamento Vasco para su conocimiento, pudiendo elaborarse los presupuestos del Gobierno Vasco y de las diputaciones forales sobre la base de las aportaciones que resulten de la aplicación de dicha ley.

10.- La prórroga de los Presupuestos Generales del País Vasco determinará, a su vez, la prórroga de las aportaciones que las diputaciones forales venían obligadas a efectuar en el último ejercicio en sus mismas cuantías y vencimientos, sin perjuicio de que, una vez aprobados los nuevos presupuestos, entren en vigor las aportaciones en los mismos contenidos, practicándose en su caso las oportunas liquidaciones por diferencias.

11.- Si, con posterioridad a la determinación de las aportaciones de los territorios históricos, la Comunidad Autónoma asumiese del Estado nuevas competencias y/o servicios a cuyo sostenimiento viniesen contribuyendo aquéllos con su respectivo cupo, según lo dispuesto en el artículo 41.2.d) del Estatuto de Autonomía, las aportaciones en dicho año de las diputaciones forales a la Hacienda General del País Vasco quedarán incrementadas en la misma cuantía en que se reduzca su cupo contributivo al Estado. El mismo criterio se aplicará en caso de que la modificación en el ejercicio de las competencias fuese en sentido inverso.

12.- Toda transferencia de competencias y/o servicios que, de acuerdo con lo previsto en esta ley, se efectúe desde la Comunidad Autónoma a los territorios históricos o alguno de éstos, acordada con posterioridad a la aprobación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del año en que tenga lugar la efectividad de esa transferencia, determinará la reducción en este ejercicio de las aportaciones de cada diputación foral receptora de las competencias y/o servicios, en el mismo importe a que





eraginkor bihurtzen den datan erabiltzeko dauden kredituen zenbateko berean, aurrekontuetan sartu baina data horretan jaso ez diren gainerako tasa eta diru-sarrerak murriztuz, eskualdatutako eskumena edo zerbitzua gauzatzetik ondorioztatzen denaren arabera.

13.- Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatu diren zerbitzu edo eskumenak eskualdatu izanaren ondorioz foru-aldundien ekarpenetan gertatzen den gehikuntza edo murrizpena proportzionalki banatuko da lege honen 24. artikuluan adierazitako epeetan, eskualdaketa horiek egin diren unean oraindik gauzatzeko zeuden ekarpenak ordaindu daitezzen.

24. Artikulua.- Lurralde historikoen ekarpenen eraginkortasuna

- Asimismo se recogerá expresamente en el futuro Estatuto el compromiso de la sociedad vasca de que las instituciones destinen anualmente un





dezatela elkartasunera eta nazioarteko lankidetzara, hegoaldeko herri pobretuentzat.

- Gure eskumen-esparruan, Euskadiko instituzioek kanpo-ekintza diseinatuko dute euskal kultura eta euskara sustatzeko, helmuga turistiko gisa eta inbertsio jasangarrikoa, giza eskubideak defendatzen dituen eta erbestea, aterpea eta herri haurrideen elkartasuna ezagutu zituen herri memoriadun gisa, egun bultzatzen ari den Europa Gotorlekuaren proiektuaren aurkakoa. Horrela, kanpo harremanez arduratuko diren Euskadiko instituzioen organoek diasporaren kontzeptua berraztertuko eta eguneratuko dute, arrazoi ekonomikoak direla-medio azken urteetan erbestera jo duten Euskadiko milaka herritarrak kontuan izanda. Horregatik, laguntza eta asistentzia eskainiko dizkiete horien eskubideak babesteko eta itzultzeko eskubidea bermatzeko.

3.2 Europar Batasunarekiko harremanak

EBk etengabe eragiten digu, egunez egun, Euskadiko herritar eta instituzioei. Burujabetzakidetasuna, gehiengoaren aukera izateaz gain Euskadiko gizartean Estatuko gainerakoarekin dugun harremanari buruz, dagoeneko errealitatea da europar esparruan.

Hala ere, printzipio ona dena, lankidetzan aritzea helburu partekatua dituzten ezberdinen artean, behin baino gehiagotan aitzakia bikaina da disfuncio demokratikoetarako, kapital handiaren interesak ezartzeko eta ageriko balio-talka baterako gobernu batzuekin, giza eskubideen arloan, gutxiengoak errespetatzean edo

0,7 % de su PIB a la solidaridad y cooperación internacional con los pueblos empobrecidos del Sur.

- En nuestro ámbito competencial las instituciones vascas dibujarán una acción exterior para la promoción de la cultura vasca y el euskera, como destino turístico y de inversión económica sostenibles, como sociedad que defiende los DDHH y como pueblo con memoria que conoció el exilio, el refugio y la solidaridad de pueblos hermanos en oposición al proyecto de Europa Fortaleza que se está impulsando actualmente. Así, los órganos encargados de la acción exterior de las instituciones vascas reformularán y actualizarán el concepto de diáspora tomando en cuenta a los miles de vascos y vascas exiliados por motivos económicos. Por ello, prestarán ayuda y asistencia para proteger sus derechos y garantizar su derecho al retorno.

3.2. Relaciones con la Unión Europea

La UE nos influye continuamente, en nuestro día a día, tanto a la ciudadanía vasca como a nuestras instituciones. La cosoberanía es no solo una opción mayoritaria en la sociedad vasca para abordar nuestra relación con el resto del Estado, es ya una realidad en el ámbito europeo.

Sin embargo, lo que es un buen principio, la cooperación entre diferentes con objetivos compartidos, en no pocas ocasiones está siendo la excusa perfecta para disfunciones democráticas, la imposición de los intereses del gran capital o un evidente choque de valores con algunos gobiernos en materia de derechos humanos, respeto de





emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean.

Agerikoak dira Europa eraikitzekeo proiektua jasaten ari den zailtasunak, ez soilik brexit-agatik, Europar Batasunaren hondoratzegatik edo Mediterraneoan errefuxiatuak hartzeko politiken hitzez hitzeko hondoratzegatik. Batez ere, arrazoia da Europako instituzioek hartu duten bidea: ekonomikoa eta merkatua lehenestea beste edozein gogoetaren gainetik.

Elkarrekin Podemosen bokazio europazale argia eta zabala dauka, estatuen eta herrien arteko lankidetzaren aldekoa, zalantzarik gabe, harreman baketsu, oparo eta solidarioak finkatzeko. Horrexegatik, Europa eraikitzekeo beste eredu baten alde egiten dugu, zutabetzat hartuko duena, ekonomiaz gain, giza eskubideak horien zabalera osoan, eta kalitate altuko demokrazietan sakontzea, bai proiektuan parte hartzen dugun gizarteetan, bai instituzio europarretan.

Horrela, Europa eraikitzekeo egungo eredu neoliberalaren aurrean, zeina, krisiaren aitzakiarekin, kezagarria izateraino indartu baita azken hamarkadetan, guk proposatzen dugu estatutu berrian sartzea kapitulu bat, Euskadiko instituzioek Europako instituzioekin izan beharreko harremanetan gauzatuko ditugun eskumenei buruz, eta eskumen horiek gauzatzeko norabide argia.

lido horretan, honako hauen alde gaude:

A. Eskumen zerrenda luzea

minorías o igualdad entre mujeres y hombres.

Es evidente que el proyecto de construcción europea atraviesa dificultades, y no solo por el *brexit*, el naufragio de la Unión Europea o el literal naufragio de las políticas de acogida a personas refugiadas en el Mediterráneo. Lo hace en buena medida por el propio camino que las instituciones europeas han adoptado: priorizar lo económico y el mercado sobre cualquier otra consideración.

Elkarrekin Podemos tenemos una vocación clara y abiertamente europeísta, expresamente favorable a la cooperación entre estados y pueblos europeos para asentar relaciones pacíficas, prósperas y solidarias. Por eso mismo, abogamos por otro modelo de construcción europea que tome como pilar no solo la economía, sino también los derechos humanos en toda su extensión y la profundización en democracias de alta calidad tanto en las propias sociedades que participamos del proyecto como de las propias instituciones europeas.

Así, frente al actual modelo neoliberal de construcción europea que se ha reforzado hasta límites preocupantes en la última década con la excusa de la crisis, proponemos que en el nuevo Estatuto se incluya no solo un capítulo de qué competencias vamos a ejercer las instituciones vascas en nuestras relaciones con las europeas, sino una clara orientación de cómo se van a ejercer las mismas.

En este sentido abogamos por:

A. Reconocer un amplio elenco de





aitortzea Euskadiko instituzioei arlo horretan, beste erkidego batzuetako estatutuek egiten duten moduan. Horrela, erreferentzia nagusiak hauek izan litezke: garapen zabalagatik, Kataluniako Estatutua (184-192 artikulua), eta, hurbiltasunagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeak xedatutakoa (68. artikulua).

Horrela, Gobernu zentralarekiko lankidetzeta eta elkarlaneko esparru batean, estatutu berrian jaso beharko liriteke, besteak beste: ordezkari zuzena, informatua izatea, modu erabakigarrian parte hartzea Estatu gisa jarrerak finkatzeko Euskadiri eragiten dizkieten gaitan, Estatuko ordezkarietan parte hartzea, aitortza izatea Europako zuzenbidearen aplikazio, exekuzio eta garapenean, harremanak izatea Europako Legebiltzararekin, sarbidea izatea Europako justizia-organoetara, ordezkari iraunkorrak izatea edo Europako funtsak kudeatzea.

Hori eta gehiago oinarri hartuta, uste dugu tarte zabala dagoela, egungo lege-esparrua gainditu gabe, bermatzeko Euskadiko instituzioen parte-hartzea eta ahotsa izatea Euskadiko herritarrei eragiten dieten eta Europako esparruan erabakitzen diren gaitan.

B. Halaber, estatutu berriak bermatu behar du bere

competencias en esta materia a favor de las instituciones vascas como, de hecho, ya hacen la mayor parte de estatutos de otras comunidades. En este sentido, las principales referencias podrían ser, por la amplitud de su desarrollo, el Estatut de Catalunya (artículos 184 a 192), y por su cercanía lo dispuesto en la Ley de Reintegración y Amejoramiento del Fuero de Navarra (artículo 68).

Así, en un marco de cooperación y colaboración con el Gobierno central, aspectos como la representación directa, ser informados, participar de forma determinante en la formación de las posiciones que se lleven como Estado y que afecten a Euskadi, participar en las delegaciones del Estado, ser reconocidos en la aplicación, ejecución y desarrollo del derecho comunitario, tener relaciones con el Parlamento Europeo, acceder a los órganos de justicia europeos, tener delegaciones permanentes o gestionar fondos europeos, entre otros, deben quedar recogidos y reconocidos en el nuevo Estatuto.

Sobre esa base y más creemos que hay un amplio margen, sin desbordar el actual marco legal, para asegurar que las instituciones vascas participen y tengan voz en las cuestiones que afecten a la ciudadanía vasca y que se decidan en el ámbito europeo.

B. Asimismo, el nuevo Estatuto debe garantizar en su propio





artikuluetan eskumen horiek helburu zehatz batekin gauzatuko direla: Euskadiko herritarren ondasun komuna gordetzea, modu gardenean, interes orokorra lehenetsita, lobby partikularren ekintzaren orde, efikaziaz kudeatuz helburu horretara bideratuko diren baliabide ekonomikoak, eta herritarren eta gizarte-eragileen parte-hartzea ahalbidetuz gai horretan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen dugu printzipio horiek guztiak artikulubatean jasotzea, eta aurreikustea Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko dituela alderdi horiek guztiak.

- C. Era berean, euskal euroeskualde bat sortzeko aukera ikusten dugunez –edo Europar Batasunaren Tratatuaren bilakaerak ahalbidetuko dituen beste egitura instituzional batzuk–, eta mugaz gaindiko akordioak eta politikak ezartzeko aukera, politika komunak jorratzeko eta finantzatzeko eta gizarte-ekimenen alde egiteko ekonomian, kulturen eta ingurumenen, uste dugu estatutuaren testu berriak aukera horiek ere propio aitortu eta jaso beharko dituela.

4. Azken xedapenak

Azken xedapenei dagokienez, proposatzen dugu eskubide historikoei buruzko egungo xedapen gehigarria mantentzea eta iragankor bat sartzea, gure estatutu-proposamenean aurreikusten

articulado que el ejercicio de estas competencias se hace con una finalidad concreta como es preservar el bien común de la ciudadanía vasca, de forma transparente, primando el interés general y no la acción de *lobbies* particulares, gestionando con eficacia los recursos económicos que se destinen a este fin y permitiendo la participación de la ciudadanía y de los agentes sociales en esta materia.

Por todo ello, consideramos preciso que haya un artículo que recoja todos estos principios, así como que se prevea que el Parlamento Vasco aprobará una ley que regule todos estos aspectos.

- C. Asimismo, en la medida en que contemplamos la posibilidad de crear una eurorregión vasca u otras estructuras institucionales que la evolución del Tratado de la Unión Europea posibiliten, así como de establecer acuerdos y políticas transfronterizas para abordar y financiar en su caso políticas comunes y favorecer iniciativas sociales en los ámbitos económico, cultural o medioambiental, consideramos que estas posibilidades también deben quedar expresamente reconocidas y recogidas en el nuevo texto estatutario.

4. Disposiciones finales

En relación con las disposiciones finales proponemos tanto el mantenimiento de la actual disposición adicional referente a los derechos históricos como la inclusión de una





ditugun eskumen berrian eskualdatzea gardena eta bizkorra izan dadin.

Eskubide historikoei dagokienez, gure jarrera argia da. Uste dugu gure autogobernuaren eta egitura instituzionalaren funtsa ez datzala eskubide historikoetan, baizik eta euskal herritarrek bere burua gobernatzeko eskubidea gauzatzeko orduan erakutsi duten borondatean eta gaitasunean. Hala eta guztiz ere, uste dugu horiek sartzea –ez gara kontra egongo– befiere egungo lege-esparruan eginez gero, positiboa izan daitekeela eta beste faktore bat izan daitekeela akordio anitzak eta zeharkakoak bultzatzeko, horrelakoak nahi baititugu.

Beste alde batetik, honelako xedapen iragankorra sartzea proposatzen dugu:

Estatutuan Euskadiko instituzioei esleitzen zaizkien eta oraindik ez dauzkaten eskumenak sei hileko epean eskualdatuko dira. Salbuespen moduan epea luzatu ahal izango da, bi aldeek hala adostuta, Eta lankidetzako organo politiko berrian negoziatuko dira, zeina iraunkorra izango baita eta modu paritarioan osatu baitute Gobernu zentralako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak.

Euskadiko instituzioen negoziazio-oinarria Eusko Legebiltzarraren akordio batetik abiatuko da, zeinak lehenetsunak eta gai teknikoak finkatuko baititu. Negoziazioen eta horren ondoriozko akordioen berri emango diote lankidetzako organo politikoan ordezkaturik dauden bi gobernuak, aldizka, Eusko Legebiltzarrari.

transitoria que haga transparente y ágil el traspaso de las nuevas competencias que prevemos en nuestra propuesta estatutaria.

En relación con los derechos históricos, nuestra posición es clara. Entendemos que el fundamento de nuestro autogobierno y de la articulación institucional no son los derechos históricos, sino la voluntad y capacidad demostradas por la ciudadanía vasca de ejercer el derecho a gobernarse a sí misma. No obstante, sí consideramos que su inclusión, a la que no nos oponemos siempre y cuando se haga dentro del actual marco legal, puede ser positiva y un factor más para facilitar los acuerdos plurales y transversales a los que aspiramos.

Por otro lado, proponemos la inclusión de una disposición transitoria del siguiente tenor:

Las competencias que en el Estatuto se asignan a las instituciones vascas y que aún no ejercen se transferirán en un plazo máximo de 6 meses, prorrogable de forma excepcional por acuerdo de ambas partes, y se negociarán en el seno del nuevo órgano político de cooperación que tendrá carácter permanente y estará integrado de forma paritaria por representantes del Gobierno central y del Gobierno Vasco.

Para la elaboración de una base de negociación de las instituciones vascas se partirá del correspondiente acuerdo del Parlamento Vasco que fijará las prioridades así como las cuestiones técnicas precisas a tal efecto. Sobre el devenir de las negociaciones y de los correspondientes acuerdos, los dos gobiernos representados en el órgano político de cooperación rendirán cuentas de forma regular ante el Parlamento Vasco.





EP TALDEAK GALDEKETA GAITZAILEARI AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA

1. Aurretiazko gogoeta. Erantzukizunez jokatzeko eta bizikidetzaz zaintzeko deia
2. Autogobernua, itun bikoitz: barnekoa –euskal herritarren artekoa– eta Estatuaren gainerakoarekin egiten dena.
3. Herritarren ezinbesteko parte-hartzea: herritarrek itun plural bat balidatzea eta erreferenduma egitea.
4. Herritarren balidazioa vs. kontsulta gaitzailea: batzea vs. zatitzea.
 - 4.1. Norentzat. Guk, denon onurarako.
 - 4.2. Zertarako. Guk, itun plurala aztertzeko.
 - 4.3. Nola. Guk, modu legal eta adostuan.

1. Aurretiazko gogoeta. Erantzukizunez jokatzeko eta bizikidetzaz zaintzeko deia

Autogobernua ez da soilik nola kudeatuko ditugun ekonomia, hezkuntza eta osasuna. Geure burua nola gobernatuko dugun ere bada. Alegia, nola biziko garen elkarrekin, nolako bizikidetzaz arauak sortuko ditugun geuretzat. Zentzu horretan, argi dago ez garela ari lege arrunt bat eztabaidatzen, baizik eta gure gizartearen funtsezko araua.


VOTO PARTICULAR DE EP A LA CONSULTA HABILITANTE

1. Consideración previa. Una llamada a la responsabilidad y a cuidar nuestra convivencia
2. El autogobierno como un doble pacto: interno entre la ciudadanía vasca, y de esta con el resto del Estado
3. La necesaria participación ciudadana: validación ciudadana de un pacto plural y referéndum
4. Validación ciudadana frente a consulta habilitante: unir frente a dividir
 - 4.1. El para quién. Nosotras, para el bien común
 - 4.2. El para qué. Nosotras, para examinar el pacto plural
 - 4.3. El cómo. Nosotras, de forma legal y pactada

1. Consideración previa. Una llamada a la responsabilidad y a cuidar nuestra convivencia

El autogobierno no es solo cómo vamos a gestionar nuestra economía, nuestra educación o salud. Es también cómo vamos a gobernar a nosotros y nosotras mismas, es decir, cómo vamos a convivir, **cuáles van a ser las normas de convivencia de las que vamos a dotarnos.** En este sentido, es un hecho que no estamos debatiendo una ley más, sino que estamos ante la norma fundamental de nuestra sociedad.





Horrexegatik, eta ez delako kasualitatea 15 urtean Estatutua berritzeko bost saiakera egin izana (huts egin dutenak), eztabaida honi ekiteko orduan beharrezkoa da indar politiko guztiei erantzukizunez jokatzeko dei irmo, lasai eta argia egitea. Gehiegi baitago jokoan. **Onartezina litzateke berriro porrot egitea, horrek etsipen handia sortuko bailuke.**

Euskadin berreskuratu berri dugun bizikidetzak bi gauza behar ditu: alderdien maximalismoen edo norgehiagoken erruz arriskutan ez jartzea, eta bizikidetzak finkatzeko aukera alferrik ez galtzea. Horretarako, adostasun zabal eta transbertsala jasotzen duen itun historikoa egin beharra dago.

Euskal gizarte plurala da. Berez da plurala; euskalduntasunaren ezaugarria da hori. Gizarte honek ez dio plurala izateari utzi nahi; aitzitik, pluraltasun hori berresten du aukera daukan bakoitzean. Gure gizarteak, azterketa zientifiko guztietan (UPV/EHUk, Eusko Jaurlaritzak, CISek, Eusko Ikaskuntzak, Deustuko Unibertsitateak edo bestek eginak), beti erakusten du argazki berdintsua: ideologia ezberdinetako jendea gara, euskaldun sentitzeko modu ezberdinekin, elkarrekin bizi nahi dutenak, elkar onartzen dutenak eta, naturaltasun osoz, besteen identitate-sentimenduak zilegiztat jotzen dituztenak.


Honelako gizarte batek erantzukizunez jokatzeko eskatzen digu haren pluraltasuna kudeatzeko orduan; ez da alferrik tenkatu behar. Ez da sortu behar kalean existitzen ez den blokeen inguruko dinamizarik. Ezin da debaterik behartu, gure komunitateko kide nor den eta nor ez den eztabaidatzeko. Horretatik asko EAJk eta Bilduk –bakarrik– onetsi dutenaren filosofian aurki dezakegu. Horretatik asko dago **EAJk eta Bilduk**

Por este motivo, y **porque no es casual que en 15 años haya habido cinco intentos frustrados de renovar el Estatuto, el abordaje de este debate requiere una firme, serena y clara llamada a la responsabilidad de todas las fuerzas políticas,** porque es demasiado lo que está en juego. **No sería admisible un nuevo fracaso con la frustración que ello conllevaría.**

La recientemente recobrada convivencia en Euskadi exige dos cosas: no ponerla en riesgo en un juego de maximalismos o de disputas entre partidos, y también no dejar pasar la oportunidad de asentar esa convivencia alcanzando un pacto histórico por el amplio y transversal grado de acuerdo que concite.

La sociedad vasca es plural, plural en esencia, como rasgo propio de su vasquidad. Es una sociedad que, lejos de querer dejar de ser plural, se reafirma en ella en cada ocasión que tiene de expresarse. Una sociedad que según todos los estudios científicos, ya estén elaborados por la UPV/EHU, Gobierno Vasco, CIS, Eusko Ikaskuntza, Universidad de Deusto..., siempre ofrece la misma foto de sí misma: gentes con diferentes ideologías y con diferentes formas de sentirse vasco o vasca que tienen voluntad de convivir, que se reconocen entre sí y que con naturalidad consideran igual de legítimos esos diversos sentimientos identitarios.

Una sociedad como la nuestra requiere actuar con responsabilidad a la hora de gestionar su pluralidad, requiere no tensarla innecesariamente. Requiere no construir dinámicas de bloques que no se dan en la calle. Exige no forzar debates en los que el objeto de discusión sea la propia pertenencia a nuestra comunidad. Mucho de esto está presente en la filosofía de lo aprobado por PNV y Bildu en solitario. Mucho de esto hay





proposatzen duten kontsultan, herritarren iritzia jakiteko edo akordio politikoak berresteko egin beharrean, beste erakunde batzuekiko legitimitate-talka justifikatzeko egin nahi dutena. Elkarrekin Podemosen ustez, horixe da kontsulta gaitzailea egiteko proposamenaren atzean dagoena.

Eta planteamendu honen aurrean, erantzuna ez da, eta ezin daiteke izan, euskal herritarrei hitza ukatzea. Hitz egiten ez uztea. Aitzitik, hitza eman behar diegu, baina ez estrategia partzialetan erabiltzeko, baizik eta ziurtatzeko gure bizikidetzaren funtsezko araua akordio zabal, plural eta transbertsal baten fruitu dela, gure gizartea bera den moduan.

Ilido horretan, EAJ eta Bilduren kontsulta gaitzailearen aurrean, **Elkarrekin Podemos**ek herritarren balidaziorako prozesua proposatzen du. Hau da, alderdien artean lortzen ditugun akordioak herritarrei aurkeztea. Euskal herritarrek esan dezatela akordio horiek behar bezain pluralak diren edo ez. Balidazio honek akordio zabal eta transbertsalak behar ditu; euskal herritarrak estrategia partzialetan edo konfrontazioetan erabiliak izatea galaraziko du, eta akordio plurala eta bizikidetzatza bultzatuko ditu.

Horrexegatik, **Elkarrekin Podemos**en proposamen argia egiten **dugu**: Eusko Legebiltzarrak Estatutu berriari buruz lortzen duen akordioa balidatzeko aukera eskaini nahi diegu euskal herritarrei, Gorte Nagusietara bidali baino lehen. Proposamen argia da, **bai deialdiak bete behar dituen baldintzetan, bai legearen barruan eta Estatuarekin adostuta egingo delako, bai politikoki eraginkorra izateko (nahiz eta juridikoki loteslea ez izan) bete beharreko**

cuando PNV y Bildu plantean una consulta no para conocer la opinión de la ciudadanía o para la necesaria ratificación de los acuerdos políticos, sino para justificar un choque de legitimidades con otras instituciones. A juicio de Elkarrekin Podemos esto es lo que hay detrás de la propuesta de la actual consulta habilitante.

Y frente a este planteamiento la respuesta no es, ni puede ser, negar la palabra a la ciudadanía vasca. Negarse a que esta se exprese. Al contrario, **debemos dársela**, pero no para utilizarla en estrategias de parte, sino **para asegurar que nuestra norma fundamental de convivencia es fruto de un acuerdo amplio, plural y transversal como lo es nuestra propia sociedad.**

En este sentido, frente a la consulta habilitante de PNV y Bildu, en **Elkarrekin Podemos** proponemos un proceso de validación ciudadana, es decir, someter al exámen de la ciudadanía los acuerdos que tomemos entre los partidos. **Que sea la ciudadanía vasca la que indique si esos acuerdos son suficientemente plurales.** Se trata de una validación que exige acuerdos amplios y transversales, que salvaguarda a la ciudadanía vasca de ser utilizada en estrategias de parte o de confrontación, y que impulsa el acuerdo plural y la convivencia.

Por todo ello, en **Elkarrekin Podemos** hacemos una propuesta clara para que la ciudadanía vasca tenga la posibilidad de ser llamada a validar el acuerdo que salga del Parlamento Vasco sobre el nuevo Estatuto antes de remitirse a las Cortes Generales. Clara **tanto sobre las condiciones que debe reunir su convocatoria como sobre su carácter legal y pactado con el Estado, como sobre los requisitos para ser eficaz políticamente que no vinculante**





baldintzetan.

Baldintza horiei esker, deialdia egitean ez da haustura sozialik gertatuko eta herritarren artean ez da, proposamen bideraezinak egitearen ondorioz, etsipenik sortuko. Baldintza hauek, euskal gizartean, ezberdinen arteko ituna eskatzen dute; itun transbertsal eta zabala. Baldintza hauekin, euskal herritarrek eurek bermatuko dute gizartearen pluraltasuna ez dela inola ere arriskutan jarriko, ez dela inoiz bilatuko erdia gehi bateko gehiengorik, jokoan dagoena bizikidetza edo herri-proiektu konpartitu bat edukitzea baldin bada.

2. Autogobernua, itun bikoitz: barnekoa –euskal herritarren artekoa– eta Estatuaren gainerakoarekin egiten dena.

Gure autogobernua euskal herritarren eskubidea da, herritar guztiena, eta ez soilik batzuen (nazionalistena). Erkidego honetako kide guztiok geure burua gobernatzeko daukagun eskubidea da. Hori egiteko gaitasun kolektiboa dugula erakutsiz lortu genuen eskubide hori.

Eta geure burua gobernatzeko eskubidea gauzatzea itun bati zor zaio. Itun bikoitza: barrukoa eta kanpokoa. Barrukoa, geure erkidegoko kideen artean, herritar guztiok ez baitugu ideia bera, ez hori ulertzeko modu bera. Eta kanpokoa, gurekin bizi diren Estatuko gainerako herri, nazio, nazionalitate eta herritarrekin, autogobernua burujabetza partekatuen esparruan gauzatzen baitugu.

Itun honek barneko eta kanpoko eztabaida-prozesu sakon eta zintzo

jurídicamente.


Unas condiciones que eliminan la posibilidad de que con su convocatoria se genere una fractura social o se frustre a la ciudadanía validando propuestas inviables. Unas condiciones que en una sociedad como la vasca necesariamente implican un pacto entre diferentes, un pacto transversal y muy amplio. Unas condiciones que hacen de la ciudadanía vasca la máxima garante de que su propia pluralidad nunca va a ponerse en riesgo, de que nunca se van a buscar mayorías de la mitad más uno cuando lo que está en juego es la convivencia o el tener un proyecto de país compartido.


2. El autogobierno como un doble pacto: interno entre la ciudadanía vasca, y de esta con el resto del Estado

Nuestro autogobierno es un derecho de la ciudadanía vasca, de toda ella, no solo de una parte, la nacionalista. Es el derecho que tenemos todos y todas los miembros de esta comunidad a gobernarnos a nosotros y nosotras mismas. Un derecho logrado tras demostrar nuestra capacidad colectiva para hacerlo.

Y el ejercicio de ese derecho a gobernarnos responde a un pacto. Un doble pacto: interno y externo. Interno, entre las propias personas que formamos parte de nuestra comunidad, porque no toda la ciudadanía tenemos la misma idea ni forma de entenderlo. Externo, con el resto de pueblos, naciones, nacionalidades y ciudadanía del Estado con los que convivimos, porque el autogobierno lo ejercemos en un marco de soberanías compartidas.

Un pacto que exige de un profundo y sincero proceso de





baten beharra dauka. Eztabaida hau ez dator bat maximalismoarekin ez aldebakartasunarekin, ezta ere, inondik inora ere, erantzuna beti **EZETZA** izatearekin, hau da, herritarrei iritzia emateko aukera ukatzearekin. **Eztabaida honek pragmatismoa eta adostasunguneak exijitzen ditu, nahitaez.**

3. Herritarren ezinbesteko parte-hartzea: herritarrek itun plural bat balidatzea eta erreferenduma egitea.

XXI. mendean ez dago herritarren parte-hartze aktiborik gabe egin daitekeen jarduera politiko edo instituzionalik. Are gehiago, bizikidetzara- arauak berriztatu nahi direnean. Eta parte-hartze hori iraunkorra izan behar da prozesu osoan zehar, ez bakarrik amaieran, prozesua amaitzeko berrespen bat balitz bezala. **Zentzu horretan, autogobernua itun bikoitza dela esaten badugu, herritarrek gutxienez bi dimentsioak balidatzeko eta berresteko aukera izan behar dute.**

Horregatik, **Elkarrekin Podemosen proposamenak euskal herritarren parte-hartzean bi une aurreikusten ditu, ezaugarri eta ondorio ezberdinekin, erabakien xedearekin eta unearekin bat datozenak:**

- 1 Barne-ituna berresteko erreferenduma,** prozesuaren amaieran. **Hau da, 1979. urtean Gernikako Estatutua behin betiko onesteko erabili zen prozedura bera.** Erreferendum horrek izaera loteslea izango luke, eta Gorte Nagusietatik irteten den testuari buruzkoa izango litzateke.
- 2. Barne-itunaren balidazioa.** Hau berria litzateke. Autogobernu-itunaren lehenengo fasearen balidazioa da,

deliberación interna y externa. Una deliberación que no concuerda ni con el maximalismo ni con la unilateralidad, y tampoco, de ningún modo, con el NO como respuesta, con negarse a que la ciudadanía pueda expresar su opinión. **La deliberación exige necesariamente un ejercicio de pragmatismo y de búsqueda de puntos de acuerdo.**

3. La necesaria participación ciudadana: validación ciudadana de un pacto plural y referéndum

No hay en el siglo XXI actuación política o institucional que pueda llevarse a cabo sin la participación activa de la ciudadanía. Menos aún cuando de lo que se trata es de renovar las normas de convivencia. Y esa participación tiene que ser constante a lo largo de todo el proceso, no solo al final del mismo, como una simple confirmación final. En este sentido, si hablamos del autogobierno como un pacto doble, la ciudadanía al menos tiene que tener la posibilidad de validar y ratificar ambas dimensiones.

Por este motivo, **la propuesta de Elkarrekin Podemos prevé dos momentos de participación de la ciudadanía vasca** con características y consecuencias diferentes acordes al propio objeto y momento de decisión:

- 1. Referéndum de ratificación** del pacto externo al final del proceso. **Es decir, el mismo procedimiento que ya se utilizó en 1979** para la aprobación definitiva del Estatuto de Gernika. Este referéndum sí tendría carácter vinculante y se convoca sobre el texto que salga de las Cortes Generales.
- 2. Validación del pacto interno.** Esta sería la parte novedosa. Se trata de la validación de la primera fase del





hau da, **Gorte Nagusietara bidali aurretik egiten dena, izaera loteslerik gabe.** Balidazio bat da; hots, Eusko Legebiltzarrak adostu duenari balioa, indarra eta irmotasuna ematen dizkion zerbait. **Alderdi politikoek euskal herritarren izenean erabaki dutena aztertuko dute herritarrek hemen.** Gainera, euskal gizartearen ezaugarrien araberako baldintzetan egingo dute.

Gurea bezain plurala den gizarte batek, bere bizikidetzara-arauek aztertzen dituenen, adostutako prozedurak eta gehiengo indartuak behar ditu. Horregatik, ondokoa planteatzen dugu:

- . Balidazio hori Gobernu Zentralari eskatuko dio Eusko Legebiltzarraren bi hereneko gehiengoak.
- . Politikoki eraginkorra izan dadin, parte-hartzea azken bost hauteskunde autonomikoen batez besteko parte-hartzearen berdina edo handiagoa izan behar da, hau da, eroldaren % 60aren inguruan egon behar da.
- . Eta aldeko gehiengo kualifikatua egon behar da.

Azaldu dugunez, gure proposamenaren zentzua argia da, alegia, herritarrei entzutea, eta balidazioaren baldintzak ere bai: **bizikidetzara ez dadila tenkatu erdia gehi bateko gehiengoekin.** Formula honek eragotzi egiten du juridikoki bideraezinak diren edo transbertsalak ez diren proposamenak balidatzeko aurkeztea, baita Gorteetan

pacto de autogobierno, es decir, **con carácter previo a su envío a las Cortes Generales y sin carácter vinculante.** Se trata de una validación, esto es, que hace válido, le da fuerza y firmeza (según la propia definición de la RAE) a lo que se ha acordado en el Parlamento Vasco. **El exámen de la ciudadanía vasca de lo que se acuerde por los partidos en su nombre.** Lo hace además con unas condiciones de acuerdo a las propias características de la sociedad vasca.

Cuando una sociedad tan plural como la nuestra aborda sus normas de convivencia requiere tanto de procedimientos consensuados como de mayorías reforzadas. Por este motivo, planteamos:

- . Que esta validación sea solicitada al Gobierno central por una mayoría de 2/3 del Parlamento Vasco.
- . Que para ser eficaz políticamente la participación debe ser igual o superior a la media de las últimas cinco elecciones autonómicas, es decir, estar en torno al 60 % del censo.
- . Y darse una mayoría cualificada favorable.

Como ya se ha explicado, el sentido de nuestra propuesta es claro –que la ciudadanía sea escuchada–, al igual que el de las condiciones para la validación: **evitar que la convivencia sea tensionada con mayorías de la mitad más uno.** Esta fórmula disuade tanto de someter a validación propuestas inviables jurídicamente o que no sean





izapidetzen denean **Estatutu-proposamena eraldatzeko saioak egitea ere**. Indar politiko guztiak ados egon beharko lirateke honetan.

4. Herritarren konbalidazioa vs. kontsulta gaitzailea: batzea vs. zatitzea

Oso antzekoak iruditu arren, Elkarrekin Podemosen herritarren konbalidaziorako proposamena eta EAJren eta Bilduren kontsulta gaitzailea herritarren kontsulta ulertzeko oso modu ezberdinak dira. **Haien arteko ezberdintasuna ez datza kontsulta egitean, baizik eta kontsultaren helburuan eta zentzuan**. Gure proposamenean, euskal herritarrak kontsultaren hartzaile dira, eta ez hirugarrenen abal edo gaitzaile; kontsultari erantzunez, herritarrek balidatzen dute akordioa inklusiboa dela, gizartearen pluraltasunaren neurrikoa; kontsulta ez da beste batzuen legitimitateen arteko talka baterako aitzakia; herritarrak aztertzaileak dira, ez aztergaia; modu legal eta adostuan egiten dute, eta ez gizarte-hausturaren klabean. **Kontsulta ulertzeko bi modu bereizten dira, hortaz: batzea vs. zatitzea**.

4.1. Norentzat. Guk, euskal herritarrentzat

Herritarren parte-hartzearen ikuspegitik, uste dugu nekez onar daitekeela herritarrei dei egitea hirugarren bat (ez dago oso argi nor) gaitzeko edo abalatzeko, hirugarren horrek gizarte oso baten izenean, baldintza ezezagunetan, negoziatzen dezan.

Proposamen horren aurrean, guk alternatiba argi, erraz eta sendoa eskaintzen dugu: **herritarrek euren izenean eta euren eskubideen alde jardun dezatela, euskal alderdien akordioa aztertuz eta balidatuz (edo**

transversales, como de tratar de desnaturalizar la propuesta de Estatuto en su tramitación en las Cortes. En este sentido, debería ser un punto de encuentro para todas las fuerzas políticas.


4. Convalidación ciudadana frente a consulta habilitante: unir frente a dividir

A pesar de que puedan resultar parecidas, **la propuesta de convalidación ciudadana de Elkarrekin Podemos y la consulta habilitante de PNV y Bildu son dos formas muy diferentes de entender una consulta a la ciudadanía**. Su diferencia no está tanto en el hecho de consultar sino en la finalidad y el sentido de esa consulta. En nuestra propuesta la ciudadanía vasca es ella misma la destinataria de la consulta, no el aval o la habilitación de terceros; lo hace para validar que efectivamente es un acuerdo inclusivo a la medida de su pluralidad, no es la excusa para un choque de legitimidades de otros; es la examinadora, no la examinada; y lo hace de forma legal y pactada, no en una clave de **Se dirimen dos formas de entender la consulta: unir frente a dividir**. fractura social.

4.1. El para quién. Nosotras, para la ciudadanía vasca

Desde el punto de vista de la participación ciudadana, creemos que es difícilmente admisible que se convoque a esta para habilitar o avalar a un tercero, que no está muy claro quién es, a negociar en nombre de toda una sociedad en unos términos tampoco claros.

Frente a esta propuesta, **ofrecemos una alternativa clara, sencilla y potente: que la ciudadanía actúe en su propio nombre y derecho, validando o no, examinando el acuerdo de los**





ez balidatuz), eta hori egitean erabaki dezatela akordioa gizarte plural baten elkarbizitzarako bezain arduratsua den ala ez.

4.2. Zertarako. Guk, itun plurala bermatzeko.

Izenak berak, "kontsulta gaitzailea", helburua adierazten du: "Norbaiti negoziatu ahal izateko kapitala ematea". Hau da, herritarrei hirugarren baten estrategia abalatzera dei egiten zaie; kasu honetan, alderdi politikoen (edo, kasurik txarreanean, erakundeen) legitimitateen arteko talkan datza estrategia.

Ikuspegi horren ordez, guk proposatzen dugu euskal herritarrek euren ordezkari diren alderdien arteko akordioa balida dezatela, hau da, akordioa irmo bihur dezatela eta balioa eman diezaiotela. Eta hori egitea, ez geure artean edo beste erakunde batzuekin gatazka sortzeko xedez, baizik eta egiaztatzeko alderdiek adostutakoak Gorte Nagusietara bidaltzeko moduko babes soziala duen ala ez.

4.3. Nola. Guk, modu legal eta adostuan

Kontsulta-prozesu batean, izaera demokratikoa herritarrei dei egiteak ematen du, baina deialdi horretan herritar guztiek parte hartzeko deia egiten zaiela sentitzeak ere bai. Hau da, inork ez dezala pentsa kontsulta tresna partziala denik.

Guk, herritarren balidaziorako egiten dugun proposamenean, kontsulta

partidos vascos, y que lo haga dilucidando si ese acuerdo está en consonancia con el cuidado que una sociedad plural como la nuestra exige para su convivencia.

4.2. El para qué. Nosotras, para garantizar el pacto plural


El propio nombre, la consulta habilitante, indica su objetivo: "Dar a alguien el capital para que pueda negociar por sí mismo". Es decir, se trata de llamar a la ciudadanía a avalar la estrategia de un tercero, en este caso un choque de legitimidades entre partidos políticos, o en el peor de los casos entre instituciones.

Frente a este enfoque proponemos la validación, el acto de hacer firme, de dar valor, por la ciudadanía vasca a un acuerdo de los propios partidos que la representan. Hacerlo no para confrontarnos entre nosotras ni con otras instituciones, sino como el examen de que lo pactado entre los partidos tiene el respaldo social suficientemente plural para poder ser remitido a las Cortes Generales.

4.3. El cómo. Nosotras, de forma legal y pactada

La condición de democrático en un proceso de consulta la da tanto el hecho de la propia convocatoria a la ciudadanía como el de que toda ella se sienta llamada a participar. Es decir, que el instrumento nadie lo percibe como de parte.

En nuestra propuesta de validación ciudadana, al contrario de la consulta habilitante, esta se





gaitzailean ez bezala, modu legal eta itunduan egiten dugu deia, hau da, Eusko Legebiltzarraren bi herenek Gobernu Zentralari eskatuta. Beraz, egungo lege-esparrua aldatzen ez den artean, Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Estatutuaz eman zuten 31/2010 Epaia ekarri behar dugu gogora, erkidegoek kontsultak eta erreferendumak deitzean dauden mugei buruz.

convoca de forma legal y pactada, es decir, por petición de 2/3 partes del Parlamento Vasco al Gobierno central. En este sentido, mientras no se modifique el actual marco legal es preciso recordar la Sentencia 31/2010 del Tribunal Constitucional a cuenta del Estatut de Catalunya, en relación con los límites en la convocatoria de consultas y referéndums por parte de las comunidades.

EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRAK

EH BILDU-K I. OINARRIARI AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA, 1.2 APARTATUA

Azken 150 urteotan euskaldunen belaunaldi bat ere ez da egon gure herriak pairatzen duen gatazka politikoari lotutako indarkeria mota bat edo bestea ezagutu ez duenik. Inguruabar historiko horiek sufrimendu larria eragin dute gure herrian. Historia horretatik ikasi behar dugu. Ulertu behar dugu estatus berri honen lanketak gatazkaren konponbideari heldu ez ezik, kultura demokratikoa ezarri ere egin behar duela. Kultura hori oinarritu behar da giza eskubide guztien defentsan, pertsona guztientzat, eta bazterrean utzi behar du, behin betiko, indarkeria politikoaren erabilera gure desadostasun politikoak konpontzeko.

EH BILDU-K IV. OINARRIARI AURKEZTUTAKO BOTO

VOTOS PARTICULARES PRESENTADOS POR EH BILDU

VOTO PARTICULAR DE EH BILDU A LA BASE I, APARTADO 1.2

A lo largo de los últimos 150 años no ha existido una sola generación de vascos y vascas que no haya conocido la existencia de uno u otro tipo de violencia ligada al conflicto político que padece nuestro pueblo. Estas circunstancias históricas han producido un grave sufrimiento en nuestro país. Necesitamos aprender de la existencia histórica. Necesitamos entender que la elaboración de este nuevo estatus no solo debe abordar la solución al conflicto, sino que además debe asentar una cultura democrática sustentada en la necesidad de la defensa de todos los derechos humanos para todas las personas y el destierro definitivo del uso de la violencia política para dirimir nuestras diferencias políticas.

VOTO PARTICULAR DE EH BILDU A LA BASE IV, APARTADO 2.3





PARTIKULARRA, 2.3 **APARTATUA**

Estatus politiko berriak Euskal Botere Judiziala aintzatetsiko du, gainerako botere judizialeatik independentea, eta Justizia Administrazioaren egungo deszentralizazio-eredua gaituko du. Horretarako, antolaketa eta oinarri judizialeko eredu berri bat ezarriko du eta Euskal Auzitegi Nagusia sortuko da.

Euskal Kontseilu Judizial Nagusia sortuko da, gobernu-organo judizial gisa, Eusko Legebiltzarraren legeak ezarritako ereduaren arabera. Euskal eskola judiziala sortuko da, Euskal Kontseilu Judizial Nagusiaren mendekoa.

Euskal botere judizialaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin batera, SJPri gure lurraldean Justizia Administrazioa antolatzeke ahalmena aintzatetsiko zaio, autoantolatzeke ahalmena gauzatzeko behar-beharrezkoa baita, foru-tradizioaren eta erkidegoko esperientzia historikoaren arabera.

Espeite-politikak SJPren eskumenekoak izango dira eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Euskal Botere Judizialak landuko dituzte elkarrekin.

Ertzaintza izango da lurraldeko Polizia Judiziala, ondorio guztietarako.

El nuevo estatus político reconocerá el Poder Judicial Vasco, independiente del resto de los poderes públicos, y superará el actual modelo de descentralización de la Administración de Justicia, estableciendo un modelo de organización y planta judicial propio, que culminará en un Tribunal Superior de Justicia Vasco.

Se creará el Consejo General del Poder Judicial Vasco, como órgano de gobierno judicial, de acuerdo al modelo que establezca la ley del Parlamento Vasco. Dependiendo del Consejo General del Poder Judicial Vasco se creará una escuela judicial vasca.

Dentro del ámbito del Poder Judicial vasco, y junto con el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco, se reconocerá al SJP la capacidad de organizar la Administración de Justicia en nuestro territorio, como parte imprescindible de su potestad de autoorganización de conformidad con la tradición foral y la experiencia autonómica histórica.

Las políticas penitenciarias serán competencia del SJP y se desarrollarán en colaboración entre el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco y el Poder Judicial vasco.

La Ertzaintza será a todos los efectos la Policía Judicial en el ámbito del territorio.

